



EAE-KO GAZTE-ELKARTEGINTZAREN  
LIBURU ZURIA  
2003

#gazte plana#  
— 2002-2005 —

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



# EAEko Gazte-Elkartegintzaren Liburu Zuria

2003

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**

Kultura, Gazteria eta  
Kirol Sailordetza

*Gazteria eta Gizarte Ekintzarako  
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Cultura,  
Juventud y Deportes

*Dirección de Juventud y Acción  
Comunitaria*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

EAEko gazte-elkartegintzaren liburu zuria : 2003. –1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

p. ; cm. – (EAEko Gazte Plana = Plan Joven de la CAPV ; 9)

ISBN 84-457-1957-2

1. Asociaciones juveniles-Euskadi. I. Euskadi. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. II. Serie

061.213(460.15)

*Argitaratutako tituluak:*

1. EAEko Gazte Plana 1999-2001
2. Plan Joven de la CAV 1999-2001
3. Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000
4. Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000
5. Euskadiko gazteak 2000
6. Juventud vasca 2000
7. EAEko II. Gazte Plana 2002-2005
8. II Plan Joven de la CAV 2002-2005
9. EAEko Gazte-Elkartegintzaren liburu zuria 2003

---

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1957-2

L.G.: BI-2186-03

# AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	9
------------------	---

## LEHENENGO ATALA: EAE-KO GAZTE-ELKARTEGINTZAREN LIBURU ZURIA

<b>Gazte-elkartegintza eta partaidetza .....</b>	<b>13</b>
Gazteria kontzeptuari buruz .....	15
Partaidetza kontzeptuari buruz .....	19
Gazte elkarte kontzeptuari buruz .....	21
<b>Emaitzak .....</b>	<b>25</b>
Euskadiko gazteria eta elkartegintza .....	27
Erakunde aniztasuna .....	29
Pertsonak .....	33
Partaidetza .....	36
Erakundeen arteko lankidetzak .....	38
Erakundeak eta Administrazioa .....	39
Azken ondorio gisa .....	41
<b>Gomendioak .....</b>	<b>43</b>

## BIGARREN ATALA: EAE-KO GAZTE-ELKARTEGINTZARI BURUZKO ANALISIA

<b>Ohar metodologikoa .....</b>	<b>57</b>
<b>1. Elkarte egituraren egoerari buruzko datuak .....</b>	<b>61</b>
1.1. Aurretiazkoak, ikertu beharreko unibertsoari buruz .....	63
1.2. Lurraldean araberako banaketa .....	64
1.3. Udalerrien araberako banaketa .....	64
1.4. Jarduketa eremuak .....	66
<b>2. Gazte intereseko erakundearen tipologia .....</b>	<b>67</b>
2.1. Kontuan hartu beharreko irizpideak .....	69
2.2. Haustura-ardatzak .....	84

<b>3. Erakundeen antolaketa eta funtzionamendua</b> .....	87
3.1. Forma juridiko tradizionalen nagusitasuna gazte intereseko erakundeetan .....	89
3.2. Giza baliabideak: pertsonak .....	89
3.3. Gazte intereseko erakundeetako partaidetza profilak .....	98
3.4. Baliabide ekonomikoak .....	99
3.5. Beste erakunde batzuekiko lankidetzak: sareko lana .....	102
<b>4. Gazte-elkartegintzaren oraingo egoera</b> .....	105
4.1. Gazteek gizartean parte hartzeko dituzten moduen aldaketak .....	108
4.2. Erakundeen arazo nagusiak .....	112
4.3. Gazte intereseko erakundeek euren arteko harremanak izateko modua .....	114
4.4. Gazte intereseko erakundeen erronkak .....	120
<b>5. Interneti buruzko gogoetak</b> .....	123
5.1. Internetek EAEko gazteen artean duen erabilerari buruzko datuak .....	125
5.2. Interneti buruzko eztabaida .....	126
5.3. Internet eta gazte intereseko erakundeak .....	127
<b>Bibliografia</b> .....	129

# KOADROEN, GRAFIKOEN ETA ESKEMEN AURKIBIDEA

## Koadroen aurkibidea

1: EAEko bilakaera demografikoa	18
2: Elkartegintza kontzeptua	22
3: Behin-behineko unibertsoa	59
4: Lurraldeen araberako banaketa erlatiboa	64
5: Erakundeen banaketa biztanleriaren arabera	65
6: Erakundeek jarduketaren eremu geografikoaren arabera duten banaketa	65
7: Belaunaldi aldagaiaren laburpen koadroa	81
8: Soldatapeko langileak, jarduera eremuen arabera	90
9: Soldatapeko langileen dedikazioa	91
10: Praktikak egiten ari diren pertsonak, jarduketa eremuen arabera	93
11: Soldatapekoak ez diren langileek erakundeetan duten presentzia	94
12: Soldatapekoak ez diren langileen dedikazioa	94
13: Soldatapekoak diren eta ez diren langileek adinen arabera duten banaketa	96
14: Iraunkortasunaren banaketa konparatiboa	97
15: Gestionatutako diru kopurua	99
16: Harremanen dentsitatea	102
17: Erakunde mailako harremanik gabeko organizazioak (%)	115
18: Administrazioarekiko harremanaren gaineko balorazio txarraren arrazoiak	117
19: II. Gazte Planean agertzen diren ekintzen gaineko balorazioa	119
20: Interneten erabilera, EAEko gazteen artean	125

## Grafikoen aurkibidea

1: Landa-lanaren emaitzak	58
2: Lurraldeen araberako banaketa	64
3: Erakundeek jarduketaren eremu geografikoaren arabera duten banaketa	66
4: Gazte Planaren eremuen araberako banaketa	72
5: Jarduketa eremuen araberako banaketa berria	73
6: Talde onuradunak, jarduketa eremuen arabera	75
7: Kudeaturiko diruaren bolumena, batez besteko adinaren arabera	77
8: Soldatapeko pertsonak, batez besteko adinaren arabera	77
9: Lehentasunezko jarduketa eremua, batez besteko adinaren arabera	78
10: Lehentasunezko eremu geografikoa, batez besteko adinaren arabera	79
11: Talde onuradunak, batez besteko adinaren arabera	80
12: Eskariak, batez besteko adinaren arabera	80
13: Banaketa, subjektu-objektua aldagaiaren arabera	83
14: Soldatapeko langileak, udalerrriaren neurriaren arabera	91
15: Sexuaren araberako banaketaren konparazioa	94

16: Langileen adinen araberako banaketa konparatiboa .....	96
17: Iraunkortasunaren banaketa konparatiboa .....	98
18: Kudeaturiko diruaren bolumenaren konparazioa .....	100
19: Kudeaturiko diruari buruzko aurreikuspenak .....	100
20: Finantziazio bide nagusiak .....	101
21: Finantziazio bide nagusien araberako banaketa .....	102
22: Partaidetza indizeen konparazioa, ikerketen arabera .....	109
23: Erakundeekiko harremanen balorazioa .....	116
24: Eskari nagusiak .....	118

### Eskemen aurkibidea

1: Erakundeen eskema, subjektu-objektuaren arabera .....	83
2: Partaidetza profilen laburpena .....	98
3: Partaidetza proaktiboaren eta erreaktiboaren ezaugarriak .....	111



## AURKEZPENA

Liburu zuri hau Gazte Planaren garapenean kokatzen den ikerketa zabal baten barruan dago eta erantzuna eman nahi dio EAEKO GAZTE-ELKARTEGINTZAREN LIBURU ZURIA egiteko eskariari. Agiria, *Ados Consulting Ikertaldea, S.L.* taldeak 2001eko irailaren eta abenduaren artean egindako ikerketa lanaren emaitza da, eta lan hori Gazteriaren Euskal Behatokiak eskatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzaren bidez.

Dokumentu honetan, beste alde batetik, *Liburu Zuria* deritzon izaera ematen dioten funtsezko hiru alderdi jorratzen dira: deskribapena, azterketa eta proposamenak. Gazte-elkartegintzaren «argazki izoztu» ona egitearen garrantzia gutxietsi barik, esan behar da irudi izoztu huts bat (hau da, 2001eko amaieran egindako deskribapena) ez dela nahikoa, gazteria politikaren kudeaketarako. Eta hori, berriz, bi arrazoi nagusirengatik.

Lehenengo eta behin, gizarte eremuko era guztietako ikerketetan ohikoa den gauza batengatik: datuen indarraldi laburra. Izan ere, gizarte aldaketaren erritmo bizkorren eraginez (informazioaren gizartea deritzonaren barruan), funtsean deskribatzaileak diren gizarte ikerketak laster zaharkitzen dira.

Bigarrenez, elkartegintza eta, hain zuzen ere, gazte-elkartegintza garrantzi handiko eztabaiden erdigunean kokatzen delako, adibidez, gizarteak parte hartzeko moduak edo Hirugarren Sektoreak Ongizate Estatuaren zehazpen berrian duen zeregina.

Horri dagokionez, elkartze egiturak partaidetza eta adierazpen plataforma garrantzitsuak eskaintzen dizkio gazteen taldeari, baina hori ezin daiteke hartu gazteen partaidetzaren eta elkartzearen bide nagusizat. Halaber, elkartze egitura ez da biderik baliozkoe-na gazteen arteko harremanetarako, ez baititu zehatz adierazten EAEko milioi erdi gazteen interes anitzak.

Arrazoi horiek eta beste batzuk kontuan hartuta (gazteen arazoei loturiko arrazoiak), esan daiteke elkartegintzaren gaia estrategikoa dela, zalantzarik gabe. Horrenbestez, ikerketak ikuspegi zabaletik egin nahi dituen pertsonak sarritan oso ausartak izan behar duten jarduketara proposamenak egin beharko ditu.

Beste alde batetik, ikerketaren objektua zehaztu beharra dago: gazte-elkartegintza. Izan ere, gazte-elkartegintza zer den ondo zehaztu barik dago; halaber, oraindik ere ze-

hazteko daude gazte elkarre bat beste elkarre mota batetik bereizten laguntzeko irizpide eraginkorrak. Egin-eginean ere, «gazte» hitza bera ere oso erlatiboa da.\* Liburu Zurian kontzeptuaren arazoa ere jorratzen da.

Txostenaren edukiari dagokionez, bi zati bereizi behar dira: «EAEko Gazte-elkartegintzaren Liburu Zuria», alde batetik, eta «Gazte-elkartegintzaren oraingo egoera», bestetik.

«EAEko Gazte-Elkartegintzaren Liburu Zuriaren» agirian Euskal Autonomia Erkidego-ko elkartze egitura aztertu ostean ateratako ondorio nagusiak jaso dira. Era berean, gazteriaren politikak elkartzeen arloan bereiztuko dituzten gomendioak ezarri dira.

«EAEko Gazte-Elkartegintzari buruzko analisisian» deritzon agirian ondorioak eta gomendioak ezartzera ekarri duten deskripzio eta azterketa mailako elementu guztiak zehaztu dira. Agiri hori eranskintzat har daiteke, eta bertan, datu zehatzak eta azterketak erabiliz, Liburu Zuriaren edukia euskarritzen da.

Amaitzeko, esan behar da lan honek (egindako azterketan oinarrituz) proposizio maila hartzen duela eta beti adeitsuak edo erosoak ez diren ondorioak eta gomendioak ezartzen dituela. Azken batean, lanaren helburua eztabaida eragitea eta sustatzea da, EAEko gazteek gizartearen parte hartzeko dituzten moduei buruz.

**MIREN AZKARATE**  
*Kultura sailburua*

---

\* Gazte Planean gazte kontzeptuaren arazoa adierazten da: «Gizarte Zientziek emandako definizioaren arabera gaztetasuna nerabezaroaren eta heldutasunaren arteko fasea da... Ikuspegi sozio-ekonomikoago batetik, gazteen oraingo errealitateak hurbilagoko ikuspegi batetik, beharrezkoa da lan irizpidea kontuan hartzea, gazteen taldearen errealitatea eta nagusien mundua bereizten duen faktoretzat.»

LEHENENGO ATALA

**EAEko Gazte-  
-Elkartegintzaren  
Liburu Zuria**





**Gazte-elkartegintza  
eta partaidetza**



## GAZTERIA KONTZEPTUARI BURUZ

Gazteriari gizarte ikerketaren ikuspegitik hurbiltzeko, ikuspegi kronologikoak edota biologikoak gaintitu behar dira, eta horien arabera, gaztea heldutasunera iritsi ez dena da. Horrela, ikerketa honetako gizarte ikuspegiak *gazte* hitzaren benetako esangura kulturala hartzen duen ikuspegi soziologikoa hartzea eskatzen du.

Ikuspegi horren arabera, esan behar da gaztea gizartean egiten eta berregiten dela. Ez da gauza bera oraingo gaztea, atzokoa edo biharkoa. Gizarte aldaketek kontzeptuen berrikuspena eragiten dute, eta, kasu askotan, definizio berriekiko adostasunik eza ere bai.

---

### Gazteria kontzeptua mugatzean dagoen adostasunik eza

Gazteriaren definizioa emateko orduan, kontuan hartu behar da kontzeptu hori ez dela ziklo biologikoaren etapa bat izendatzeko hitza bakarrik, askoz ere gehiago baita. Izan ere, ziklo biologiko horri gizarte errealitate argia gehitu behar zaio eta errealitate hori sarritan helduen bizitzarako «trantsizio alditzat» adierazten da.

Gazteriaren definizioa emateko gehien erabiltzen den irizpidea adina da, baina horrek arazo asko ditu. Hala eta guztiz ere, bizitza-etapa horren aldia mugatzeko orduan ere ez dago adostasunik.

*Nazio Batuen Biltzar Orokorrak* eta *Europako Batzordeak*<sup>1</sup> uste dute gaztetasuna 15 eta 25 urte bitartean luzatzen den aldia dela.

Beste alde batetik, *Espaniako Gazteriaren Kontseiluak* dioenez, gazteak 13 eta 29 urte bitartekoak dira. Azkenik, *EAE-ko Gazte Planak* dioenez, gazte hitza aldagarria da, sailkapenaren helburuaren arabera, eta, horrenbestez, gaztetasuna jorratzen ari den gaiaren edo eremuaren araberrako kontzeptu malgua da.

Gaztetasuna «trantsizio aldia» dela dioen definizioa kontuan hartuta (helduen bizitzarako trantsizioa), eta aldi hori mugatu beharra dagoenez, plan honetan ezarritakoaren

---

<sup>1</sup> EUROPAKO KOMUNITATEEN BATZORDEA. *Europako Batzordearen Liburu Zuria - Bultzada berri bat Europako gazteentzat*, Brusela, 2001.

arabera, gazteak 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak direla esango dugu. Aldiz, 15 eta 25 urte bitarteko taldea ez da guztiz baliozkoa, gaurko gaztetasuna mugatzeko; izan ere, gazte askok bizi duten errealitate ekonomikoak eta soziokulturalak ez die aukerarik ematen aldi horren amaieran helduen munduan sartzeko: 24 urte.

Gaztetasunaren aldia adin jakinean mugatu arren, sailkapen hori ezin daiteke erabili aldi horren barruan dauden pertsona guztien ezaugarri komunak bateratzeko; egin-eginean ere, horren barruko errealitate indibidualak eta sozialak ez dira homogeenak eta aldagarriak dira, une bakoitzaren arabera: haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa. Beste alde batetik, aldi luzea da (15 urte hartzen ditu barruan) eta, bertan, pertsonen beharizanak eta arazoak aldagarriak dira: aisialdia, ikasketak, lana, etxebizitza..., kasuan kasuko unearen arabera.

### Gazteria belaunaldi txanda gisa

Gazteriaren eginkizunetariko bat belaunaldi txandarena da. Gazteriak garrantzi handia hartzen du, etorkizunaren adierazpentzat, hau da, gure gizartearen biziraupenaren bermetzat. Helduen belaunaldi guztiek gazteengan jarri dute etorkizunaren eta jarraitasunaren itxaropena; baina, aldi berean, helduen belaunaldi horiek guztiek susmoz eta zalantzez begiratu diete beti gazteei, helduen gizarte ordena lortu behar duten gazteei. Zalantza hori, hain zuzen ere, lehendik ezarritakoa aldatzeko beldurrak eragindakoa da.

Horrenbestez, kontraesan nabaria dago. Alde batetik, helduen belaunaldiek partaidetza, planteamendu berriak eta planteamendu kritikoak eskatzen dizkiete gazteei; baina, beste alde batetik, euste eta kontrol neurriak aplikatzen dira, gazteen eskuhartzeak sortzen duen mehatxuaren beldur. Gazteen partaidetza bai, baina helduen ordenaren barruan.

### Gazteria eragile-subjektu eta ez gazte politiken objektu gisa

Helduen gizarteak gazteriari dagokionez duen jarrera kontrolatzailearen eta paternalistaren adierazpen nabarienetariko bat erakundearen ekimenetan eman zaion protagonismoa da. Gazteria objektutzat agertzen da gehienbat politika publikoetan, hau da, politika horien hartzailetzat eta onuraduntzat, baina ez subjektutzat. Gazteria helduen munduak antolatzen du, eta gazteentzako neurri komenigarriak ere mundu horrek aukeratzen ditu.

Gazteriaren politiken ikuspegi berria planteatu behar da, gazteen partaidetza sustatzeko, eurengan eragina duten politiken eta programen planifikazioan, aplikazioan nahiz ebaluazioan. Horien partaidetza ez da kontsultara mugatu behar. Hala eta guztiz ere, pertsona gazteen inplikaziorako, partaidetzarako baldintzak egon behar dira.

### Gazteriaren partaidetzarako baldintzak

Gazteriak politika publikoen diseinuan partaidetza eraginkorra edukitzeko, baldintza hauek hartu beharko dira aintzat:

- ▮ Lehenengo eta behin, partaidetzarako motibazioa. Inplikazioa oso zaila izango da gazteek seguru ez badakite horrek eragina izango duela, euren errealitatean eta etorkizunean.



- ▶ Bigarrenez, bide egokiak eskaini behar zaizkie, politika publikoen diseinuan parte har dezaten, batez ere lehentasunezko helburutzat gazteen bizi-kalitatea hobetzea duten politiketan.
- ▶ Hirugarrenaz, gazteek beharrezko ezagupenak eskuratu beharko dituzte, partaidetza eraginkorra egiteko. Horri dagokionez, gazte intereseko erakundeak gune egokiak dira, partaidetza prozesuetan inplikatzeko behar diren trebetasunak eta baliabideak eskuratzeko.
- ▶ Azkenik, borondatea behar da, gazteen partaidetzaren ondoriozko neurriak, ekimenak eta ekintzak onartzeko eta inplementatzeko. Batzuetan, talde horren partaidetza kontsulta hutsezkoa da, lorturiko erabakiak eta akordioak sarritan ez baitira garatzen (ezerezean geratzen dira).

### Gazteriar buruzko planteamendu metaforikoak

Ruiz Olabuenaga irakasleak ibilbide laburra egin du soziologian gazteei buruz mintzatzeko sarritan erabili diren metafora batzuetatik. Metafora horien inbentarioa egitea baliozkoa da gazteriak literatura espezializatuan orain arte jaso duen tratamendua aztertzeke. Gazteriarren metaforak, ondoren agertzen direnak, baliozkoagoak dira talde horri buruzko topikoak indartzeko, horren ezaugarriak azaltzeko edo arazoak aztertzeke baino.

- ▶ Metafora botanikoa. Gazteria udaberriaren oparotasunari, berritasunari eta emankortasunari lotzen zaio.
- ▶ Metafora meteorologikoa. Gazteria denbora-arteko gizarte fenomeno batekin identifikatzen da; hau da, oraindik heldu gabeko gauza da, zehaztu gabekoa, eta beraz, helduen ikuskapena eta modelatua behar du.
- ▶ Metafora mekanikoa. Gazteria trukerako edo berritzerako piezatzat, helduen zerbitzuan.

Metafora horiei dagokienez (guztiak helduen ikuspegitik landutakoak), Ruiz Olabuenagak *immigrazioaren* metafora proposatzen du.

Planteamendu arriskutsuago horretatik, gazteak «*etorkin kulturalak*» dira, hau da, helduen munduko kostaldeetara *pateretan* iritsi eta egokitzapen prozesu gogorrari aurre egin behar dioten pertsonak (eurentzat arrotza den kulturarekiko egokitzapen prozesua).

Gainontzekoetan ez bezala, interpretazio honetan ahalegina egin behar da gazteriarren fenomenoak gazteen ikuspegitik ulertzeko, eta ez helduen ikuspegitik soilik. Ikuspegi hori erabiltzeko, beharrezkoa da biztanle gazte berrien «*paterara igotzea*», horiengan eragina duten fenomenoak hobeto ulertzeko, fenomeno horiek «helduen hondartzatik azertu beharrean».

Trantsizio aldiaren zehar (hautzarotik helduen adinera doan aldia), gazteek era guztietako baliabideak erabiltzen dituzte, eremu eta eszenatoki desberdinetan. Ikuspegi horretatik gazte intereseko erakundeetan helduen adinerako trantsizio hori gertatzen da. Erakundeok sozializazio eremuak dira eta, horietan, gazteek beharrezko trebetasunak eta tresnak eskuratzen dituzte, helduen mundura egokitzeko prozesuan arrakastaz izateko.

### Gazteriaren aldaketak

Azken hamarkadotan, gazteriak aldaketa batzuk izan ditu. Aldaketa horiek eta euren ondorioak sustatu dituzten zergatien deskribapena baliozkoa da, gazteek gaur egun duten egoera hobeto interpretatzeko.

Gazteen hegemonia demografikoa galdu egin da; 2000. eta 2020. urteen artean, 65 eta 90 urte bitarteko pertsonen kopurua %16tik %21era igaroko da, Europar Batasunean; 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen portzentaia, berriz, biztanleria osoaren %11 baino ez da izango.

EAEren eremuan, joera demografikoa Europakoaren berdina da. Horrenbestez, arduradun politikoak kezkatu dabilta, ikusten baitute joera hori berretsiz gero Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria Europako zaharrenetariko izango dela.

#### 1. koadroa: EAEko bilakaera demografikoa

EAEko jaiotza kopuruaren bilakaera bosturtekoetan		
Urtea	Jaiotzak	Jaiotza-Tasa gordina (*)
1975	39.646	19,1
1980	28.812	13,5
1985	20.970	9,8
1990	16.316	7,8
1995	15.322	7,3
1999	16.787	8,1

*Iturria:* Geuk landuta, EUSTATen datuetan oinarrituz.

(\*) Jaiotze kopurua mila biztanleko.

Gazte kopuruak behera egitearen ondorioz, mehatxu ekonomikoak eta kulturalak sortzen dira.

Lehenengo kasuan, kotizatzen dutenen etorkizuneko masa murriztean (langile gaztea), pertsona helduen oinarri ekonomikoa zalantzan gelditzen da. Halaber, gazteen merkatua ahuldu egingo da eta merkatu horrek garrantzia erlatiboa galduko du helduen kontsumoari dagokionez. Azkenik, biztanleria zahartzearen ondorioz, gizarte ongizateko zerbitzuen eskaintza berriro zehaztu beharko da, zerbitzuok gehienbat adin talde hegemonikoari bideratuta egongo baitira: pertsona helduak.

Beste alde batetik, ikuspegi kulturaletik, protagonismo demografikoa galtzearen ondorio negatiboak estu lotuta egongo dira gazteen bizimoduaren onarpenarekin eta legitimitatearekin. Azken talde horretan partaidetza moduak sartzen dira eta horiek, gero ikusiko dugunez, eragin handia jasoko dute.

### Gaztaroaren luzapena

Faktore ekonomikoen eta soziokulturalen eraginez, gazteek adin nagusiagoan igaroko dituzte helduen etaparako faseak, haurtzarora, nerabezarora eta gaztaroa. Eskola-etapa

luzatu egin da, laneratzeko eta gurasoengandik independentzia lortzeko etapa ere bai; horrela, helduen mundura sartzeko etapa ere atzeratu egin da.

### *Bizimoduen heterogeneotasuna, gazteen collagea*

Gazteria desagertzen ari da taldeko presentziatzat, eta, horren ondorioz, bizimoduen indibidualismoa sortu da. Gazteen talde eredu tradizionalak orain arteko protagonismoa galdu dute eta, horien ordean, bizimodu indibidualagoak agertu dira. Helduen adinerako igarotzea dagoeneko ez da taldean egiten, gazte bakoitzak bere ibilbide indibiduala egiten baitu, aldaketa horri aurre egiteko.

Horren ondorioz, gazteen arazoa ezin daiteke gauza homogeneotzat hartu, eta bizimoduen heterogeneotasunak bereizitako errealitatez ikertu beharko dugu.

### *Helduen adinerako etapen gainjartzea*

«Bizitzaren faseak gainjartzeko» joera dago; horrela, egoera desberdinak ikus daitezke, eta ez dakigu zein dagoen bestearen aurrean; esate baterako, gazte bat honako hauxe izan daiteke aldi berean: ikaslea, familia baten arduraduna, gurasoekin bizi, langilea izan,... Horrela, adin talde berberaren barruan era guztietako egoerak konbinatzen dira gero eta gehiago.

### *Eskola aldia*

Eskola aldia asko luzatu da. Euskal Autonomia Erkidegoko nerabeen %100ek zortzi ordu ematen dituzte egunero ikastetxean, harik eta hamasei urte bete arte, eta gazte kopuru handi batek hogeita lau urte arte jarraitzen ditu ikasketak.<sup>2</sup>

Eskola aldia, neurri batean, enplegu krisiaren eta gero eta heziketa hobea behar izatearen ondorioz luzatu da. Ikastetxeetan etengabe egote horren eraginez, gazteek nekezago garatzen dute euren bizitza proiektua, heziketa alde batera utzita dagoen proiektua, astialdia gero eta laburragoa baita. Astialdirik ez egote horrek, neurri batean, gazteen partaidetzak izandako ahultzea azaltzen du.

## **PARTAIDETZA KONTZEPTUARI BURUZ**

Gazte-elkartegintzaren gaia aztertzeke, lehenengo eta behin terminologia mugatu behar da argi eta garbi, gero azterketan erabiliko diren kontzeptuak argitzeko. Hizkuntzaren Espainiako Errege Akademiak emandako definizioaren arabera, elkartzea «elkartzearen ekintza edo ondorioa da». «Elkartzea», halaber, «gauza bat beste batekin batzea da, horiek adiskidetzeko edo helburu berbera edukitzeko».

Prieto Lacasi autoreak, 90eko gazte-elkartegintzari buruz egindako lanean, definizio soziologikoa aipatzen du, borondatezko elkartzei buruz: «...antolaketa egonkorreko

<sup>2</sup> RUIZ OLABUENAGA, José I.: *La juventud Liberta. Género y estilos de vida de la juventud urbana española*. BBV Fundazioa. Bilbo, 1998.

elkar-teek, antolaketa hori oso txikia izan arren, harremanak formalizatzeko nolabaiteko maila dute, kideen artean; gainera, interes komuneko helburuak lortu nahi dituzte, elkar-teko kideei dagokienez, eta ez dute irabazi asmorik».<sup>3</sup>

Beste alde batetik, Elkarteei buruzko Legeak ezarritakoaren arabera, elkar-teek «*lotura zehatza ezartzen dute gizartearen eta gizabanakoaren artean...*»; gainera «*garrantzi handia dute, iritzi publiko, kritiko eta heldua sortzeko*».<sup>4</sup>

Azken definizio horretatik elkartze munduari buruz ateratzen den ikuspegiaren arabera, elkartze mundua partaidetzan oinarritzen da, gizarte gaiei dagokienez, nolabaiteko egitura formalizatu batean oinarrituz. Elkartzeen interpretazio hori, bestalde, fenomeno hori soziologia politikoaren arabera interpretatzearen ondoriozkoa da; politika horren interesa elkartze egituran oinarritzen da eta horren jarduerak zuzenean aipatzen ditu boterea edo hori lortu nahi duten erakundeak (alderdiak, gobernu edo beste erakunde batzuk).

Ikerketaren ikuspegi honek, hala eta guztiz ere, azterketatik kanpo uzten ditu asoziazionismoko eta gizarte partaidetzako beste modu batzuk; horiek, kasu askotan, borroka eta errebindikazio politikoetatik kanpo gelditzen dira, baina gazteen gizarte partaidetzaren zati handia bideratzen dute. Horrela, ikuspegi irekiagoa erabilita (Lacasi-k erabilitako definiziotik hurbilago dagoen ikuspegia), gazteen elkartegintzari buruzko ikerketa orokorrean kulturen, aisialdian edo zaletasunetan oinarrituriko erakunde asko sar daitezke, edo, azken batean, gizartearen taldearen dimentsiotik eragin handiagoa edo txikiagoa duten elkartze jarduera guztiak, helburu guztietakoak, helburu desberdinekin eta era askotako estrategiak erabiliz.

Oro har, oso interesgarria da partaidetza modu berriak formula tradizionaletatik aparte identifikatzea (formula horiek, berriz, sistemak berak aurreikusitako bideetatik ematen diren partaidetza forma guztiak dira, adibidez, alderdi politikoak, hauteskundeak, etab.); hala eta guztiz ere, pertsona gazteen kasuan (horiengan urruntze handia ikusten da, politika tradizionalari dagokionez), ikerketa lerro hori funtsezkoa da gazteen taldea ulertzeko. Gazteen erdiak ez dira kokatzen eskuina-ekerra ardatzean eta hamarretik lauk ez dute inolako alderdi politikoren ordezkartzarik sentitzen,<sup>5</sup> eta beraz, urruntze hori agerian gelditzen da.

Errealitate hori kontuan hartuta, gazteen taldeak gizartearen parte hartzeko beste modu batzuk egoteko aukera jartzen du agerian. Horixe da, hain zuzen ere, gazte-elkartegintzaren azterketaren oinarrietarikoa: partaidetza. Hala ere, elkartzerik gabe partaidetza egon daitekeen era berean (hauteskundeetan), partaidetzarik gabeko elkartzea ere egon daiteke (aisialdiaz gozatzeko modu informalean baina sarritan edo sistematikoki biltzen den edozein pertsona talde).

*Elkartegintza* hitzaren esangurarik oinarritzkoena kontuan hartuta, esan behar da elkartzeetan nolabaiteko *continuuma* dagoela; bertan, taldeak elkartzeko modurik informalean batera gertatzen dira (lagun taldeak, zaletasunen batek elkarturiko adiski-

<sup>3</sup> PRIETO LACASI, Rafael: *Tendencias del asociacionismo juvenil de los 90*, Gazteriaren Erakundea. Madril, 1998.

<sup>4</sup> Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoa; EHAA, 42. zenb., 1988/03/01).

<sup>5</sup> EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILA. *Euskadiko Gazteak 2000*.

deak, etab.), eta elkartze formalizatuagoak eta, batzuetan, profesionalagoak ere gertatzen dira.

Lerro jarrai horren bitartezko ibilbidea, hala eta guztiz ere, ez da lineala eta apurtzerik gabea; izan ere, jauzi kualitatiboak identifika daitezke. Egin-eginean ere, gune jakin batean elkartze motarik oinarritzkoenak atari garrantzitsu bat gainditzen du: bere ekin-tzaren gizarte garrantziarena. Une horretan, partaidetzaz hitz egin daiteke, eta bertan, elkartzeak aldaketa kualitatibo handia dauka. Atari hori gainditu baino lehen, zalantzarik gabe, nolabaiteko elkartze maila dago, baina ez elkarte bat, ikerketa lan honetan emandako definizioaren arabera.

Horrela, aldi behin mendirako ibilaldiak antolatzeko biltzen den gazte talde batek elkartze mota bat eratzen du, baina ez elkarte bat.

Elkartea izateko, bi baldintza hauek bete beharko dira:

- ▶ Antolaketa egonkorra, oso txikia izan arren, nolabaiteko formalizazio maila duena, kideen arteko harremani dagokienez; gainera, interes komunek irizpideak finkatzen dira, elkarturiko pertsona guztientzat eta ez da hobaririk banatzen.<sup>6</sup>
- ▶ Elkarteko jarduerak nolabaiteko eragin publikoa izatea nahi da, eta, horretarako, ekintza publikoak gauzatu, mezuak bidali edo kanporako irekiera egiten da (erreklutatze ekintzak).

Horrela, EAEko gazterik gehienek nolabaiteko elkartze jarduera garatzen dute (lagun taldea, kirol edo zaletasun bereko adiskideak, etab.); proiekturen bat burutzeko elkartze egituraren bat erabiltzen dutenak, berriz, oso gutxi dira. Azken horiexek dira, hain zuzen ere, ikerketa honen helburu nagusiak, hau da, egitatez edo zuzenbidez<sup>7</sup> gizarterako jarduera lerroren bat proiektatzen duten elkartze harremanak.

## GAZTE-ELKARTE KONTZEPTUARI BURUZ

Gazte-elkartegintza kontzeptuaren zehaztugabetasuna kontzeptu mailako arazoa da eta arazo metodologikoan islatzen da. Argitu beharreko gauza, bestalde, gazteen asoziazionismo hitzaren bidez zer izendatzen ari garen azaltzea da (kontzeptu mailako arazoa); izan ere, gazte elkarteak zer den argi mugatu ezean, nekez mugatu daiteke ikerketa operatiboko unibertsoa (arazo metodologikoa). Arazo metodologikoa behintzat behin-behinean konpondu ondoren (ikus metodologiari buruzko atala), orain definizio proposamena landu behar da, ikerketa honetako helburu eraginkorretarako baliozkoa izateko. Definizio eraginkorrak bilatzeko orduan, kontuan hartu behar da ikerketa lan hau Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio desberdinetako gazte zerbitzuek egindako eskariaren ondoriozkoa dela, eta eskari hori I. Gazte Planaren bitartez adierazi da, eta II. Gazte Planean ere agertzen da.

<sup>6</sup> Gure ustez, komenigarria da «irabazi asmorik gabea» adierazpidearen ordez, «hobarien banaketarik gabea» adierazpidea erabiltzea, honako bi arrazoi hauengatik: lehenengo eta behin, elkarteak berak irabazi asmorik eduki ez arren sarritan kideek interes ekonomikoak eduki ditzaketelako (irudi profesionalak), erakundearekiko kontratu harremana dagoen neurrian; bigarren, irabazi asmoa bateragarritzat har daitekeelako, elkartearen filosofiarekin, jardueran eragina duen neurrian, programek emandako hobariak berriro inbertituta.

<sup>7</sup> CASADO, Demetrio: *Organizaciones voluntarias en España*, 2. edizio gaurkotua, HACER, 1995.

Testuinguru horretan, sarritan hiru irizpide erabiltzen dira, gazte elkartearen kontzeptua zehazteko:

- ▶ Erakundea gazteek osatuta egotea.
- ▶ Jarduera gazteei zuzenduta egotea.
- ▶ Gazteek erakundearen erabaki-guneetan parte hartzea.

Administrazioan eta elkarte egituraren bertan ere ez dago adostasunik, elkarte edo erakunde bat gazte elkartzat hartzeko hiru irizpide horiek izan beharreko konbinazio motari buruz. Kontsultaturiko erakundeen artean, nagusitzen den ideia gazteei zerbitzua ematearena da, kontuan hartu beharreko irizpideen artean.

## 2. koadroa: Elkartegintza kontzeptua

Kontuan hartu beharreko aldagaiak	Banaketa (%)
Jarduera gazteei bideratua dutenak	45,7
Gazteek osatutakoak	26,3
Aldaketa izaera dutenak	18,3
Gazteei erabakiak hartzeko aukera ematen dietenak	8,6
Ed/Ee	1,1
Guztira	100

*Iturria:* Geuk landua.

Horrela, erakunde guztien ia erdiaren iritziz, jarduera bat gazteen jardueratzat zehazteko kontuan hartu beharreko elementua nagusia garaturiko jarduera mota da. Kontuan hartutako bigarren irizpidea, berriz, partaidetzaren subjektua da. Hori batez ere gaztea izan behar da, erakundea gazte erakundetzat hartu ahal izateko.

Nolanahi ere, definizio baten aberastasuna errealitatea deskribatzeko duen gaitasunean oinarritzen dela kontuan hartuta, gazteen asoziazionismo kontzeptua erabiltzeak oztzopoa jarri ahal dio halako elkarte mota bat ondo ulertzeari, gazteen irabazi asmorik gabeko sektore osoa maila berean kokatzen baitu, nahiz eta errealitateak elkarrekiko oso desberdinak diren erakundeak daudela ageria jarri.

Horrela, gazte elkarteak kontzeptuaren ordeztu, ñabardura handiagoko kontzeptua erabiltzea erabaki da. Hori dela eta, *gazte intereseko erakundeak* kontzeptua erabiltzen da. Kontzeptu horrek hiru puntu ditu:

- ▶ *Erakundeak* aipatuko dira eta ez elkarteak. Erakunde kontzeptuak izaera orokorragoa dauka; elkarte kontzeptuak erabilita, berriz, pentsa daiteke Elkartei buruzko Legean jasotako elkarteak bakarrik aipatzen direla. Gainera, erakunde gehien forma juridikoa irabazi asmorik gabeko elkartearena izan arren, horiekin batera beste forma juridiko batzuk ere badira, eta inolako nortasun juridikorik gabeko erakundeak ere aurkituko ditugu.
- ▶ Beste alde batetik, erakunde batek gazteentzat duen *interesak* bi alderdi ditu: partaidetzaren alderdia eta jardueraren alderdia. Lehenengo alderditik edo ikuspegitik begiratuta, erakunde bat gazte interesekoa izango da gazteei partaidetzako eremu bat eskaintzen dienean jardueraren maila guztietan (zuzendaritza, kudeaketa eta betearazketa). Bestalde, gazteen ikuspegitik erakunde

interesgarria izango da, horrek garatzen duen jarduerak talde horretan eragin zuzena duenean, programa berezien bitartez.

Horrela, bi ikuspegi horien konbinazioak, partaidetzaren (subjektua eta objektua) tipologiak ezartzeko aukera ere ematen du (ikusi 2. kapitulua), eta horrek informazio garrantzitsua eskaintzen du, erakunde mota desberdinak *interes* aldagaiaren arabera identifikatzeko.

- ▶ *Gazte* hitzak zalantzarik gabe, izaera anbiguoagoa dauka; egin-eginean ere, hitz horri ematen zaion esangura soziologikoaren inguruan ez dago adostasunik, eta gainera, etengabe berrikusten ari den kontzeptua da (ez da gauza bera gaur egun gaztea izatea edo orain dela mende erdi gaztea izatea). Hala eta guztiz ere, badirudi gazteen azpi-kultura bat dagoela, bizitzaren zikloko aldi jakin bati lotuta, eta beraz, hori alderdi askotan kultura nagusitik (helduen kultura) bereizita dagoela.







**Emaitzak**



## EUSKADIKO GAZTERIA ETA ELKARTEGINTZA

### ***Oraingo gazteriaren ezaugarriak lagungarriak dira euren gizarte partaidetzako moduek izandako aldaketak azaltzeko***

Azken urteotan, gazteen taldeak aldaketa garrantzitsuak izan ditu eta aldaketa horien eraginez, aurreko belaunaldietako gazteriatik bereizia da: oraingo gazteen egoerak ez dauka zerikusirik euren gurasoen egoerarekin. Desberdintasun horiek ikustea eta aztertzea lagungarria da oraingo gazteriaren jokabideak, balioak, arazoak eta itxaropenak hobeto ulertzeko. Gainera, aldaketak kontuan hartuta, nolabait urrundu egingo gara beste ikuspegi batzuetatik, hau da, taldearen egoera helduen itxaropenetatik eta balioetatik aztertzeko joera duten ikuspegietatik (helduek euren erakoa nahi baitute gazteria).

Gazteen taldeak garrantzi demografikoa galdu du: gazteak gutxiago dira aurreko garaietan baino. Europako herrietan ikusten denez, taldeak beheranzko joera nabaria dauka eta, horren eraginez, erakundeetako arduradunak kezkatuak dabilta. Gazteen taldeak galdutako garrantzia (bai kopuruari dagokionez eta bai gizarteari dagokionez) agerian gelditzen da, euren gurasoen protagonismoarekin konparatzen dugunean. Gaur egun berrogei eta berrogeita hamar urte bitartean dituzten pertsonak *Baby Boom* deritzonaren seme-alabak dira eta zeregin garrantzitsua izan zuten Europako gizarteek hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan izandako aldaketetan. Horrenbestez, gazteriak parte hartzeko dituen moduetara hurbiltzeko, talde horren oraingo dimentsioan oinarritu beharko dugu.

Gazteriaren egoera ekonomikoa kezagarria da; egindako kalkuluen arabera, 2020an Europako biztanleria osoaren %11 izango da gaztea. Langabezi tasek, behera egin duten arren, oraindik ere batik bat gazteengan dute eragina, batez ere emakumeengan. Hala eta guztiz ere, gazteen taldearen lan arazorik larriena ez da langabezia, lanean ari diren gazteen lan ezegonkorra baizik. Laneko egoerak, baita beste faktore kulturalago batzuek ere, oztopatu egiten du gazteek bizitza proiektu autonomo eta independentea garatzeko duten gaitasuna; izan ere, gaztaroa asko luzatu eta helduen adinari lotutako kontsumoaren oinarritzko zirkuluetako sarrera oztopatzen du. Halaber, egoera horrek gazteriaren

denboraren banaketan eta erabileretan izan du eragina. Gazteek, lan merkatu ezegonkorrak eta gero eta lehiakorragoak eraginda, heziketan erabili behar dute euren astialdiaren zati handia. Euren bizitza pertsonaleko proiektua, berriz, laneratzea errazteko heziketa lortzean euskarritzen da. Azken urteotako krisi ekonomikoak, gainera, larriagotu egin du gazteriaren eskola itxialdia, beste egile batzuek ere ikusi dutena; oro har, oraingo gazteek astialdi gutxiago dute eta, beraz, murriztu egin da gizartean modu antolatuan parte hartzeko duten aukera.

Gazteria dagoeneko ez da gizarte talde homogeneoa; izan ere, gazteek bizitza estilo oso desberdineko unibertso konplexua osatzen dute. Gaur egun, beste inoiz baino gehiago, gero eta zentzu gutxiagoa dauka gazteriari buruz hitz egitean halako adierazpideak erabiltzea: «gazteriaren arazoa..., gazteriak dioenez..., gazteriak behar duena..., etab.». Gazteen taldearen ezaugarrietan eragina duten faktore nagusiak bi dira. Batetik, linealak ez diren bizitza ibilbideak ezarri dira. Hau da, adin talde berean egoera oso desberdinak aurki daitezke: gurasoak, ikasleak, langileak, langabetuak, etab.; horiek, jakina, interes, itxaropen eta beharrez desberdinak dituzte. Beste alde batetik, bizitzako ibilbide indibidualen garrantzia hartu dute, talde eredu tradizionalen kaltetan. Gizarte egutegiak, une bakoitzari lotutako bizi egoerekin, desagertzeko joera dauka: gazteak erritmo eta zergati desberdinekin iristen dira etapa bakoitzera. Oraingo gaztearen heterogeneotasuna, bestalde, gizartean parte hartzeko moduetara ere hedatuko da: dibertsifikatuagoak, anakronikoagoak eta kontraesankoragoak.

### ***EAEko gazte intereseko elkartzeko egituraren ezaguera urriaren ondorioz, horren benetako garrantziari buruzko balorazio onegia egin da***

EAEko «elkartze irudipen» deritzona azaltzeko orduan, bi faktore aipatu behar dira. Lehenengo eta behin, balorazio zamarik gabeko gazte intereseko elkartzeko fenomenora hurbiltzeko aukera ematen duen erreferentzia enpirikorik ez egotea.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko elkartzeko egituraren ustezko bizitasuna «handitutako» datu-baseetan oinarritzen da hain handi batean; izan ere, horien elementu berri bakarra alta berriak egotea da, baina gutxitan jasotzen dira erakunde askoren jardura amaitzearen ondoriozko baxa asko eta asko.

### ***Gazte intereseko erakundeak eta elkarteak gaur egun ez dira lehentasunezko bideak, EAEko gazteekiko elkarrizketarako***

Gazte intereseko elkartegintzaren azterketa xehatuak agerian jartzen duenez, ez da egokia, ikuspegi kuantitatibotik eta kualitatibotik begiratuta, EAEko gazte intereseko erakundeek gazteen taldean sortzen ari diren mugimenduak eta aldaketak islatzen dituztela pentsatzea.

Fenomenoaren garrantzi kuantitatiboaren azterketak agerian jartzen duenez, gazte intereseko erakundeetan nolabaiteko interesa duten pertsonen kopurua garrantzitsua izan arren (bostetik bat), formalizaturik dagoen (nahiz eta

legalizatua ez izan) eta gizartearen aldetik aktiboa den elkartegintza ez da gazteen elkartze jardueraren modu nagusia. Horrela, EAEko gazte ia guztiek elkartze harreman pribaturen bat duten bitartean (lagun-taldeak, taldean egindako kirol jarduerak, etab.), oso gutxi hartzen dute parte eremu publikorako «jauzia» egin duten erakundeetan.

Azterketa kualitatiboak adierazitakoaren arabera ere, erakundeetan egoteko moduak bi profil idealen eraginezkoak dira, bata proaktiboa (ekimenarekin eta inplikazio pertsonalaren maila handiarekin) eta bestea errektiboa (ekimenik gabea eta konpromiso maila txikiekin); gainera, partaidetza modu errektiboan aldeko joera argia ikusten da eta, horien bitartez, ez dago lotura osorik erakundearekin. Era berean, eskema honetan ezartzen diren loturak (laxoak eta iragankorrak) kontuan hartuta, erakundeei buruz ezin daiteke hitzik egin gazteriarekiko harreman egonkorretan oinarrituz.

**«Gazte elkartze» kontzeptua ez da kontzeptu mailako tresna baliozkoa, gazteen talderako garrantzitsuak diren elkartek eta erakundeak aipatzeko**

«Gazte intereseko erakunde» kontzeptua hurbilago dago gazteen elkartze errealitatetik, «gazte elkartze» kontzeptua baino, azken hori zurrunagoa eta mugatzaileagoa baita. «Gazte elkartze» adierazpenak izen horri lotutako elkarteen jardueraren ezaugarritzat hartzen du gaztea izatea; horrek, erakundeok euren buruaz duten pertzepzioaren aurka joateaz gain, ez du aukerarik ematen gazteen multzo osorako interesgarriak izan daitezkeen erakundeak identifikatzeko, hau da, gazteriar buruzko politika publikoetan kontuan hartu beharreko erakundeak identifikatzeko. Gazte elkartze kontzeptua, horrenbestez, badirudi elkartze eta gazte arloko politika publikoen helburu zehatza mugatu behar izatearen ondorioa dela, eta ez gazteen elkartze joerak behatzearen ondorioa.

Hortaz, adierazpide hori baztertu eta «gazte intereseko erakundeak» adierazpidea proposatzen da; kontzeptu horren bitartez, gazte elementua ñabartu ahal izango dugu, halako erakundeek gazteentzat duten interesa haztatuz eta neurtuz. Horrela, erakunde bat interesgarria izan daiteke gazteentzat, ematen dituen zerbitzuen eta gazteei plataformatzat nahiz gizarte adierazpenerako edo partaidetzarako bidetzat eskaintzen dizkien aukeren eraginez, edo bi arrazoi horien ondorioz. Halako kasuetan, gazte intereseko erakundeak direla esaten da, baina ez gazte elkartzeak.

## ERAKUNDE ANIZTASUNA

**Gazte intereseko erakunde multzoaren ezaugarrietariko bat hirietan eta herrietan egotea da**

Gazte intereseko erakundeak aipatzen direnean, gehienbat hirietan (batez ere, hiriburuetan) euskarririkiko fenomenoak aipatzen ari gara; fenomeno hori ez dago sustatuta herri txiki eta ertainetan (20.000 biztanletik beherakoak), hots, udalerrri mailan lan egiteko joera duten herrietan. Horrela, elkartze eta gazte arloko

politika egitea toki erakundeetatik eta, batez ere, hiriburuetakoa udaletxeetatik lan egitea da.

Elkartze fenomenoak gehienbat hirikoa izateak ez du inondik inora ere esan nahi herri txikiagoetan edo baserri inguruetan interes handiko erakunderik ez dagoenik. Aldiz, hori egiaztatu denez, beharrezkoa da hiri errealitatetik urrunen dauden erakundeekiko eta erakundeen arteko harremanetarako moduak erraztea, horiek elkartze dinamika orokorrean sartu ahal izateko (hiri inguruetakoa erakundeen baliabide berberak eskainita), horiek baztertu eta, beraz, desagertu barik.

***Beharrezkoa da erakundeek euren jarduerari buruz ematen duten definizioari kasu egitea, eremuen arabera tipologiaren arazoari aurre egiteko***

Gazte intereseko erakunde motak jarduera eremuen arabera finkatzeko, erakundeek euren buruari buruz adierazitako pertzepzioan oinarritu behar da. Horrela, elkartze egituraren egileek eurek euren burua sailkatzeko erabilitako terminologia erabili ahal izango da.

Horri dagokionez, Gazte Planean erabilitako jarduera eremuen arabera banaketa eginez ikusten denaren arabera, hori ez da eraginkorra gazte intereseko erakundeetarako, horiek batzuetan interesa baitute arloen arabera banaketa hori egiteko (ingurumena, ekologia eta lankidetzak), eta beste batzuetan ez baitatoz bat proposaturiko sailkapen eskemarekin.

ICNPO (*International Classification of Non-Profit Organisations-Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Nazioarteko Sailkapena*) deritzon nazioarteko sailkapenean, irabazi asmorik gabeko sektore osoa sartzen da; gainera, neurri handiagoan (baina ez oso ondo) gazteek EAEko elkarteetan duten partaidetzarekin dituzten interesak adierazten ditu, eta horien sailkapena hauxe izan daiteke: *hezkuntza, gizarte ekintza, sustapen kulturala, ingurumena eta ekologia, lankidetzak, harreman eremua, enplegua eta laneraztea, eta beste batzuk*.

Gazteen interes nagusia hartzen duen eremua hezkuntzarena da, hori hitzaren esangura formalari lotuta ulertu gabe, hau da, balioen hezkuntza proiektuztat, umeekin eta, neurri txikiagoan, gazteekin egindako lanaren bitartez. Orain arte *aisialdi* eta *astialditzat* ezagutu dugun eremua da.

Eremu horren izena aldatzea estu lotuta dago halako erakundeetan partaidetza aktiboa duten pertsonen diskurtsoa sartzearekin.

Horrela, aisialdia «astialdikotzat» hartutako taldeek garaturiko jarduerak aipatzeko erabili daiteke, baita beste erakunde batzuek garaturiko jarduerak aipatzeko eta ekologiari, lankidetzari, gizarte ekintzari eta abarri lotutakoak aipatzeko ere; egin-eginean ere, ordaindu gabeko elkartze jarduera aisialdian gertatzen da.

Gazte intereseko erakunde kopururik handieneko hurrengo eremuak gizarte ekintza eta sustapen kulturala dira, eta gainera profesional kopururik handiena ere eremu horietan dago.

### **Adinaren aldagaia funtsezkoa da, gazte intereseko erakundeen jokabide aniztasuna ulertzeko**

Adinak desberdintasun handiak ezartzen ditu, gazte intereseko erakundeen funtsezko alderdietan, esate baterako, antolaketa mailako alderdietan, garaturiko jardueretan, administrazioarekiko harremanetan eta sortutako beharrianetan.

Antolaketa mailako desberdintasunei dagokienez, lotura estua dago adinaren, kudeaturiko diru kantitatearen, kide kopuruaren eta profesional kopuruaren artean: adina zenbat eta txikiagoa izan, erakundeak orduan eta handiagoak dira (soldatapekoa ez den pertsona kopuru handia), profesional gutxiago dute eta aurrekontua ere txikiagoa da.

Jardueraren lehentasuneko eremuei dagokienez, jarduera eremuaren dibertsifikazio handiagoa dago pertsona helduek osatutako erakundeetan, gazteagoek osaturikoetan baino, eta azken horiek lehentasuna ematen diete hezkuntzari eta sustapen kulturalari. Adinean aurrera egin ahala, elkartze jardueren interesaren gunea mugitu egiten da bi eremu horietatik jardueraren eremu berrietarantz, adibidez, ingurumenerantz, gizarte ekintzarantz, lankidetzarantz, etab. Horrela, nolabaiteko paralelismoa ezar daiteke pertsona guztiak euren bizi zikloaren bitartez heldutasunerantz garaturiko prozesuaren eta elkartzeak garatzeko prozesuaren artean, elkartze moduen homogeneotasunetik (pertsonarik gazteenek osaturiko erakunderik gehienek profil berbera dute) heterogeneotasunerantz, eta esperientziarik ezatik *know how* deritzonerantz.

Desberdintasun horiek egiaztatu ondoren, gogoetak egin daitezke «abiadura desberdineko» bideak ezarri behar izateari buruz, gazte intereseko erakundeen eta administrazioaren arteko harremanei dagokionez, baita erakunde bakoitzaren berezko erritmoak errespetatu behar izateari buruz ere.

### **Gazte taldean sortzen duten interesaren arabera, hiru erakunde mota daude: estrategikoak, zerbitzuak ematekoak eta orokorrak**

«Gazte intereseko erakundeak» adierazpidea erabiltzea (gazte elkartzeak deritzona erabili beharrean), lehen esan dugunez, gazteek euren beharrianen, kezkei edo arazoei taldeko erantzuna emateko sortzen dituzten elkartzeen eta erakundeen deskribapena egin behar izatearen ondorioa da.

Kontzeptu horren funtsezko ekarpena, beste alde batetik, hartutako ikuspegiaren arabera interesgarrienak diren erakundeak identifikatzeko administrazioari eskaintzen zaizkion aukeretan euskarritzen da.

Erakundeetarako hurbiltze hori ahalbidetzen duen sailkapena, bestalde, honako bi aldagai hauen arteko konbinazioa aipatzen duena da: erakundearen *jardueraren subjektua* (nork jarduten duen) eta *jardueraren objektua* (norentzat jarduten duen). Aldagai horien konbinazioak eskainitako tipologiak, berriz, jarduten duten taldean eta jardueraren onuradunaren taldean gazteek duten garrantziaren arabera sailkatzen ditu gazte intereseko erakundeak.

Horrela, gazteek gazte taldea bera erreferentziatzen hartuta jarduten dutenean, erakunde *estrategikoak* direla esango dugu; halaber, erakunde *orokorrak* izango dira, gazteen partaidetza edukita ere jardueraren onuradunak beti gazteak ez direnean; azkenik, *zerbitzuen* erakundeak ere badaude, gazteak ez diren pertsonen gazteen taldera zuzentzen dutenean euren jarduerara.

Erakunde horien artean ez da lotura hierarkikorik ezarri behar; guztiek dituzte elementu interesgarriak, bai gazteen taldeari berari dagokionez, bai Administrazioari dagokionez (gazte ekimenari lotutako elkartegintza sustatzeko eta bultzatzeko lana garatzeko).

Gazteen irabazi asmorik gabeko sektorearen interesak funtsezko bi alderdi ditu: erakundearen helburua eta erabilitako bidea. Helburua garaturiko jarduerara da; bidea, berriz, nolabait formalizaturik dagoen elkartze egitura baten partaidetza. Bi elementu horiek koordinatu egokiak eskaintzen dituzte, gazte intereseko erakundeek gazteen talde batean duten eragina baloratzeko.

Planteamendu horrek zenbait irizpide eskaintzen ditu, erakundearen garrantzia neurtu ahal izateko (adibidez, dirulaguntza zeri eman eta zeri ez erabakitze); gainera, baliozkoa da erakunde mailako hausnarketa sustatzeko, elkartze mugimendu askori eman beharreko tratamenduari buruz; horiek, izan ere, estrategikotzat hartzeko baldintza guztiak bete arren, ez dute elkartze erreferentzetzat duten garrantziaren arabera tratamendurik (Gaztetxeak horren adibide onak dira). Halako erakunde autonomoetarako egiturak indartzeko eta baliabideak sustatzeko estrategiak ezartzea, bestalde, herri administrazioak oraindik ere bete barik duen eginkizunetarikoa da.

### ***Herria-hiria ardatza kontuan hartzea lagungarria da, elkartze arloko jarduketara irizpideak ezartzeko***

Herria-hiria ardatzaren garrantzia aipagarria da Arabaren kasuan. Herri txikien ingurua oso gogorra da gazteen elkartze jarduerarako. Demografiari, kulturari eta nortasunari loturiko faktoreak biltzearen ondorioz, herri txikien ingurua ez da batere egokia gazte intereseko elkartze fenomenorako.

Izan ere, hiri eta baserri inguruen arteko funtsezko desberdintasunetariko batzuk elkartzeko benetako aukerak dira, bigarren kasuan lehenengoan baino askoz ere mugatuagoak baitira. Gazte kopuru urriaren eta biztanleen mugimenduen eraginez (asteburuetan biztanle gehiago eta astegunetan gutxiago), ezinezkoa da gazteen artean sare egonkorrik sortzea, elkartze jarduerara bultzatu ahal izateko.

Beste alde batetik, aurrez aurreko harremanen nagusitasuna eta gizarte boterearen nolabaiteko gerontokrazi izaera kontuan hartuta, sarritan zaila da gazteek euren ekimenak aurrera ateratzea eta euren eremuak sortzea, hain zuzen ere, helduek ezarritako muga ondorioz (helduok, gainera, gehien-gehienak dira). Gazteek herri txikien inguruan duten elkartze jarduerara txikia azaltzeko faktoreak egon arren, jarduerara hori egon badago eta ezaugarri bereziak ditu. Lehenengo ezaugarria izaera irekia edukitzea da, adin guztietako kideak jasotzeko dagokionez, adina baldintza funtzionala baino ez baita (bestela, elkartze asko



desagertu egingo lirateke). Ezaugarri horren ondorioz, gazte intereseko erakunde kontzeptua bera erlatibizatu egin behar da, eta kontzeptu hori baserri inguruan «malguagoa» izango da hiri inguruan baino.

Beste ezaugarri bat, bestalde, herri txikien inguruan elkartze eremuan elkar eragiten duten eragileen arteko lotura egokia egotearen garrantzia handia da (batez ere, tokian tokiko elkartzeak eta erakundeak); izan ere, halako inguru zailean, pertsonen arteko harremanak txarrak izanez gero, interes handiko elkartze ekimenak itota gera daitezke.

Azkenik, maila eraginkorrako batean, urruntasun geografikoak oztopatu egiten ditu kudeaketa lanak; beraz, herri txikietan beharrezkoagoa da bitarteko irudiak egotea, Administrazioaren eta gizarte intereseko erakundeen artean.

## PERTSONAK

***Erakundeetako langileek lanean duten zalantzazko egoeraren eraginez, taldeak gehiagi aldatzen dira eta horrek eragina dauka erakundeen egonkortasunean nahiz eraginkortasunean***

Irabazi asmorik gabeko sektorea deritzonoko beste erakunde batzuei dagokienez duten formalizazio maila txikia izan arren, gazte intereseko erakundeetan enplegua sortzeko nolabaiteko gaitasuna ikusten da. Gazte intereseko hamar erakundeetako lau liberaturiko langileak dituzte (profesionalak).

EAEko erakunde guztietan, gutxi gorabehera, 3.600 pertsona baino gehiago ari dira lanean, gehienbat emakumeak. Soldatapeko langileekin batera, 600 pertsonatik gora praktikak egiten ari dira, eta horien artean ere emakumeak gizonak baino gehiago dira.

Erakundeetako soldatapeko langileen ezaugarriei dagokienez, gehienetan 19 eta 40 urte bitarteko emakumeak dira, irabazi asmorik gabeko elkarrekin egun osoko lanaldian dihardutenak, eta elkarrekin horiek gizarte ekintzara, kulturara eta aisialdira bideraturik daude, eta hiri handietan kokaturik ditugu. Langileak hiru eta bost urte bitartean egoten dira erakundeetan, eta gero lana aldatzen dute. Bertan lan egiteko batez besteko denbora, oro har, estu lotuta dago lan baldintzei edo lanpostuen behin-behinekotasunari. Horrela, laneko eraginkortasuna erakutsi ondoren ez da zaila lan eskaintza hobeagoak lortzea.

Ezgonkortasunak sektorean duen eragina ez da homoginoa. Erakunde batzuetan, egindako lana pertsona laneratzeko prozesuaren etapatzat hartzen da, ez baitago baldintza egokirik langileek jarduerarekiko konpromiso luzerik hartzeko.

Soldatapeko langileak dituzten erakundeen artean, %23ren kasuan kontraturiko pertsonak bi urtetik beherako jarduera egiten dute. Horrenbestez, erakundeetako taldeak ezegonkorak dira, lan eta eginkizun gehien pertsona horiek edukitzen dituzte eta. Pertsona berriak sartzearen ondorioz, horiek

taldeetan integratzearen ondoriozko ahaleginak oso handiak izaten dira eta, beraz, prozesu horiek azkenean eragina izaten dute erakundeen eraginkortasunean.

### ***Ez da %24ra iristen Euskal Autonomia Erkidegoan boluntario diharduten gazteen portzentaia***

15 eta 30 urte bitarteko 120.000 pertsona baino gutxiago dira boluntarioak, EAEko gazte intereseko erakundeetan, eta horrek Euskadiko gazteriaren %24 baino gutxitxoago adierazten du. Gehienak 19 eta 30 urte bitarteko gizon-emakumeak dira, maila ertaineko eta goi mailako ikasketak dituzte, ikasten ari dira edo zerbitzuen sektorean egiten dute lan. Erakunderik gehienak hirietan daude, era guztietako erakundeekiko lankidetzan dabilta eta ez dute jardueraren sektore batekiko preferentziarik. Astero hiru eta bost ordu bitartean sartzen dituzte, gehienez jota bost urtetan.

Gazteek irabazi asmorik gabeko gazte sektorean duten partaidetzaren indizeak zalantzan jartzen du erakundeek gazteengana hurbiltzeko lehenetsunezko modutzat emandako eginkizuna. Lehen esan dugunez, erakundeen bitartez EAEn bizi diren gazteen zati batengana baino ez gara hurbiltzen. Gazteen elkartzeko egitura gazteekiko komunikaziorako bide bakartzat hartzeak muga handia ezartzen du, zati oso berezi baten iritzia baino ez baita jasotzen (Euskadiko gazteria osoa ordezkatzeko ez duen zatiaren iritzia).

### ***Adina ere faktore erabakigarria da, erakundeen barruan ardurak hartzeari dagokionez***

Formalizazio maila txikiko erakundeen barne funtzionamenduan, esperientzia faktore erabakigarria da. Esperientzia handieneko pertsonen erakundeak gidatzen dituzte, ardurak onartuz eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartuz. Esperientzia urteekin hartzen da.

Funtzionamendu horren ondorioz, gazte erakundeen buruzagiak gazterik zaharrenak izaten dira. Adin nagusiagoko pertsonen hartzen dute parte, gehienbat, erabakiak hartzeko prozesuetan eta erakundeen antolaketan. Erakunde batzuetan pertsona horiek hogeita hamar urtetik gorakoak dira eta hogeitaz gero gazteak ere lanean dabilta.

### ***Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen %20 baino gehiago pertsona nagusiek zuzenduta dago***

Hala eta guztiz ere, belaunaldien arteko desberdintasuna ez da inoiz arazoa izan. Elizbarrutietako gazte-talde askoren buruan parroko edo abadeak egon dira. Halaber, ikastetxeetako astialdiko taldeetako buruzagiak, irakasleak, gurasoak eta antzinako ikasleak izan dira. Hala ere, gazteek parte hartzeko dituzten moduak aldatzen ari dira eta erakundeek gazteriaren aldaketei egokitu beharra izaten dute. Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen %20 baino gehiagoren buruak pertsona nagusiak dira.

Erakundeetako postu estrategikoetan pertsona nagusiak egotea, une hauetan, txarra izan daiteke taldeen berrikuntzarako eta erakundeek gazteen eskari berriak onartzeko. Gazte erakundeetako buruak pertsona nagusiak izatean, kasu batzuetan, ezarritako partaidetza ereduak lotura estuagoa izaten du aurreko belaunaldietako ulermenarekin, oraingo gazteen nahiekin baino.

Egokitzapen eza horixe izan daiteke gazte intereseko erakunde kopuru handia hutsik geratzearen eta desagertzearen zergatietariko, erakundeok urte askotan pertsona nagusien esku egon baitira.

### ***Ezagupenak gizarteratzeko biderik ez egoteak zaildu egiten du erakundeetako belaunaldi txanda***

Belaunaldi txanda ez da prozesu erraza. Gizarte erakundeetako taldeen aldaketei lotutako zailtasunak ugaritu egiten dira gazte intereseko erakundeen kasuan, antolaketa maila txikia edukitzearen eta ezagupenak jakinarazteko biderik ez egotearen ondorioz.

Lehen esan dugunez, ezagupen erabilgarria erakundeak gidatzen dituzten pertsona nagusiek dute, eta horiek, zenbait kasutan, oztopatu egin dezakete belaunaldi gazteagoek sortutako planteamendu berrien sarrera, eta beraz, belaunaldi txanda komenigarria da.

Buruzagitzaren aldaketa prozesua traumatikoa da erakunde askorentzat. Pertsona nagusien belaunaldiko kideek erakundea uztean, erakundearen ezagupen erabilgarria ere galdu egiten da. Pertsona horiekin batera, lan egiteko modua, kudeaketaren ezagupenak, erakunde mailako bideak eta harremanen kapitala ere galdu egiten dira.

Hala eta guztiz ere, aldaketa prozesu traumatikoa da erakundeak gidatzen dituzten pertsonentzat ere. Eginkizunak nahiz lanak ez lirateke pilatuko eta erantzukizunak ez lirateke barneratuko, erakundearekiko eta horren helburuarekiko identifikazio handirik egon ezean. Urte askotan luzaturiko konpromiso hori euren gizarte bizitzaren ardatza da. Erakundeetan, horren jarduera, arazoak eta etorkizuneko erronkak kezka garrantzitsuak eta elkarrizketetan behin eta berriro sortzen diren gaiak dira. Horrela, erakundea uztean, hutsune handia sortzen zaio, elkartze jarduera euren bizitzako zati garrantzitsu bihurtu duten pertsona askori.

Krisi pertsonalarekin batera, erakundeetan ere krisialdia hasten da; hori, berriz, gazteek jarduera ikasten dutenean eta eginkizunak nahiz lanak eraginkortasunez garatzeko moduan daudenean amaitzen da. Sarri askotan, krisialdi horretan erakundeak goitik behera berrantolatzen dira, ikaskuntza eta eginkizunen banaketa hutsetik hasita egiten baita. Nolabait ere, ia-ia ziklikoa den birsorkuntza etengabea da, eta horretarako, neurri batean arintzeko modukoa den esfortzu handia egin behar izaten da.

Sarritan, erakundeetan funtzionamenduko protokoloak edo laneko ohiturak egoten dira, eta horiek gazteen hurrengo belaunaldiei jakinarazten zaizkie, esperientziaren bidez piltaturiko ezagupenak eskuratzeko. Talde-lanaren

sustapena, tutoretzak edo belaunaldi desberdinetako pertsonak eraturiko laguntza prozesuak, baita erabaki-hartzeen eremuen irekiera ere, lagungarriak izan daitezke erakundeetako belaunaldi txanda errazteko.

## PARTAIDETZA

***Gazteek gizartean duten partaidetza aldatzen ari da, hain formalak ez diren eta egoeraren arabera araberakoagoak diren elkartzeko moduetarantz***

Partaidetza gero eta txikiagoa izatearen ideari dagokionez, gazteek gizartean parte hartzeko dituzten moduak aldatzen ari dira, egituraren arabera araberakoagoak eta formalizazio txikiagoak diren adierazpenetarantz, gazteek parte hartzeko eredu tradizionalaren kaltetan.

Aldaketa prozesu horren gizarte adierazle edo adierazpen nagusiak honako hauek dira: gazteak erakundeetan sartzeko dituzten zergatien aniztasuna, gazte intereseko erakundeetako partaidetzaren ahultzea eta erakundeotan parte hartzeko profil berrien ezarkuntza.

***Ezegokitzapena dago erakundeek gazte intereseko elkarteek gauzak aldatzeko duten gaitasunari buruz sorturiko itxaropenen eta gazteriak parte hartzeko dituen motibazioen artean***

Erakundeek eta elkarten erabaki-hartze eremuek, beste alde batetik, Euskadiko gazte erakundeen errebindikazio eta aldaketa izaera nabarmendu dute. Hala eta guztiz ere, gazteen motibazioak beti ez datoz bat gauzak aldatzeko bokazio horrekin. Gazteak erakundeetara hurbiltzeko arrazoiak aldatzen eta dibertsifikatzen ari dira.

Gizarte aldaketan eragina izateko gogoarekin batera (gehienetan hezkuntza prozesuen bitartez), gazteak gehien erakartzen dituen erakundeek harremanetarako eta tresna izateko duten gaitasun handia da.

Gazteek erakundeok beste gazte batzuekin harremanak izateko eskaintzen dizkieten aukerak baloratzen dituzte. Erakundeak gazte sektore jakina biltzeko tokiak dira, gazteok taldean bizi nahi dituztelako proiektu jakin baten etapa guztiak: hasi sortzeko etapatik, berori abian jartzearen ospakizuneraino, hori mehatxatzen duten arazoetatik eta zailtasunetatik igarota (nahitaez gainditu beharrekoak). Antolaketa mailako prozesu horietan, gizarte eragina ez da lehenetsutako elementua. Esan daiteke gazteek baztertu egiten dutela helduek eratzikitzen dieten aldaketa-erantzukizuna, nagusiek beste garai bateko erreferentzia soziopolitikoak erabiltzen baitituzte.

Enpleguaren krisiak gazteak eta, batez ere, emakumeak jo ditu gogorren, eta horrek funtsezko zeregina izan du zergatien dibertsifikazioan. Horri dagokionez, gazteen sektore batek erakundeetan parte hartzeko dituen motibazioak tresna mailakoak dira; izan ere, gazteek lan merkatuan sartzeko aukerak hobetzeko bidea ematen duten forotzat hartzen dituzte erakundeak.

### *Partaidetza eredu errektiboagoen premiak ahuldu egiten du erakundeen eta gazteriaren arteko lotura*

Erakundeetako partaidetza ez da homogenea. Gizarte erakunde bakoitzak partaidetza eredu jakina sustatu arren, konpromiso eta inplikazio mailak aldatu egiten dira, pertsonen, horien erabilgarritasunaren, interesen, proiektuarekiko hurbiltasunaren eta, batzuetan, lehen esan dugunez, beharizan pertsonalen arabera.

Azken urteotan partaidetza ereduak eztabaida guztietan sartu dira, eta ez gazte intereseko erakundeetan bakarrik, baita Hirugarren Sektore osoan ere, eta gazteriari lotutako erakundeetako langileen artean ere bai. Eztabaidaren ardatz nagusia, berriz, bi eredu nagusien balorazioan oinarritzen da: militantzia eta boluntarioa. Batzuetan, balorazio karga handiak eta eredu batekiko eta bestearekiko konpromiso maila gogorak oztopoa jartzen dio gaia urrunetik ikusteari eta norabide bikoitzeko hausnarketa egoteari: norberaren eredu kritikatu eta inoren ereduaren alde onak onartuz.

Gazte intereseko erakunde askotan, boluntarioak eta militantzia inondik inora ere batu ezin diren errealitateak dira; izan ere, elkarren aurkako jarreren ondoriozkoak dira eta horiek nekez har dezakete parte eremu berebean.

Hala eta guztiz ere, erakundeetako partaidetzaren azterketak agerian jarri duenez, eredu bakoitzaren ezaugarriak beti ez dira baztertzailak, eta ezaugarri komunak ere aurkituko ditugu. Egiatzapen hori, eztabaidari karga ideologikoa kentzeko ahaleginarekin batera (eztabaida argiagoa izateko), arrazoi nagusia izan da partaidetza moduak modu objektiboan zehazteko, euren ezaugarri nagusiak soilik aintzat hartuta. Horrela, irabazi asmorik gabeko gazte sektorean gaur egun bi partaidetza eredu daude: errektiboa eta proaktiboa.

Lehenengoaren ezaugarri nagusia kasuan kasukoa eta egituraren araberkoa izatea da, baita autonomiarik ez edukitzea ere, lanen garapenean, eta lanok ondo egiteko beharrezkoa da erakundeetako arduradunen zuzendaritza. Erantzukizun-eskuordetze handia dago. Eredu proaktiboak pertsonen inplikazio handiagoa eragiten du. Horiek erakundeetan duten konpromiso luzeagoa da eta eragina dauka erakundeetako oinarritzko eginkizunetan. Profil proaktiboa duten pertsonen sarritan parte hartzen dute erabaki-hartze eremuetan.

Edozein izen hartuta ere, bi ereduok beti egon dira irabazi asmorik gabeko gazte sektorean. Hala eta guztiz ere, azken urteotan horien oreka konpentsatu barik dago, eta gazteek eredu errektiboari estuago lotutako partaidetza moduekin identifikatzeko joera dute, partaidetza proaktiboaren kaltetan. Horrek indartu egiten du gazte erakundeak gazteriarengana hurbiltzeko lehentasunezko bidea ez izatearen ideia, horien inplikazioa txikiagoa baita modu kuantitatiboan eta kualitatiboan.

Elkartze fenomenoak, hau da, antolaturiko erakundeen bidezko gizarte partaidetzak, garrantzia galdu du gazteen bizitzan eta gazteok erantzukizun gutxiago hartzeko joera dute.

***Internet hedatzearen ondorioei loturiko aurreiritziak gaindituta, argi ikusten da horren erabilerak hobari handiak dakarziela gazte intereseko erakundeei***

Gaur egun, eztabaida aldaketa teknikoaren eta aldaketa sozialaren arteko loturan polarizaturik dago. Interneti dagokionez, beste alde batetik, kezka handia dago garapen teknologikoak gizarte harremanetan izango duen eraginari buruz. Hala eta guztiz ere, eztabaida hori beharrezko euskarri enpiriko nahikorik gabe gertatzen ari da, eta horrela, ezin izango da argitu ea Internetek orain arteko gizarte harremanen amaiera ekarriko ote duen eta, horren ondorioz, elkartze fenomenoaren bukaera iritsiko ote den (fenomeno hori «aurrez aurreko» harremantzat hartuta), eta ez dakigu horren ondorioek informazio jarioen bizkortzea gaindituko ote duten. Nolanahi ere, Internet gogor sartu da gizarte eremu guztietan, baita elkartzeen barruan ere.

Internet jarduera bera erakusteko «leihotzat» edo ikasgelatzat erabiltzea (Interneten bidezko urruneko heziketa), posta elektronikoa informazioa trukatzeko gero eta gehiago erabiltzea eta abar adierazgarriak dira, Internet lanerako aukera handiak eskaintzen dituen komunikazio tresna indartsua dela ikusteko, eta etorkizuneko «komunitate birtualei» buruzko hipotesiak gaindituta daudela ikusteko ere bai (dagoeneko elkarteen arteko lankidetzari lotutako esperientziak daude, *world wide web* deritzonak, esate baterako, *sindominio.net*).

Era berean, Internetek hobari handiak eskaintzen ditu elkarteen kudeaketa tresnatzat; egin-eginean ere, denbora asko aurrezteko aukera ematen du ohikeriako lanetan, eta gainera, gazte intereseko erakundeentzat erabilgarria den informazioa azkar eskuratzeko aukera ematen du.

### ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

***Erakundeen arteko lankidetzak baldintzaturik dago, interes komun jakinak egotearen ondorioz, hurbiltasun ideologikoa, erlijioso edo hizkuntzakoa egotearen ondorioz baino gehiago***

Gazte intereseko erakundeek era guztietako erakundeekin harremanak eduki arren, koordinazioa kasu jakinetan gertatzen da, gai oso zehatzei dagokienez. Horrenbestez, ezin daiteke esan sareko lana egiten denik, erakundeen arteko lankidetzaren jarraitasuna kontuan hartuta.

Oraingo lankidetzak plataformak gai jakinak sortu direnean aktibatu dira; gaiok gehienetan errebindikaziokoak dira eta, horiei dagokienez, emakumeek adostasun azkarra lortzen dute. Halako plataformek arrakasta handiagoa izateko aukera edukiko dute, erakundeek euren helburuetarantz ezarritako lerro zuzenetik aldentzen ez diren neurriak. Horrenbestez, lankidetzak berehalako onurak ematen ez dituela ikusten denean, hori desagertu egiten da.

***Gatazka politikoaren ondorioek eragina dute erakundeen jardueran, baina ez dute koordinazio mailarik ezartzeko oztoporik jartzen, interes puntu komunak daudenean***

Gatazka politikoa ez da funtsezko aldagaia, irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen egoera aztertzean. Hala eta guztiz ere, gatazka politikoak ondorioak ditu gizarte osoan, eta gazte intereseko erakundeak gizartearen barruan daude. Gatazkaren zergatiak, ondorioak eta gizarte erakundeek nahiz erakunde politikoek ezarritako estrategiak etengabe eztabaidatzen dira gazteen artean. Erakundeek eta horien jarduerak gatazka politikoaren eragina dute.

Alde batetik, eragin kaltegarria dute; izan ere, gatazkaren adierazpen batzuetan oinarrituz, gizarte osoari eta, hain zuzen ere, gizarte erakundeei jarrera argia eskatzen zaie. Eskabide horri emandako erantzunak (ia-ia erantzun berehalakoa), bestalde, jarrera hegemonikoak adierazten ditu eta horiek argi mugaturik daude, apurtze-lerro baten bitartez.

Beste alde batetik, aipaturiko eragina ona izaten da, gizarte partaidetza sustatzen duelako. Oraindik soluziorik ez duen gatazka bat egoteak protagonismoa itzultzen die gizarte erakundeei; horiek, jarrera egokia hartuta, indarrak biltzen dituzte, oraindik ere konpondu gabeko gatazkaren konponbidean eragina izateko itxaropenarekin.

## ERAKUNDEAK ETA ADMINISTRAZIOA

***Administrazioaren eta erakundeen artean adosturiko neurrien zehaztasun ezaren ondorioz, zalantzarikoa da erakundeen deialdirako eta buruzagitzarako gaitasuna, elkartzeen egituran***

Gazteen elkartze egitura osatzen duten erakundeen iritziz, jarrera aldaketa egon da, gazte erakundeek gazte-elkartegintzari emandako tratamenduan. Interesa eta kezka gero eta handiagoak dira, eta erakunde batzuk administrazioaren ordezkarietat onartu dira, horren maila desberdinetan. Hala eta guztiz ere, erakunde mailako hurbiltze prozesuan zehar itxaropenak ere sortu dira eta horietatik gehienak ez dira bete.

Administrazioek kontsultarako sustaturiko prozesuak eta proposamenak lantzeko prozedurak arrakastatsuak izan dira, neurri garrantzitsuak eta berritzaileak adostu baitituzte, gazteen elkartze egituraren egoera hobetzeko. Hala ere, konpromisoak beti ez dira betetzen; baina kontsultako prozesuak elkarri gainjartzen zaizkio eta erakundeek ez dute hobekuntzarik edo aurrerapausorik ikusten euren egoeran. Arazoak berdinak dira, baina orain hobeto ezagutzen ditugu.

Desengainu horren ondorioz, pentsa daiteke erakundeek elkartegintzarekiko duten interesa formakoa baino ez dela eta ez dagoela borondate politikorik,

adosturiko neurriak inplementatzeko. Erakundeen ekimen garrantzitsuenetariko batzuen (I. Gazte Plana) aurrekonturik ezak edo erakunde garrantzitsuek kudeaturiko fondoek urritasunak (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) iritzi hori eragiten dute.

Proposatutako neurriak ez inplementatzeak erakundeentzat izan ditzakeen ondorioak baino garrantzitsuagoa da gazteen elkartzeko egituraren buruzagitzak eta deialdirako gaitasuna apurka-apurka galtzea. Apurtze hori egotekotan, harremanen berreraikuntza zaila izango da, nolabaiteko urruntzea gertatuko baita, are handiagoa erakundeek eta administrazioaren artean.

### ***Dirulaguntzen oraingo sistemak ez daude egokiturik gazteriaren beharrianetara eta erakundeek ezaugarrietara***

Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen ezaugarri nagusia, beste alde batetik, erakunde publikoekiko menpekotasun ekonomiko handia da. Lehen esan dugunez, erakundeekiko menpekotasuna txikiagoa da profesional kopuru handiagoko erakundeetan; izan ere, erakundeek pertsona gazteek osatzen dituzte eta finantziario iturrien nolabaiteko dibertsifikazioa dute.

Menpekotasun ekonomikoaren ondorioz, elkarrekin aldi berean behingo harremana ezartzen dute erakundeekin. Harreman horretan arazo asko dago. Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearentzat dirulaguntzak gehienetan txikiak dira, egin nahi dituzten jarduerak guztiak betetzeko. Dirulaguntzak eskatzeko protokoloetarako, horien konplexutasuna kontuan hartuta, taldeek esfortzu eta dedikazio handia behar dute, eta horrek denbora kentzen die beste lan batzuek egiteko. Era berean, erakundeek dirulaguntzak justifikatzeko prozedurak errazteko eskatzen dute. Oraingo ereduak kontabilitateko bilakaera baten arabera da, eta beste zenbait irizpide baztertu egiten dira, esate baterako, eraginkortasuna edo egindako lanaren kalitatea.

Dirulaguntzen kudeaketa ereduak handitzeak eta aldaketak egiteko eskabideekin batera, irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen finantziario publikoko sistemak beste ahultasun batzuk ditu. Dirulaguntzen sistemak agerian jartzen du erakundeek ez dakizkitela gizarte partaidetzako moduak eta halako elkarrekin beharrianen aniztasuna. Erakunde guztiek ez dituzte beharrian berdina. Irabazi asmorik gabeko gazte egituraren errealitatea onartzeko, beharrezkoa da dirulaguntzen helburuan dagoen itxurazko kontraesana barneratzea: erakundeek egonkortasuna ematea eta gazte partaidetzako behin-behineko nahiz egiturako adierazpenak bultzatzea.

Lehenengo kasuan, zerbitzuak ematen dituzten erakunde batzuek (ibilbide eta gizarte-onarpen handikoak) oraindik ere zalantza maila handiarekin egiten dute lan, urtero dirulaguntzak eskatzeko prozesuak egin behar baitituzte.

Beste alde batetik, sistema zurrin eta ohikeriazko horrek urterik urtera errepikatu egiten du fondoek banaketa. Funtzionamendu horren ondorioz, auzoko ezaugarriko erakundeek multzo baten mantentzen diren zalantza maila da. Oraingo sistemak ez du aukerarik ematen gazteen gizarte partaidetzako modu bat-batekoagoak eta jakinagoak onartzeko eta sustatzeko.



## AZKEN ONDORIO GISA

***Gazte-elkartegintzaren etorkizuna ona izateko, beharrezkoa da formalizaturiko erakundeen eta bat-bateko nahiz egituraren arabera partaidetzen arteko konbinazioa***

Lan honetan, gazte-elkartegintzak EAEn duen etorkizunaren gaia jorratu dugu. Adituekin eta erakundeetako arduradunekin egindako elkarrizketetan gai hori aztertu da. Zure ustez, nolakoa izango da gazte-elkartegintza hamar urte barru? Galdera horren erantzunak asko eta kontraesankorrak izan dira, eta orain ere agerian gelditu da gaiari buruz dagoen nahaste handia. Planteamendurik ezkorrenek diotenez, etorkizunean profesional kopuru handiko erakundeek osatuko dute elkartze egitura, eta horietan behar bezala sustaturiko gazteek hartuko dute parte, edo behintzat jarrera oso erreaktiboa edukiko dute. Iritzi baikorren arabera, aldiz, partaidetzak nolabaiteko atzerakada bizi du, baina uste dute elkartze egiturak etorkizunean suspertzeko gaitasuna izango duela.

Hala eta guztiz ere, egindako azterketaren arabera, EAEko gazte erakundeen egituraren etorkizuna apur bat urrundu egiten da pronostiko horietatik. Ikusitako joerek eszenatoki bikoitza adierazten dute. Batetik, nolabaiteko formalizazio maila duten gazte erakundeak egongo dira, eta horietariko batzuek profesional asko edukiko dute (Administrazioarekiko harremanen nahia edo beharrezana duten profesionalak).

Beste alde batetik, erakunde horiekin batera, egituraren arabera partaidetza duten gizarte adierazpenak egongo dira; horiek agertu eta desagertu egingo dira, eurak sortu dituzten zergatien ostean, eta horiek mantentzeko ez da formalizaziorik behar, ezta antolaturiko komunitaterik ere.





**Gomendioak**



### ***Nazioarteko estandarretara egokitzeko moduko sailkapen irizpideak erabiltzea, eremuen araberakoak***

Gazte intereseko erakundeak sailkatzeko irizpideen aniztasunaren ondorioz, fenomeno ezezaguna da, horrek arazoak sortzen baititu, elkartze errealitate desberdinen arteko konparazioak ezartzeko, testuinguru desberdinetan.

Horrela, sailkapen guztiz egokirik ez dagoela kontuan hartuta, sailkapenerako irizpidetzat ICNPO deritzona hartzea proposatzen da (International Classification of Non-Profit Organisations-Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Nazioarteko Sailkapena). Hirugarren Sektoreko tipologia da eta emaitza onekin erabili da John Hopkins Unibertsitatean, Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen Ikerketa Konparatiboaren Proiektuan.

Sailkapen horrek bi kategoria orokor erabiltzen ditu; irabazi asmorik gabeko sektore osoari buruz dabilenean, horren barruan gazte intereseko erakundeen presentziarik gabeko eremuak sartzen dira. Hala eta guztiz ere, gazte intereseko erakundeek euren burua sailkatzeko duten modua tipologia horretan sartzeko modukoa da (salbuespenak albuespen):

1. Kultura eta aisialdia.
2. Hezkuntza eta ikerketa.
3. Osasuna.
4. Gizarte zerbitzuak.
5. Ingurumena.
6. Garapena, etxebizitza eta enplegua.
7. Eskubide zibilak eta lege aholkularitza.
8. Filantropiari lotutako jarduerak (fundazioak, emaitzak eta boluntarioak).
9. Nazioarteko laguntza.
10. Konfesional erlijiosoak.
11. Enpresa eta lanbide elkarteak, sindikatuak.
12. Beste batzuk.

Sailkapen irizpide hori hartzeak, beste alde batetik, EAEn une desberdinetan egindako ikerketen arteko konparazioak ezartzeko aukera emango du, eta, beraz, elkartzeko egiturak eremu desberdinetan izandako bilakaera ezartzeko aukera ere bai.

### ***Erakunde publikoen artean, Administrazioaren eta «egitatezko» elkartzeko egituraren arteko harremanetarako irizpideak erabakitzea***

Asoziazionismoa, izan ere, gizartean presentzia eduki arren legean arautu gabeko eta elkartearen zerrendetan edo datu-baseetan jaso gabeko elkartzeko modalitatea da. Gaztetxeak, gazte asanbladak, Gasteizko 8.812 taldea, okupa taldeak eta abar legezkatu gabeko egoeran dauden gazte intereseko erakundeak dira; horrenbestez, horien arazoak nekez jorra daitezke, harremanak pertsona fisikoekin barik pertsona juridikoarekin ezarri behar dituen administrazio batetik.

Egoera legezkatzeari emandako ezetza (elkartearen erregistroan sartuta eta ezarritako lege baldintzak beteta) ez da kasualitatezkoa, halako erakundeetarako; izan ere, modu kontzientean eta askean hartutako erabakia da, euren burua kudeatzeari loturiko funtzionamendua bilatzean oinarritua. Horrela, erakunde horien ikuspegitik, legezkatzea «erakundearen kontrolaren» sinonimoa da eta, beraz, independentzia galtzearen sinonimoa.

Halako gazte intereseko erakundearen eta Administrazioaren arteko harreman arazotsuaren inguruan sortu diren eta sortzen ari diren gizarte eztabaidak alde batera utzita, objektibo izateko ahalegin batetik sarritan halakoak gazte intereseko erakunde estrategikotzat kalifika daitezke, gazteen taldetik eta talde horretarako sorturiko ekimenak baitira; gainera, egindako lanak eurek kudeatzen dituzte eta hori, elkartearen egitura orokorrean menpekotasun ekonomikorantz ikusitako joerak kontuan hartuta, berrikuntza garrantzitsua da. Horren guztiaren ondorioz, nahitaezko erreferentziako erakundeak dira.

Zalantzarik gabe, gure herriko gatazka politikoaren ondorioetarako batzuk, izan ere, halako taldeen aurkako kriminalizazio prozesuak izan dira; horien ondorioz, ezinezkoa izan da fenomeno interesgarri hori nolabaiteko urruntasunetik aztertzea eta erakundearen artean asoziazionismo mota horrekin izan beharreko harremanei buruzko akordioak ezartzeko beharrezana jorratzea.

Hala eta guztiz ere, herri administrazioaren eta gazte intereseko erakunde horien arteko harreman honen adibideak ere badaude; horietan, lankidetzaren formulak erabili dira, esate baterako, oinarritzko azpiegiturak hornitzea Gaztetxei (argia, ura, etab.). Hala ere, salbuespenak baino ez dira, bi aldeetatik ulermenik ezaz eta susmoz bustitako harreman batean. Horrenbestez, adostasunean eta alderdi bakoitzaren planteamenduen errespetuan oinarrituriko harremanetarako bideak ezarri behar dira.

Egoera hori ikusita, batetik, beharrezkoa da erakunde eskudunek (batez ere toki mailan) funtzionamendu eta harreman irizpide malguak erabakitzea, halako ekimenei dagokienez; horrela, baldintza egokiak egongo dira erakundeok autokritika egiteko eta euren diskurtsoetik planteamendu adeitsua nahiz

biktimistak ezabatzeke, baita euren gizarte inguruan ekarpen handiak egiteko gaitasuna duten erakunde estrategikoak direla onartzeko ere. Bi baldintza horiek aldi berean bete behar dira, baina lehenengo pausoa Administrazioak eman behar du, asoziazionismoa zuzenbidekoa bezain baliozkoa den solaskidetzat hartuta.

### ***Aldian behin gaurkotzeko moduko datu-base bakarra sortzea, bertan EAEko gazte intereseko erakunde guztiak jasotzeko***

Sailkapen irizpide argirik ez egotearekin batera, gazte intereseko erakundeei buruzko informazioa jasotzen duten datu-baseen urritasuna eta zehaztugabetasuna da, gizartearen irudimenean finkaturik dagoen «elkartze liluraren» eragile nagusia.

Informazioa antolatu barik egotearen ondorioz, irudi oso lausoa sortzen da elkartze errealtateari buruz; aldi berean, zaildu egiten da fenomenoak ikertzeko lana, eta hori beharrezkoa da horren azterketa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa egiteko eta asoziozianismoaren inguruko mitoak berresteko, ñabartzeko edo, behar izanez gero, desegiteko.

Informazioa biltzeko irizpideak bateratzea, informazio hori biltzeko sistemak ezartzea, etengabeko gaurkotzea eta datu-baseak erabiltzeko erraztasuna edukitzea, beste alde batetik, ezinbesteko baldintzak dira, gazte intereseko erakundeen arloan politika eraginkorra egin ahal izateko.

Ezinbestekoa da informazioa biltzeko metodo eraginkorra diseinatzea, EAEko gazte intereseko erakundeak zein diren edozein unetan jakiteko. Erakundeetako informazio guztia elkartean erregistro bakarrean bildu behar da, eta, bertan, datuak urtero berriro ezean, baxa eragingo da berehala.

Informazio bilketa bi mailatan planteatu behar da:

- ▶ *Udalerrri mailan:* Udalerrri mailan diharduten erakundeei buruzko informazioa (%65) toki erakundeek jaso behar dute, informazioaren bilketa homogeneoa eta informazio hori gero datu-base bakarrean sartzea ahalbidetzen duen aplikazio komunaren bitartez. Udalerrrietako datu-baseak osatzeko erabili beharreko iturriak, bestalde, dirulaguntzen eskabideak eta elkartze egituraren ezagupen ezformala dira (erakundeei EAEko erregistroan inskribatzeko nahiari buruzko kontsulta egin ondoren).
- ▶ *Udalerriz gaindiko maila:* Udalerriz gaindiko mailan lan egiten duten erakundeak, izan ere, kokatzeko arazo gutxien eskaintzen dutenak dira. Gehienetan erakunde formalizatuagoak izaten dira eta interes handiagoa izaten dute, kasuan kasuko erregistroetan jasota egoteko. Halako erakundeetarako, informazioa biltzeko sistema komuna proposatzen da, eta hori Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren, udaletxeen, informazio bulegoen eta Interneten eskura egongo da.

Erakundeak erregistroan egotearen ondorioz, halaber, erakundeontzat interesgarria izango da euren informazioa gaurkotuta edukitzea (esate baterako, laguntzei, dirulaguntzei, programei, jardueri eta abarri buruzko informazioa bidaltzea).

Era berean, datuak alta hartzekoak baino errazago gaurkotu behar dira, etengabeko gaurkotzea sustatzeko.

### ***Toki erakundeek EAEko gazte intereseko erakundeekiko harremanetan duten garrantziaren balorazioa handitzea***

Datuek agerian jartzen dutenez, gazte intereseko erakundeak udalerrietan sustraiturik daude, eta gazte intereseko erakunderik gehienen jarduera garatzeko eremuak udalerriaren barrukoak dira (barrutia, auzoa, etab.).

Horrenbestez, gazte intereseko erakundeen arloan inplementatu beharreko politiken erdigunea toki erakundeetarantz mugitzen da (udalerrriak, mankomunitateak, lagun taldeak eta administrazio batzordeak), horiexek baitira erakundeetarako erreferentziarik hurbilenak.

Beste alde batetik, halako toki erakundeetan beharrezko baldintzak daude, gazte intereseko erakundeen eta herri administrazioaren arteko harremanak emaitzarik onenak emateko:

- ▶ Elkarrekiko ezaguera pertsonala. Harremanen malgutasuna.
- ▶ Eskuratzeko erraztasuna.
- ▶ Administrazioaren bezeroak gutxiago dira eta horrek erakundeok egindako jarduera sakonago ezagutzeko aukera ematen du, baita jarduera eremuen, belaunaldi aldagaiaren eta partaidetzaren subjektu-objektu aldagaiaren arabera sailkapena hobeto ezagutzeko aukera ere.
- ▶ Gazte intereseko erakundeen datu-basea gaurkotuta edukitzeko aukera.

Toki erakundeek lehentasunezko eginkizuna dute arlo horretan, baina horrek ez du esan nahi Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak inolako eginkizunik ez dutenik asoziazionismoaren politikan. Alde batetik, erakunde guztiek euren jarduera udalerrri mailan garatzen ez dutelako. Erakunde batzuen jarduera eremua lurraldea edo Autonomia Erkidegoa da. Erakunde horietarako, erreferentzia ez da udalerrria, Aldundia edo Eusko Jaurlaritza baizik.

Beste alde batetik, elkartze arloko udalerrri mailako politika egon behar den bezala politika hori jarduketa eremu zabalago baten barruan gauzatu behar delako, oinarritzko irizpideak finkatzeko arlo estrategikoetan, eta beharrezko baliabideak eskaintzeko (giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, koordinazio baliabideak, etab.), elkartze arloko politika eraginkorra gauzatu ahal izateko.

### ***Elkartu gabeko gazteriaren partaidetzarako formulak abiatzea***

Gazte intereseko erakundeak erreferentzia garrantzitsuak dira gazteentzat, gazteen azpi-kulturaren adierazpenerako foroak baitira; horietan, gainera, gizarteratzea eta nagusien bizitzarako igarotzea gertatzen da, gazte askoren kasuan. Halaber, gazte intereseko erakundeei esker (antolaturiko gazteria), administrazioak errazago egiten du gazteen munduarekiko elkarriketa, gazteen artean gertatzen denari buruzko informazioa emateko eta euren iritziak nahiz kezkek azaltzeko tresna baitira. Horrexegatik dira hain garrantzitsuak.



Hala eta guztiz ere, akats handia izango litzateke erakundeok EAEko gazteria osoa islatzen dutela pentsatzea. Izan ere, erakundeen bitartez, gazteriaren zati txiki batekiko hurbiltzea baino ez dugu lortuko. Zati txiki hori, gainera, ez da adierazgarria; egin-eginean ere, gazteriara elkartze egituraren bitartez hurbildu ahal izateak muga gogorra ezartzen du eta horrek baliorik gabe uzten ditu ondorioak extrapolatzeko ahalegin guztiak.

Horrenbestez, gazte intereseko erakundeak eztabaida, hausnarketa eta erabaki guneetara sartzeak betiere gazteriaren ikuspegi partziala emango du.

### ***EGK neurri txikiagoko erakundeetara irekitzea***

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) berebiziko garrantzia duen erakundea da, asoziazionismoa sustatzeari dagokionez; izan ere, batasun zentsua ematen dio oso apurtua den elkartze errealitate bati, eta gainera, koordinazio, eztabaida eta hausnarketa gune egonkorak eskaintzen dizkie, halakoak eskatzen dituzten erakundeei.

Hala eta guztiz ere, EGK-k gaur egun arazoak eta defizitak ditu. Lehenengoa ekonomi eta giza baliabiderik ez edukitzea da, bere eginkizun ugariei aurre egiteko. Beste alde batetik, administrazioarekiko menpekotasun ekonomiko handiegia dauka eta horrek mugatu egiten du maniobrarako edota ekimenerako duen aukera, hori erakundeen laguntzaren menpe gelditzen baita. Horrenbestez, EGK bitarteko posizio oso zailean gelditzen da, kudeatzeko oso konplexua den posizioan.

Konpondu beharreko beste arazo nagusienetarikoa, bestalde, EGK-k duen ordezkartzarik eza da, EAEko gazte intereseko erakundeei dagokienez. Erakunde guztiek ez dute ordezkartzarik EGK-n eta segurutik denek ere ez dute eduki beharko; hala eta guztiz ere, argi dago erakunde horrek ez duela ondo islatzen Euskadiko elkartze errealitatea, eta beraz, beste erakunde batzuetara ireki beharko da, gune garrantzitsu horretan presentzia edukitzeko bide edo modu desberdinak erabiliz.

### ***Dirulaguntza politika gazte intereseko erakunde anitzetara egokitzea***

Dirulaguntza politika ez da gazte intereseko erakundeak bultzatzeko bide bakarra, baina bide nagusienetarikoa da. Dirulaguntzak, izan ere, gazte intereseko erakundeek garaturiko jarduerak bultzatzeko eta laguntzeko tresna garrantzitsuak dira, eta beraz, jarduera horren dimentsio guztiak aintzat hartzen dituzten irizpideetan oinarritu beharko dira.

Administrazioak dirulaguntzen banaketa erabakitzeko orduan kontuan hartu beharreko dimentsioak zazpi dira:

- 1. dimentsioa: *Emandako zerbitzuaren edukia eta horrek gizartean duen eragina.* Dirulaguntzak emanez, gazteriarentzat interesgarrienak diren zerbitzuak saritu behar dira, testuinguru eta gune bakoitzean, eta jarduera garatzeko gizarte inguruaren beharrezanetan sustraituen dauden zerbitzuak ere saritu behar dira.

- ▶ 2. dimentsioa: *Zerbitzuaren kalitatea*. Laguntza handiagoa eman beharko da, kalitate handiagoko zerbitzuak ematen dituzten ekimenerako, horietan ebaluazioko eta etengabeko sistema garatzen denean.
- ▶ 3. dimentsioa: *Programak inplementatzeko modua*. Enfasi handiagoarekin bultzatu beharko dira (dirulaguntza gehiago emanez) gazteen partaidetza handieneko jarduerak. Gazteen partaidetza berez ere baloratu beharreko elementua da.
- ▶ 4. dimentsioa: *Jardueraren izaera berritzailea eta esperimental*. Ideia berriak aberasgarritzat hartu behar dira, erakundeen jardueran. Planteamendu berritzaileak jardueraren bideetan edo helburuetan egon daitezke.
- ▶ 5. dimentsioa: *Jardueraren jarraitasuna*. Erakunde bat urte askotan egotea ere kontuan hartu beharreko elementua da, horrek berme handiagoa ekartzen baitio helburuak betetzeari.
- ▶ 6. dimentsioa: *Jardueraren epe ertainerako eta luzerako ikuspegia*. Erakunde baten epe ertainerako eta luzerako ikuspegia kontuan hartzea planifikaziorako gaitasuna oinarrizko faktoretzat hartzea da, erakundeen jarduera baloratzeko orduan.
- ▶ 7. dimentsioa: *Kanporako irekiera*. Beste pertsona batzuei aukera eman behar zaie erakundearen parte hartzeko, eta horretarako, partaidetza sustatzeko zeharkako lana egin behar da.

Dirulaguntzak banatzeko orduan, dimentsio horietariko bakoitzak testuinguru bakoitzean izan beharreko garrantzia haztatzen duten irizpideak erabili beharko dira.

***Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzak dirulaguntza lerroa ireki behar du, toki erakundeetan Gazte eta Asoziazionismo arloko langile teknikoen lanpostuak sortzeko***

Egunean eguneko zama udalerrri mailako erakundeek eraman beharra planteatu da, gazte intereseko erakundeei dagokienez. Zama hori, berriz, honako eginkizun hauek betetzean oinarritzen da:

- ▶ *Datu-baseak sortzea*. Udalerrri maila onena da, gazte intereseko erakundeei buruzko aldi behingo informazioa biltzeko, horien jarduketa eremua udalerrrikoa baino txikiagoa denean. Informazioa biltzeko protokolo komunaren ezarkuntza eta Informazioaren Teknologia Berriek (Internet) eskainitako aukerak kontuan hartuta, sarean informazioa biltzeko sistema diseinatu ahal da, datu-base bakarra edukitzeko edozein erabiltzailerentzat (erakundeak, administrazioa edo norbanakoak), gazte informazioko guneen bitartez.
- ▶ *Udalerrien eremuan diharduten erakundeak sakon ezagutzea, diagnostiko jarraitua eginez*. Diagnostiko honek informazioa ematen du, gazte intereseko erakundeak sailkatzean kontuan hartu beharreko irizpideei buruz (jardueraren eremua, belaunaldiaren aldagaia eta partaidetzaren subjektu-objektua). Hala eta guztiz ere, erakundeak sailkatzeko modu horrek maila eraginkorreko aurrerapausoak eskaintzeko, beharrezkoa da erakundeok zehatz ezagutzea. Ezagupen hori ez da mugatuko jardueraren urteroko memoriara, hori kasurik gehienetan tramite hutsa baita eta ez baitu erakunde baten jardueraren berri zehatzik ematen. Halaber, ezagupen sakonak informazioa eskainiko du, gazte intereseko erakundeen benetako beharrezane buruz.

- Elkartu gabeko gazteriaren partaidetzaren metodologiak gauzatzea.* Elkartu gabeko gazteriaren partaidetza sustatzea gazte politikaren erronka nagusienetarikoa da. Hala eta guztiz ere, ez dago horri lotutako esperientzia handirik eta, abiatuakoei nahiz horien emaitzei dagokienez, ez dago azterketa bateraturik. Gazteria politika publikoen subjektutzat eta ez objektutzat hartzen denez, ez da komenigarria partaidetza kontsultara edo iritzi-zundaketetara mugatzea. Hausnarketa prozesuetan inplikazioa behar da. Halaber, argi dago elkarturiko gazteriaren partaidetzaren arloko esperientzia pozgarriak egoteko aurretiazko baldintza guneak mugatuak eta hurbilekoak izatea dela. Horrenbestez, toki erakundeek garrantzi handia dute. Europako Batzordearen Liburu Zurian beharizan hori jasotzen da, eta gainera, proposamen metodologikoa egiten da, koordinazio metodo irekia izenekoan gauzatua.

Halako metodoen egokitasuna gorabehera, elkartu gabeko gazteen partaidetzaren sustapena udalerrri mailan baino ezin daiteke planteatu.

- Erakundeen interesari eta garrantziari egokituriko dirulaguntza politika.* Ezarri beharreko dirulaguntza politikak «kontabilitate irizpidea» gainditu eta irizpide kualitatiboak jorratu beharko ditu (esate baterako, erakundeen berezko interesak, helburuak betetzea albo batera utzita), dirulaguntzak emateko orduan. Erakunde bakoitzak gazteen talderako eta administraziorako duen interesa baloratu behar da. Interes hori baloratzeko, kontuan hartu beharko da erakunde estrategikoen, zerbitzuen erakundeen eta erakunde orokorren tipologia. Saillkapen hori maila eraginkorrera eramateko, beharrezkoa da, erakundeen jarduera sakon ezagutzea, eta hori toki administratibotik baino ezin daiteke egin.
- Erakundeen kudeaketan eman beharreko laguntza.* Lehen esan dugunez, erakundeek administrazioarekiko harremanetan dituzten arazoetariko bat administrazio horren burokratikoegia izatea da. Toki erakundeak, hurbilagoa izatean, laguntza eskain dezake, izapide arazoan ebazpenean, dirulaguntza eskabidea egitean eta abarrean.

Lan horiek guztiak eta beste batzuk, bestalde, toki erakundeek egin beharko dituzte. Planteamendu honen arazo nagusia toki erakundeen baliabide urritasuna da. Horrenbestez, udaletxeen, mankomunitateen eta abarren laguntza behar da, gazte intereseko erakundeen politikan funtsezko eginkizuna garatzeko. Laguntza horri dagokionez, Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren dirulaguntza lerroa sortu behar da, Gazte eta Asoziazionismo arloko langile teknikoaren lanpostuak sortzeko eta, horrela, adierazitako lanak egin ahal izateko. Horien antzeko esperientziak daude (Hizkuntz Normalizazioko langile teknikorako lanpostuak sortzean) eta, horiek agerian jartzen dutenez, gazte intereseko erakundeen arloko politika talde erakundeetatik sustatu ahal da, baldin eta politika horrek baliabide ekonomikoen eta aholkularitza egokiaren laguntza badu (Gazteria Zuzendaritzak eskainitako baliabideak eta aholkularitza).

Emandako dirulaguntza aldi baterakoa izango da (2 edo 3 urte) eta, horrekin batera, adierazitako lanak biltzen dituen lan egitامua prestatu beharko da:

- Datu-baseak sortzea.*
- Udalerrri mailan diharduten erakundeak sakon ezagutzea.* Hurbileko elkarriketa malgua garatzea, gazte intereseko erakunde guztiekin.

- ▶ Elkarturiko gazteriak parte hartzeko metodologiak gauzatzea.
- ▶ Erakundeen errealitateari eta horien interesei (orokorra, estrategikoa edo zerbitzuena) egokituriko dirulaguntza politika gauzatzea.
- ▶ Erakundeen kudeaketa bultzatzea.

Dirulaguntzen onuraduna, halaber, udalerrri edo mankomunitate bat izan daiteke; gainera, biztanleriari loturiko irizpideak ere kontuan hartu beharko dira, udalerrri edo mankomunitate bakoitzerako sortu beharreko langile teknikoen lanpostu kopurua zehazteko. Orientaziotzat, honako proposamen hau har daiteke kontuan:

Biztanle kopurua	Udalerrri elkartzak	Udalak
0-5.000	Teknikari 1, lanaldi erdian	Teknikari 1, lanaldi erdian
5.001-10.000	Teknikari 1	Teknikari 1, lanaldi erdian
10.001-20.000	Teknikari 1	Teknikari 1
20.000 baino gehiago	Teknikari 1	Teknikari 1
Hiriburuak	2 Teknikari	2 Teknikari

***Informazioaren Teknologia Berrien erabilera sustatzea, batez ere Interneterako konexioa, bai Administrazioaren nahiz erakundeen eta bai erakundeen euren arteko harremanak errazteko***

Lan hau egitean ikusi denez, erraza da gazte intereseko erakundeekiko harremanak edukitzea eta horiekin informazioa trukatzeko, erakundeok Interneti konektaturik daudenean.

Interneteko konexioa eta posta elektronikoko helbidea edukita, ia 24 orduan harremanetan jar daiteke edozein erakunderekin; gainera, denbora eta dirua aurrezten da, harremana edukitzeko moduari esker.

Beste alde batetik, Internetek erraztasun itzela ematen du agiriak (dirulaguntzetarako deialdiak, erakundeetarako informazio interesgarria etab.) eta heziketa trukatzeko (sarearen bidezko urruneko irakaskuntzaren bitartez, eta horri lotutako esperientzia pozgarriak daude). Azkenik, Internetek formularioak argitaratzeko aukera ematen du eta horrek erraztu egiten du EAEko gazte intereseko erakundeen datu-baseen etengabeko gaurkotzea.

Aplikazio horiek guztiak ez ezik (komunikazioari estuago lotutako aplikazioak), ordenagailuek informazioa biltzeko (erakundeen partaideen datu-baseak, beste erakunde batzuen datu-baseak, etab.) edo prozesatzeko (testu prozesadorea, diseinua, maketazioa, etab.) orain arte izandako erabilerak ere aintzat hartu behar dira.

Hori guztia kontuan hartuta, Administrazioak Informazioaren Teknologia Berrien erabilera sustatu behar du gazte intereseko erakundeen sustapenerako funtsezko faktoretzat. Horretarako, ekipo berrien erosketarako dirulaguntza eman edo administrazioan dagoeneko erabiltzen ez diren eta egoera onean dauden ekipoak eskaini daitezke.

## ***II. Gazte Plana egin ostean sorturiko itxaropenei erantzun egokia ematea, gazte intereseko erakundeetako abiaturiko neurrien eta Planaren gorabeheren berri emanez***

Gazte Planaren ekimena (I eta II) gazte intereseko erakundeek oso positibotzat hartzen dute, osotasunean, erakundeen arteko harremanetan eta sailen arteko harremanetan oinarritzen baita. Hala eta guztiz ere, erakundeen ekimeneko mesfidantza Planera ere iritsi da, are gehiago horren abal garrantzitsuenetariko bat Plana prestatzean pertsona gazteen presentzia izan denean.

Egoera horretan, esan daiteke tentsio oso handia dagoela, Administrazioaren eta elkartzeko egituraren artean, Plana ezagutzen duten erakundeen begiak horren garapenean jarrita dauden neurrian. Itxaropen horiei erantzun egokia eman ezean, galdu egingo dira gazte interesekoa den irabazi asmorik gabeko sektorean erreferentetzat diharduten erakunde askorekin etorkizunean lankidetzat lortzeko aukera guztiak.

### ***Ezagupenak gizarteratzeko bideen sorrera sustatzea, erakundeetako taldeetan belaunaldi txanda errazteko***

Belaunaldi txanda, beste alde batetik, modu traumatikoan bizi da erakundeetan, eta eragin nabaria dauka horien jardueran. Zenbait pertsonak erakundeak uztearen ondorioz, ezagupen erabilgarria galtzen da erakundeon kudeaketarako eta biziraupenerako. Lehendik dauden kanpoko heziketa baliabideekin batera, lanerako barruko bideak eta moduak sartzeko proposatzen da, belaunaldi txandaren ondorio negatiboak murrizteko.

Neurriotariko batzuk honako hauek izan daitezke:

- ▶ ***Tutoretzak.*** Esperientzia handieneko pertsonen hasiberriei laguntza emango diete lan eta eginkizun garrantzitsuenak garatzeko orduan, eta eragina izango dute ordezkariak nahiz elkarrizketa zereginetan. Tutoretza prozesua gero eta txikiagoa izango da, ordezkarietarako izendaturiko pertsonaren eraginkortasun mailak hobetu ahala.
- ▶ ***Talde lana sustatzea.*** Talde lanek aukera ematen dute erakundeetara pertsona berriak sartzeko, informazioaren demokratizazioa eta ezagupena ezinbesteko baita erakundeak eraginkorrak izateko.
- ▶ ***Eginkizunak eta lanak pertsona berberengan piltzeko aukerarik ez ematea,*** lan eremuak modu egokian banatuta, pertsonen gaitasunen eta ahalmenen arabera.

### ***Gazte erakundeetako partaidetzaren bideak eta moduak dibertsifikatzeko ahalegina egitea***

Erakundeek hausnarketa egin beharko dute, gaztediaren partaidetza moduetan gertatzen ari diren aldaketei buruz, eta aldaketa horietara egokitu beharko dira. Elementurik berriena partaidetza modu erreaktiboagoak agertzea da, hau da, orain arteko gizarte partaidetzako ereduetatik urrun dauden moduak. Gazteek parte hartu nahi dute, baina beste modu batera. Erakunde batzuen

biziraupenerako, beharrezkoa da gazteen partaidetzara, helburuetara eta beharrianetara egokitzea.

Erakundeek partaidetzarako bideak eta moduak ezarri beharko dituzte, erakundearen barruan erantzukizun maila desberdinak onartu ahal izateko. Halaber, pertsonen erabilgarritasuna ere aintzat izan beharko dute, horien jarduera hipotekaturik ez gelditzeko, egituraren araberako konpromiso baten ondorioz.

### ***Pertsonen kontratazioa bultzatzea, halakorik eskatzen duten erakundeetan***

Kudeaketa mistoko ereduaren ezarkuntza prozesua egiteko, errespetatu egin beharko dira erakundearen prozesuak eta eskariak. Kideak profesionalak izatea ez da egokia, irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen multzorako; era berean, multzo hori osatzen duten erakundearen zati handi baten helburua ez da eraginkortasuna. Gazteek oraindik ere akatsak egiteko aukera ematen dien eremua eduki behar dute. Gainera, profesionalak zenbat eta gehiago izan, partaidetza orduan eta txikiagoa da, eta horrek mobilizazioa oztopatzen du, parte hartzeko premia eta estresa desagertzen den neurrian.

**BIGARREN ATALA**

**EAEko Gazte-  
-Elkartegintzari  
Buruzko Analisia**





## OHAR METODOLOGIKOA

Aurkezpenean adierazi denez, aurrebaldintza jakin batetik abiatu da ikerketa lan hau, hau da, gazte-elkartegintzaren kontzeptuaren arazoak zehaztu behar izatetik; gainera, ikerketaren zeharkako helburuetariko bat definizio egokiagoa lortzea izan da, gertatzen ari denari buruz, gazteen irabazi asmorik gabeko sektoretzat kalifikatu daitekeenean.

Planteamendu horrek inplikazio metodologiko argiak ditu; egin-eginean ere, gizarte ikerketarik gehien kasuan, ikerketaren helburua ez dago jatorritik bertatik mugatuta. Horrela, ezinezkoa da *a priori* identifikatzea unibertso bat eta unibertso hori ixtea, eta gero deskribatzea edo aztertzea; izan ere, ikusmen eremua ahalik eta gehien ireki behar da, gero galbahe bat egiten joateko, unibertso hori aztertu ahala. Metafora bat erabilia, lehenengo eta behin sare oso itxia bota dugu, bertan gauza guztiak sartzeko, eta gero, jasotakoa deskribatu, helburua identifikatu eta horren interesa haztatu da (tipologia eratu da).

Metafora hori gauza zehatzen eremura igarota, lehenengo eta behin ikerketaren unibertsoa identifikatu da eta hori, *a priori*, EAEko gazteen elkartze egitura izan da. Horretarako, gazte-elkartegintzari buruzko datu base nagusiak kontsultatu dira, hartara, behin-behineko unibertsoa mugatu ahal izateko.

Behin-behineko unibertsoa identifikatu ostean metodologia mistoa aukeratu da eta bertan teknika kualitatiboak nahiz kuantitatiboak konbinatu dira. Horrela informazioa biltzeko hiru bide ireki dira: galdeketa, elkarrizketa eta dokumentazioaren berrikuspena.

Azken txostena honako informazio-zutabeetan oinarrituta dago:

- ▶ Aztertutako entitateetako arduradunen lagin adierazgarriari galdera-sorta.
- ▶ Berrogeita hamar elkarrizketa erdi-egituratu inguru.
- ▶ Mota desberdineko dokumentazioaren berrikuspena.

Azkenik, ondoriozko agiria eztabaida taldeek balioztatu zuten. Lehenengoa erakunde publiko desberdinetako langile teknikoek osatu zuten. Bigarrenean, gazte intereseko erakunde adierazgarrietako arduradunek hartu zuten parte.

Ikerketa taldeak arazo handiak izan ditu, informazio iturrietara iristeko orduan (erakundeak). Ikerketaren helburua elkartze mundua izanik, abiapuntuko zailtasun komuna dago, sektore horretako ikerketan diharduten azterketa guztiei dagokienez: harremanetarako zailtasuna. Horren arrazoiak honako hauek dira:


- ▶ Ez dago datu-base ofizial guztiz fidagarririk, elkartze egitura osoa jasotzeko.
- ▶ Oraingo datuak ez daude ondo gaurkotuta.
- ▶ Kontaktuetarako zailtasunak daude, erakundeetako lokaletan egotearen gora-beherei lotuta (ordutegi oso aldagarriak).
- ▶ Erakundeek zalantzak eta susmoak dituzte, galdeketari eta ikerketari dagokienez.
- ▶ Gutxienez hiru ikerketa desberdin aldi berean egin dira (elkartze egitura nekata dago eta ukatu egiten du informazio eskabide «itzel» hori).
- ▶ Postako arazoak.
- ▶ Beste arazo batzuk.

### IKERTURIKO UNIBERTSOA

Ikerketak aurrera egin ahala, gero eta informazio zehatzagoa lortzen joan da eta, ondorioz, ikerketaren unibertsoa hobeto finkatzeko modua egon da. Unibertso hori 1.412 entitatek osatuko lukete.

Hauetatik %21,7 (307) *gazte interes berezirik gabeko edo jarduerarik gabeko* kategorietan sartu dira; %6,4ak (90) ez du erantzunik eman harremanetarako egin dugun ahaleginean; %40,7ak (574) ez zeukan kontakturako aukera ematen zuen daturik edo datu horiek akas-tunak ziren; %13,6 (249) beste aukera batzuen multzoan sartzen da (hasieran ezarritako harremana ez da galdu, erakundeari buruzko informazioa bidaltzeko konpromisoa hartu dute, baina ez dute bidali, etab.).

1. grafikoa: Landa-lanaren emaitzak



Datu horiek kontuan hartuta, eta lagina zehatzago aztertu arte, hauxe esan daiteke:

- ▶ *Ikerketaren gaitzat* behin-behineko unibertsoaren %13,6 jaso da. Portzentaia hori %31,2koa izan daiteke, baldin eta baikorrak izanik *beste batzuk* deritzon kategorian dauden erakundeak gehitzen baditugu (%17,6), kategoria horren barruko erakunde guztiak gazte intereseko erakundeak direla jota. Horrenbestez, guztira 440 erakunde izango lirateke.
- ▶ *Ikerketaren gaia ez dena*, berriz, behin-behineko unibertsoaren %21,7 da. Guztira, 307 erakunde.
- ▶ Gainerako erakundeetatik %47,1ari buruz (hau da, erantzun ez dutenen eta ezagutzen ez direnen batuketa, 664) *ez dago informaziorik*.

Behin-behineko unibertsoa honelaxe deskriba daiteke:

### 3. koadroa: Behin-behineko unibertsoa

Unibertsoaren banaketa	Zenbatekoa	%
Ikerketaren gaitzat jotakoak	440	31,2
Ikerketaren gaia ez dena	307	21,8
Ez dago informaziorik	664	47,1
Guztira	1.411*	100

\* Biribiltzearen ondorioz entitate bat galdu egiten da.

Behin-behineko unibertsoetik gazte intereseko erakundeak ez direnak edo ez daudenak kentzen baditugu, 1.104 erakundeko gazte intereseko erakundeen unibertsoa izango dugu. Hala eta guztiz ere, ezin daiteke esan informaziorik gabeko erakunde guztiak gazte intereseko erakundeak direnik; gazte interesekoak ez diren erakundeen %21,8ko datua behin-behineko unibertso osorako erabilita, esan daiteke 1.104 erakundeetatik gutxi gorabehera 240 (%21,8) ez direla gazte interesekoak. Horrenbestez, behin betiko kalkulua eginez, esan daiteke EAEn *gazte intereseko 864 erakunde* inguru daudela.

Kalkulu horretaz gain, azkenean 186 gazte intereseko erakundek inkestaren bidez emandako datuak hartu dira kontuan azterketa hau osatzeko. Beraz, ondoren aurkezten den gazte-elkartegintzaren analisia, erakunde horietan oinarrituta egongo da, lehenengo atala, *Elkarte egituraren egoerari buruzko datuak*, izan ezik. Horretan, sektorean egindako kalkuluen arabera aurkezten da.





**1**

**Elkarte egituraren  
egoerari buruzko  
datuak**



### 1.1. AURRETIAZKOAK, IKERTU BEHARREKO UNIBERTSOARI BURUZ

Metodologiari buruzko atalean esan dugunez, EAEn gaur egun gazte intereseko 800 edo 900 erakunde inguru dago. Kalkulu hori egiteko oinarritzat, ikertu beharreko unibertsua egituratzeko erabili diren datu-baseetan jasotako informazioaz baliatu gara, eta argi esan behar da hori kalkulia baino ez dela, oso zaila baita halako zenbat erakunde dagoen zehatz jakitea.

Agian, gazte intereseko elkarteei edo erakundeei buruzko datu-base guztiak arakatu eta aztertu ondoren (horretarako, segurutik, herri administrazio guztietako datu-base guztiak ikertu beharko lirateke, hau da, 250 udaletxe, hiru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), zifra askoz ere egokiagoa atera daiteke, gazte intereseko erakundeen kopuru osoari buruz.

Hala eta guztiz ere, ikerketa talde honen ustez, ikerketa honen testuinguruan, lan horretarako esfortzu eta baliabide asko erabili beharko lirateke, eta gainera, lortu beharreko hobariak ez lukete inondik inora ere hori konpentsatuko. Eta hori, berriz, bi arrazoiengatik.

Lehenengo eta behin, hori eginez aipaturiko datu-baseetan agiriren bat duten erakundeei buruzko informazioa baino lortuko ez genukeelako (gehienetan, administrazioari dirulaguntzak eskaintzen dizkieten erakundeak), eta erregistratu gabeko baina jarduera bolumen handiko elkartze egituraren zati handi bat azterketatik kanpo geldituko litzatekeelako.


Bigarrenez, honako hau kontuan hartuta ezein datu-base inoiz ere behin betikotzat hartu ezin izango litzatekeelako: egoitza aldaketak, telefono aldaketak, telefono aldaketa (enpresa eragile berrietako telekomunikazioak apurka-apurka merkatuan sartzen ari diren unean, horren ondorioz telefono zenbakiak desagertu egiten baitira), erakundeotako pertsonen joan-etorriak, etab.

Horrenbestez, gazte asoziazionismoaren gaia ikertzeko orduan, errealitateari gutxi gorabehera egokituriko hurbiltzeekin egiten da lan. Ikerketa honen kasu zehatzean, kalkulia egin baino lehen, agortu egin dira ikerketa taldearen esku egon diren harremanetarako bide guztiak (telefonoa, faxa eta posta elektronikoa), eta beraz, betiere behin-behinekua izan arren, esan daiteke emaitza baliozkoa dela.

## 1.2. LURRALDEEN ARABERAKO BANAKETA

Erakundeen kopuru osoari buruz lehen kalkulaturako zifra baliozkotzat hartuz gero (864), erakundeek hiru lurralde historikoetan duten banaketa ondoren adierazita dago. Grafikoan ikusten denez, erakunde gehieneko lurraldea Bizkaia da (%46) eta gero Gipuzkoa (%33).

2. grafikoa: Lurraldeen arabera banaketa



Termino absolutuetan, horrek esan nahi du horiek honako banaketa hauxe izango lukeela lurraldeen arabera.

4. koadroa: Lurraldeen arabera banaketa erlatiboa

Lurralde Historikoa	Erakundeak			
	Bizt. kop.	Zenbatekoa	%	Erak./Bizt.
Araba	281.821	181	21,00	64/100.000 biz.
Bizkaia	1.140.026	395	45,70	35/100.000 biz.
Gipuzkoa	676.208	288	33,30	43/100.000 biz.
Guztira	2.098.055	864	100	41/100.000 biz.

Iturria: Geuk landuta.

Horrela, biztanleko erakunde kopuru handieneko lurraldea Araba da, 100.000 biztanleko 64 erakunderekin.

## 1.3. UDALERRIEN ARABERAKO BANAKETA

Erakundeek euren egoitza soziala duen udalerraren batez besteko biztanle kopuruaren arabera duten banaketa aztertuta ikusten denez (egoitza sozial hori ez dago zertan egon erakundeok jarduera egiten duten eremu geografikoan), erakunde guztien %57,6 hiriburuetan dago.



**5. koadroa:** Kalkulatutako Erakundeen banaketa, herrietako biztanle kopuruaren arabera

Biztanle Kopurua	EAE	Lurraldeka		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
0-5.000	10,2	17,9	9,4	6,5
5.001-10.000	3,2	2,6	1,2	6,5
10.001-20.000	8,6	2,6	5,9	16,1
20.000tik gora	20,4	5,1	31,8	14,5
Hiriburuak	57,6	71,8	51,8	56,6
Guztira	100	100	100	100

*Iturria:* Geuk landuta.

Grafikoan ikusten denez, hamar erakundetik ia seik probintziako hiru hiriburuetan dute egoitza soziala. Horri dagokionez, aipagarria da Arabako egoera oso polarizaturia izan ere, bertan, erakunde guztien %71ren jardueraren erdigunea Gasteizen dago, eta gainerako %18, berriz, 5.000 biztanletik beherako herrietan daude.

Datu horiek, hala eta guztiz ere, jardueraren eremu geografikoari buruzko datuarekin osatu behar dira, eta horri buruz hurrengo epigrafean mintzatuko gara sakonago. Egin-eginean ere, jarduera eremuak berez ez du zertan egon jardueraren egoitza sozialaren kokaleku geografikoak baldintzatuta, baina udalerrri txikietan eta ertainetan kokaturiko erakundeek hurbileko inguruan eta inguru horrentzat lan egiteko joera gogorra dute (tokia edo udalerrria). Beheko taulan joera hori argi eta garbi ikusten da.

**6. koadroa:** Kalkulatutako Erakundeek jarduketaren eremu geografikoaren arabera duten banaketa

Eremu geografikoa	Biztanle kopurua				
	0-5.000	5.001-10.000	10.001-20.000	20.000tik gora	Hiriburuak
Udalerrri maila edo txikiagoa	94,8	100	87,5	81,6	49,5
Eskualde maila	5,3	0	6,3	10,5	1,9
Lurralde maila	0	0	0	5,3	29
EAE	0	0	6,3	2,6	16,8
Estatua	0	0	0	0	0,19
Nazioartea	0	0	0	0	1
Guztira	100	100	100	100	100

*Iturria:* Geuk landuta.


Datu horiek aztertzeak ateratzen denez, ikerturiko erakunderik gehienek ingururik hurbilenean dihardute. Hori, gainera, nabarmendu egiten da egoitza soziala 10.000 biztanletik beherako udalerrietan duten erakundeek kasuan, horientzat eremu bakarra tokia (barrutia, auzoa ...) edo udalerrria baita.

#### 1.4. JARDUKETA EREMUAK

Lehen esan dugunez, ikerturiko elkartze mugimenduak tokirako joera gogorra dauka eta joera hori nabarmenagoa da erakunde kokaturik dagoen biztanle gunea zenbat eta txikiagoa izan.

Horrela, gizarte intereseko kalkulaturako erakunde guztien %65aren kasuan (gutxi gorabehera), jarduketa eremu nagusia tokia (auzoa, barrutia) edo udalerria da. Beheko grafikoan datuak zehatzago ikusten dira.

3. grafikoa: Erakundeek jarduketaren eremu geografikoaren arabera duten banaketa



Datu horiek jarduketaren lehentasunezko eremutzat hartutakoari buruzkoak dira. Horrela, lehentasunik txikieneko jarduketa eremutzat, oro har, toki edo udalerriz gaindikoa hartzen da.



**2**

**Gazte intereseko  
erakundeen  
tipologia**



Atal honetan, aztertutako gazte intereseko erakundeen multzoaren tipologia ezartzeko irizpideak finkatu nahi dira. Horiek, 186 erakunde izan dira. Sarritan, halako erakundeei buruz hitz egiten denean, horien ustezko ezaugarriak aipatzen dira, erakunde guztiak ez direla inondik inora berdinak ahaztuta.

EAEko gazte intereseko erakundeen multzoari aplikatzeko moduko tipologiaren gaia jorrazteko orduan, agerian gelditzen da «gazte intereseko irabazi asmorik gabeko sektorea» deritzona oso anitza dela. Halako panorama anitz baten aurrean, tipologia argia ezartzea aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke, gazteen elkartze fenomenoaren ezagutzeko. Hala eta guztiz ere, lan horrek ere zailtasunak ditu.

Zailtasun edo erronkarik handiena baliozko tipologia ahalik eta errazena eraikitzea da, hau da, kategoria kopuru ahalik eta txikiena duen tipologia; halaber, elkarrekiko oso desberdinak diren erakundearen taldeak sortu behar dira (talde artea), eta taldeok, halaber, erakunde ahalik eta antzekoenek osatu beharko dituzte (talde barrua). Horixe da, zailtasunik gabeko, tipologia sortzeko lanaren ideala. Hala eta guztiz ere, gazte intereseko erakundearen kasuan ezin daiteke sailkapenerako irizpide bakar bat ezarri; izan ere, hori egitekotan, ikertzen ari garen gaia larregi sinplifikatuko genuke eta, horrela, informazioa galduko litzateke.

Horrenbestez, sailkapen irizpide desberdinak ezarri dira, informazio interesgarriena ahalik eta handiena izateko. Horrek, era berean, tipologia bata ala bestea hartzeko aukera ematen du, lortu beharreko helburuaren arabera.

## 2.1. KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Tipologiak ezartzeko orduan, garrantzitsuen kontuan hartu beharreko irizpideak ondo zehaztea da. Irizpideok kuantitatiboak edo kualitatiboak izan daitezke. Lehenengo kasuan (irizpide kuantitatiboak), tipologiak erakundeek kudeaturiko diru kantitatearen arabera ezar daitezke, baita soldatapekoa den ala ez den pertsona kopuruaren arabera ere, eta bi irizpide horiek ere konbina daitezke, azterketa anitzeko tresnak erabiliz.

Hala eta guztiz ere, ikuspegi analitikoak, ez da oso interesgarria gazte intereseko erakundeak honako kategoria hauekin sailkatzeko bitartekak ezartzea: «2 eta 5 milioi pezeta

*bitartean, 5 eta 10 milioi pezeta bitartean eta abar kudeatzen duten erakundeak edo soldatapeko 100 pertsona baino gehiagoko edo gutxiagoko erakundeak». Zalantzarik gabe, datu horiek oso interesgarriak dira deskribapenaren aldetik (eta hori beste atal batzuetan egin dugu), baina ez dira interesgarriak baldin eta administrazioak arlo horretan hartu beharreko jarre-rari buruzko ideiak nahiz proposamenak azaldu eta sortu nahi badira.*

Hala ere, aipaturiko bi aldagai horien eragin bateratua ikertzeko azterketa anitza egin ondoren (soldatapekoak ez diren pertsonen kopurua eta kudeaturiko diru kantitate), ikusten da ez dagoela argi identifikatzeko moduko segmentu edo talderik, eta beraz, ondorio argia atera daiteke: alderdi horiei dagokienez erakunde batzuen eta besteen artean desberdintasun handiak egon arren, desberdintasun horiek mailakatuak dira, jauzi handirik gabekoak (aldagai ezezagunen presentzia aztertze beharrianik gabe, talde batzuk edo besteak sortzea azaltzeko). Horrela, urtero 100.000 pezetatik beherako aurrekontua duten erakundeak daude; beste erakunde batzuen aurrekontua, berriz, berrehun milioi pezetatik gorakoa da; hala ere, ezin daiteke tipologia jakinik ezarri, taldeak kudeaturiko diru kantitatearen arabera argi bereizteko.

Horrela, irizpide kuantitatiboak alde batera utzi eta aldagai kualitatiboaren eragina aztertuko dugu, oso desberdinak diren erakunde motak egon daitezkeelako.

Elkartea sailkatzeko modu desberdinei begiratuta ikusten denez, sailkapenerako parametroak era askotakoak izan daitezke, formalizazio mailaren, helburuen, jarduera eremuaren, talde onuradunaren eta abarren arabera, eta sailkapen horiek guztiak baliozkoak dira, beharrian desberdinei ematen baitie erantzuna.

*EAEKO GAZTE-ELKARTEGINTZAREN LIBURU ZURIA*, honen testuinguruan, tipologia ezartzea ez da ariketa tipologiko hutsa, eremu praktikotik egindako eskakizuna ere bada; hau da, gauzak ezagutu beharra dago, zein norabidetan eta nola jardun behar dugun jakiteko. Informazioa eman behar da, herri administrazioak honako hau egiteko aukera izan dezan:

- ▮ Gazte intereseko erakundearen arloko politika publikoen jasotzaileak identifikatu.
- ▮ Erakunde mota bakoitzerako harreman modalitateak egokiena aukeratu.
- ▮ Erakunde eta elkarte jardueraren estrategikoak identifikatu, administrazioak finantziaturiko helburu desberdinen arabera (gazteen partaidetza sustatzea, gazteei zerbitzuak ematea, etab.).
- ▮ Erakunde mota bakoitzaren arazoak identifikatu.

Horrela, kontuan hartu beharreko lehenengo irizpideak abiapuntuko eremu orokorrari buruzkoak dira. Horrenbestez, honako hau hartu da oinarritzko irizpidetzat: Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroak ezarritakoa; bertan, bereizketa argia egiten da, Elkar-teei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legea onetsi denetik. Irizpide horren arabera, elkar-te kontzeptutik kanpo gelditzen dira, ikerketa lan honetan kontzeptu hori erabiltzeko modua kontuan hartuta, honako erakunde hauek:<sup>8</sup>

- ▮ Merkataritzako sozietateen edo sozietate zibilen forman eraturiko elkarteak eta, orokorrean, helburutzat kideentzat irabaziak lortzea duten elkarteak (horrek ez du esan nahi ikerketa honetan forma juridiko bikoitza duten erakundeak kontuan hartu ez direnik, hau da, elkartzekoak eta merkataritzakoak).

<sup>8</sup> CASADO, Demetrio: *Organizaciones voluntarias en España* (2. edizioa), HACER, Bartzelona, 1995.

- ▶ Elkargo profesionalak.
- ▶ Kirol klubak nahiz elkarteak eta kirol federazioak.

Aurretiazko gai horien eraginez, kirol elkarteak ikerketa honetatik kanpo utzi dira.

Sailkapen horrek ondo kokatzen du ikerketaren abiapuntua eta beste bereizketa garrantzitsu bat egin behar da:<sup>9</sup>

- ▶ Egitatezko elkarteak: halakoen eraketa ez dago Legeak ezarritakoaren arabera formalizatuta.
- ▶ Zuzenbideko elkarteak: halako elkarteek bete egiten dituzte Elkarteei buruzko abenduaren 24ko 191/1964 Legean ezarritako formazko alderdiak (praktikan beti ez dira betetzen).

Tipologia hori era askotako helburuak eta beharrianak betetzeko baliozkoa izatearen ondorioz, erakundeak sailkatzeko irizpide bakar batek (adibidez, jarduera eremuen arabera) ezin die erantzuna eman gaur egun elkartegintzaren arloan sortzen diren galdera ugari.

Horrela, hiru irizpide ezarri dira, aldagai interesgarrien kopuru ahalik eta handiena kontuan hartzeko:

- ▶ Jarduera eremuen eta helburuen arabera sailkapena.
- ▶ Belaunaldi irizpidea.
- ▶ Partaidetzaren subjektu-objektu harremana.

### 2.1.1. Jarduera eremuen eta helburuen arabera sailkapena


Eremu orokorra kokatu ondoren (bertan, egitatezko eta zuzenbidezko elkarteak hartuko dira aintzat), hurrengo pausoa irizpideak bilatzea da, gazteen irabazi asmorik gabeko sektorea osatzen duten era guztietako erakundeen ezaugarriak jakiteko. ICNPO deritzon egindako sailkapenaren arabera (International Classification of Non-profit Organisations-Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Nazioarteko Sailkapena), halako erakunde guztiak sartzeko aukera ematen duten hamaika kategoria daude: *Kulturalak, Heziketa eta Ikerketakoak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak, Ingurumenekoak, Garapenekoak, Eskubide Zibilekoak eta Lege Aholkularitzakoak, Jarduera Filantropikokoak, Nazioarteko Laguntzakoak, Erlijiozko Konfesioanalak, Enpresa Elkarteak, Elkarte Profesionalak eta Sindikalak eta Beste batzuk.*

Beste alde batetik, EAEko Gazte Planak bederatzi kategoria desberdin erabiltzen ditu: *Lana eta laneratzea, Lanerako prestakuntza, Hezkuntza, Etxebizitza, Osasuna, Gizarte -ekintza, Aisia, Kultura eta Kirola.* Gazte intereseko erakundeetariko asko, zenbait arrazoiren eraginez, beste kategoria batzuetan sar daitezke; beraz, beste kategoria bat sartu da, eta horri *Balioak eta Gizarte Aldaketa* izena eman zaio. Erantzuneko gaitasun berri hori sartzeak ez du esan nahi kategoria baztertzaila sartzan denik; izan ere, jarduera eremua balioen eta gizarte aldaketaren barruan sar daiteke, aisialdiaren eta irakaskuntzaren arlotik sartu ere. Arazo hori konpontzeko, lehentasunezko hiru jarduera eremu hautatzeko aukera eman da, garrantziaren arabera.

<sup>9</sup> *Ibidem.*

Aztertutako erakundeei gai horri buruz galdetu ondoren ikusten denez, gehien aukeratzen den eremua (erakunde guztien %37) *Balioak eta gizarte aldaketa* deritzona da, hau da, I. Gazte Planean jasota ez dagoen eremu bakarra; II. Gazte Planean, ordea, zehar-lerro gisa jaso da. Horren atzean *Aisia* dago %21,5arekin eta gero *Gizarte-ekintza* %14arekin.

4. grafikoa: Gazte Planeako Eremuen araberako banaketa



Beste alde batetik, *Lana eta laneratzea*, *Lanerako prestakuntza* eta *Etxebizitza* eremuak (azken kasu horretan lagineko unitaterik ere ez da jaso) bazterreko edo testigantzako elkarte mailak adierazten dituzte, nahiz eta gazteak gehien kezkatzen dituzten arloak lana eta etxebizitza izan.<sup>10</sup>

Azterturiko erakundeak ez dira modu bateratuan biltzen proposaturiko eremuen inguruan, eta gainera, gazteen taldean ez dago nolabaiteko garrantzia duen jarduera eremurik; horrek aditzera ematen du erabilitako kategoriak ez direla baliozkoak gazteen irabazi asmorik gabeko sektorean gertatzen ari dena ondo adierazteko.

*Balioak eta gizarte aldaketa* erakundeen %37ak lehentasunezko eremutzat aukeratu izana datu oso interesgarria da eta aurrerago horri buruzko hausnarketa egingo dugu. Hala eta guztiz ere, elkarte sektore honen tipologizazioaren ikuspegitik, argitasuna eman beharrean, nahastea eta interpretazioa oso anbiguoak sor ditzake.


Horrenbestez, errealitateari ondo egokituriko ezaugarriak ezartzeko beharrianak kontuan hartuta, sailkapenaren kategoriara eraman dugu erakundeek euren jarduerari buruz egiten duten definizioa. Zalantzarik gabe, elkarteei aurretiaz finkaturiko jarduera eremu batzuetan kokatzeko eskatzeak euren jarduerari buruzko aztarnak eskaintzen ditu, baina mugatu egiten ditu errealitateari estu lotutako sailkapena lortzeko aukerak.

<sup>10</sup> *Euskadiko Gazteak 2000*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.



Ondoren, sailkapen proposamen bat agertzen da; hori azterturiko erakundeek lehen-tasunezko hartutako helburuetan oinarritzen eta justifikatzen da.

5. grafikoa: Jarduera eremuen arabera banaketa berria



Horrenbestez, zortzi kategoriatan sailkapen berria sortzen da: *Heziketa*, *Gizarte ekintza*, *Sustapen kulturala*, *Ingurumena eta ekologia*, *Lankidetzatza*, *Harreman eremua*, *Enplegua eta laneratzeta* eta *Beste batzuk*. Sailkapen mota batetik bestera igarotzean, honako aldaketa hauek dira aipagarrienak:

- ▶ Heziketaren eremuaren gorakada ikusgarria.
- ▶ Gazte Planaren sailkapenean halakotzat jaso gabeko eremuen sorrera, nahiz eta horiek ICNPO deritzonaren sailkapenean agertu: *Lankidetzatza* (Nazioarteko laguntza) eta *Ingurumena eta ekologia* (Ingurumena).
- ▶ Eremu batzuk desagertzea: *Balioak eta gizarte aldaketa*, *Aisialdia*, *Kirola*, *Etxebizitza*, *Enplegurako heziketa*, *Osasuna* (gizarte ekintzaren barruan sartzen da) eta *Irakaskuntza* (horren ordean, Heziketa aipatzen da eta kategoriatan horrek balioen Heziketaren edukia hartzen du).

Proposatutako sailkapeneko elementurik berrienetarikoa eta deigarrienetarikoa bat, zailtzarrik gabeko, *Aisialdia eta astialdia* deritzon eremua desagertzea da. Hori kontraesankorra da, kontuan hartuta azterturiko erakunde guztien %21,5 eremu horretan kokatu direla. Hala ere, itxuraz kontraesan handia izan arren, horrek agerian jartzen du gazte erakundearen jardueraren zatirik handiena izendatzeko orain arte erabilitako *aisialdi* hitzak ez duela ondo adierazten jardueraren eremu horren izaera.

Puig eta Trillas autoreek emandako definizioaren arabera<sup>11</sup> aisialdia hau da: «...egindako jardueraren edozein izan arren, jardueraren horren jarrera nagusien helburuak

<sup>11</sup> PUIG ROVIRA, J. M. eta TRILLAS, J. *La pedagogía del ocio*. Laertes argitaletxea. Bartzelona, 1996.

hautapen autonomoarekin, garapen askearekin, gozamenarekin, atsedenerekin eta dibertimenduarekin lotutako beharrian pertsonalak izatean oinarrituriko astialdia». «Atsedendia eta dibertimendua» elementuak albo batera utzita, jakina delako aisialdiko denbora guztia ez dela atsedenerako (ez atsedeen fisikoa eta ez burukoa) edo dibertimendurako erabiltzen, definizio horren gauzarik interesgarriena konpondu beharreko arazo nagusia ondo kokatzea da, hau da: edozein elkarte jarduera aisialdiaren kategoriaren barruan sailkatzeko modukoa da berez? Gure ikuspegitik, galdera horri baiezko erantzun biribila eman behar zaio.

Elkartze jarduera, borondatezkoa denez, aisialdian garatzen da, hau da, lanik ez dagoen denboran. Ikuspegi horretatik begiratuta, berdin-berdin sartu behar dira *aisialdiaren* sailkapenean, bai umeekin proiektu pedagogikoa garatzen ari den astialdiko taldea (aisialdia deritzona) eta bai *gaztetxe* edo *talde ekologista* batek garaturiko jarduera.

Aisialdiaren eta astialdiaren kategorian sartuta egoten diren taldeen elementu bereizgarria horien Heziketa proiektua da. Horrela, aisialdiko erakunde horri lotutako interpretazio tradizionala estuago lotuta dago partaidetza aktiboa duten umeen nahiz gurasoen ikuspegiari, erakundearen jarduera kudeatzen duten gazteen ikuspegiari baino.

Planteamendu horrek, halaber, ohiko zalantza bat ere konpontzen du, astialdiko taldeak gazte edo haur taldetzat hartu behar izateari ala ez izateari buruz. Talde horietarik gehienek Heziketa planteamenduak (horrek, neurri batean, azaldu egiten du erakunde horietariko asko baloreen eta gizarte aldaketaren eremuan egotea) era guztietako zalantzak argitu behar ditu, erakunde horien gazte izaerari buruz. Horrenbestez, helduen edo gazteen diskurtsoa da, baina ez haurren diskurtsoa.


Beste alde batetik aisialdia/heziketa proiektuak dituzten, halako erakundeek %38ak dioenez, euren jarduerak ikuspegi konfesionala dute, eta gainerako %62ak, berriz, ez du ezer esan horri buruz. Datu horiek erlatibizatu egin behar dira, beti ez baita agerian gelditzen edo ahoz esaten jardueraren izaera konfesionala. Beste modu batera esateko, izaera hori onartzeak badagoela adierazten du, baina aurkako kasuan ezin daiteke gauza bera esan.

Halaber, profesionalik gehieneko bigarren eremua da, *Gizarte Ekintzaren* atzetik, aztertutako erakundeek soldatapeko pertsona guztien %12 eremu horretan baitaude.

Hala eta guztiz ere, profesionalik gehieneko bigarren eremua izan arren, esan daiteke profesionalizatzeko hori kota oso baxuetan mantentzen dela azpi-sektore horretan; egin-eginean ere, *Heziketaren* arloan soldatapeko pertsona bat dago, soldatarik gabeko ehun pertsonako, eta *gizarte ekintzaren* arloan, berriz, soldatapeko hamabost pertsona daude, soldatarik gabeko ehun pertsonako. Halaber, 31 urtetik beherako pertsonen bideraturiko proiektu kopuru handienari dagokionez ere bigarren eremua da, eta lehenengo eremua *Lana eta laneratzea* da, eta horrek bere proiektuen %80 bideratzen ditu gazteriarra.

Datu horiek ondoko grafikoa ikusten dira; bertan, gazte intereseko erakundeek garaturiko jardueren talde onuradunak agertzen dira, jarduera eremuen arabera; talde nagusi bi ezarri dira, gazteen taldera programarik gehien bideratzen duten erakundeak nabarmentzeko, eta gazteen taldeak, izan ere, 30 urtetik beherako pertsonen osatutakoak izango dira.

6. grafikoa: Talde onuradunak, jarduketa eremuen arabera



*Gizarte Ekintza* eremuak (erakunde guztien %16,8) ondo bereizitako bi jarduketa arlo ditu; erakunde horien %61,3ak bazterturiko talde berezien laguntzako eta prebentzioko lanetan dihardu (toxikomanoak, espetxetik irtendako pertsonak, inmigranteak, etab.); gainerako %38,7ak, berriz, jarduera horixe egiten du, baina bazterturiko talde orokorre bideratuta (adin txikikoak, gazteak, arrisku egoerako familiak, etab.). Gainera, euren jarduera gazteen eta helduen taldera bideratzen dute, ia zati berdinetan.

Jardueraren subjektuari dagokionez ere egoera nahiko orekatua dago; halako erakundeetan soldatarik gabe parte hartzen duten pertsonen %53, egin-eginean ere, 30 edo gutxiagoko pertsonak dira eta %46,4, berriz, adin horretatik gorakoak.

Garrantzi handiko beste eremu bat *sustapen kulturala* da; gizarte ekintzaren kasuan bezala hemen ere ondo bereizitako bi arlo daude: euskal kulturaren sustapena (erakunde guztien %61,9) eta kultura orokorraren sustapena (%31,8). Horrenbestez, euskal kulturaren aldeko nolabaiteko joera ikusten da, eta hori ez dago adinari lotuta, hau da, gehienbat gazteek edo helduek osaturiko erakundeek antzean jarduten dute horretan.

Beste alde batetik, eremu honetako partaidetzaren profila batez ere pertsona gaztearena da (boluntario guztien %79) eta jardueraren jasotzaile nagusia ere gazteria da.

*Ingurumenaren* eremuak ekologiaren eta ingurumen ikerketaren arloetan egiten du lan, proportzio oso antzekoetan (%40 eta %60, hurrenez hurren). Jardueraren jasotzaile den jendeari dagokionez, aipagarria da aurreko eremuetan ez bezala eremu honetan jasotzaile nagusiak helduak izatea (%70). Partaidetza oso banatuta dago gazteen eta helduen artean.

*Harreman* eremua (gehienetan, zaletasunen baten inguruan sortutako elkarteak) eta *Lankidetzak* eremua oso antzekoak dira, programei eta jardueren jasotzaileei dagokienez

(gutxi gorabehera erdiak gazteei bideratuta), baita soldatarik gabe parte hartzen duten pertsonen profilari dagokionez ere (gehienak gazteak); gazteei arretarik handiena eskaintzen dien eremua, azkenik, *Lana eta laneratzea* da (programa guztien %80).

Azkenik, *Beste batzuk* deritzon kategorian, nekez sailkatzeko modukoak edo gutxien-goak diren erakundeak sartzen dira, esate baterako, elkartegintzaren sustapena (adibidez, Josemi Zumalabe fundazioa), kirol elkarteak, auzo elkarteak, etab.

### 2.1.2. Belaunaldi irizpidea

Irabazi asmorik gabeko sektoreari buruz egindako ikerketa askotan adierazitakoaren arabera, belaunaldiaren faktorea oso garrantzitsua da, elkartze fenomeno eta, beraz, arlo horretako politika publiko eraginkorraren diseinua ondo ulertzeko sailkapenak ezarri ahal izateko.

*Adinaren* aldagaia garrantzitsua da, EAEko gazte intereseko erakundeen ikerketan ere; beraz, hiru adin bitarte ezarri eta, gainera, bereiz aztertu dira erakunde mota desberdinen arteko antzekotasunak nahiz desberdintasunak deskribatzeko lagungarriak diren ezaugarrietariko batzuk. Ezarritako taldeak honako hauek dira:

- ▶ Gehienbat 20 urtetik beherako pertsonen osaturikoak.
- ▶ Gehienbat 20 eta 30 urte bitarteko pertsonen osaturikoak.
- ▶ Gehienbat 30 urtetik gorako pertsonen osaturiko erakundeak.

Hiru erakunde mota horietariko bakoitza zehatz aztertuta ikusten denez, honako honi lotutako desberdintasun garrantzitsuak daude:

- ▶ Erakundearen antolaketa gaiak.
- ▶ Jarduera.
- ▶ Administrazioaren eskariak.


#### 2.1.2.1. Antolaketa

Antolaketa mailako alderdiei dagokionez, honako honi lotutako desberdintasunak ikusten dira:

- ▶ Kudeaturiko diru kantitatea.
- ▶ Soldatapeko pertsona kopurua.
- ▶ Soldatarik gabeko pertsona kopurua.


Kudeaturiko diru kantitateari dagokionez ikusten denaren arabera, soldatarik gabe parte hartzen duten pertsonen adina zenbat eta handiagoa izan, erakundearen baliabideak orduan eta handiagoak dira. Gehienbat 20 urtetik beherako pertsonen osaturiko erakundeek kasuan, horietariko gutxiengoak (%15) baino ez du urteroko 5 milio pezetatik gorako aurrekonturik kudeatzen. Hurrengo bitartean (20-30 urte bitarteko eta 30 urtetik gorako pertsonen osaturiko erakundeak), portzentaia hori %35eraino igotzen da lehenengo kasuan eta %53eraino bigarren kasuan.

7. grafikoa: Kudeaturiko diruaren bolumena, batez besteko adinaren arabera



Identifikaturiko hiru erakunde moten arteko desberdintasun garrantzitsuetatik, aipagarria da mota bakoitzaren formalizazio maila desberdina. Izan ere, jardueraren profesionaltasuna maila erakundearen formalizazio mailaren adierazletzat hartuz gero (horrek

8. grafikoa: Soldatapeko pertsonak, batez besteko adinaren arabera



eginkizunen identifikazioa eta lanen banaketa adierazten duen neurrian), esan behar da identifikaturiko hiru motak desberdinak direla.

Pertsonarik gazteenek osaturiko erakundeen kasuan (20 urtetik beherakoak), profesionaltasun mailak hiru aldiz txikiagoak dira, gehienbat pertsona helduagoek osaturiko erakundeen kasuan baino (30 urtetik gorakoak).

Horrela, bigarren erakunde motako %60ak soldatapeko langileak ditu, baina portzentaia hori %19ra baino ez da iristen, lehenengo kasuan. Halaber, erdiko bitartean portzentaia %33koa da, liberaturiko pertsonak dituzten erakundeei dagokienez.

Horrenbestez, esan daiteke nolabaiteko lotura dagoela kudeaturiko diru kantitatearen eta erakundearen formalizazio mailaren artean. Gainera, erakundearen neurriei lotutako hirugarren elementu bat ere kontuan hartu behar da: erakundearentzat lanen bat soldatarik gabe egiten duten pertsonen kopurua.


### 2.1.2.2. Jarduera

Erakundearen jarduera argien nabarmentzen den elementu bereizgarrietariko bat da. Horrela, pertsonarik gazteenek (20 urte baino gutxiago) *Heziketa* eta *sustapen kulturala* deritzen eremuetan garatzen dute euren jarduera ia osoa.

Aldiz, jarduerarik gehien pertsona helduenek edo espezializazio handiagoko jarduera eremuetan sartzeko moduko esperientzia maila duten pertsonak osaturiko erakundeetan dago (*Gizarte ekintza*, *Ingurumena eta Ekologia* edo *Enplegua eta laneratzea*).

9. grafikoa:

Lehentasunezko jarduera eremua, batez besteko adinaren arabera




2.1.2.3. *Jarduketaren eremu geografikoa*

Gazte intereseko erakundeen joera nagusia udalerrri mailan mugitzea da (adin talde guztietan, euren jarduera udalerrikoa baino eremu txikiagoan garatzen duten erakunde-en portzentaia %40tik gorakoa da). Joera hori nabarmenagoa da 20 urtetik beherako per-sonen adin taldean (%80).

30 urtetik gorako pertsonen osaturiko erakundeen taldean, aldiz, ugariagoak dira eu-ren jarduera probintziaren eremuan garatzen dutenak.

Hori azaltzeko, jarduketa eremuen desberdintasunak hartu behar dira aintzat; pertso-narik gazteenek osaturiko erakundeen kasuan, eremu hori gehienetan Heziketa da (astial-dia), eta helduenek osaturiko erakundeen kasuan, ostera, «bezeroak» udalerriz gaindiko eremuetan dituzten eremu espezializatuagoak.

10. grafikoa:  
Lehentasunezko eremu geografikoa, batez besteko adinaren arabera




2.1.2.4. *Talde onuradunak*

Halaber, lotura estua ikusten da partaideen adinaren eta jardueraren talde onuradu-nen artean. Horrela, partaideen batez besteko adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta joera handiagoa dago jarduera gazteen taldeetara bideratzeko.

Gehienbat 20 urtetik beherako pertsonen osaturiko hamar erakundetik ia seik haur-tzarora eta gazteen taldeetara bideratzen dute euren jarduera. Datu hori, gehienbat 30 urtetik gorako pertsonen osaturiko erakundeen kasuan, hamarretik bikoa da. Jarduera eremuen kasuan gertatzen den bezala, batez besteko adin handiagoko erakunde-en taldean talde onuradunen dibertsifikazio handiagoa dago.

11. grafikoa: Talde onuradunak, batez besteko adinaren arabera




2.1.2.5. Administrazioaren eskariak

Jardueraren, jarduketa eremuaren, talde onuradunen, erakundearen neurriaren eta abarren aldetik dauden desberdintasunak kontuan hartuta, zentzuzkoa da erakunde batzuek eta besteek administrazioari egindako eskabideak berdinak ez izatea.

Egin-eginean ere, gehienbat 30 urtetik beherako pertsonak osaturiko erakundeek administrazioari egindako eskari nagusiak baliabide ekonomikoetan eta azpiegituretan

12. grafikoa: Eskariak, batez besteko adinaren arabera





oinarritzen dira; gainerako erakundeetan, berriz, beste eskari batzuk ere egiten dira, esate baterako, epe luzerako akordio ekonomikoak finkatzea, kudeaketan parte hartzea edo baldintzarik gabeko laguntzak ematea.

Langileak liberatzeko laguntzen eskabideak gehienetan urriak dira, eta bitarteko erakundeek sarriago egiten dituzte (20 eta 30 urte bitarteko pertsonak dituztenak), profesionaltasun prozesua hasi duten erakundeak baitira.

Datuen adierazpen grafikoak orokorrean eta begiekin ikusteko moduan adierazten duenez, egoera nahiko homogeneoa da, gehienbat 20 urtetik beherako pertsonak osaturiko erakundeen multzoan; baina, aldiz, gainerako erakundeetan egoera heterogeneoa da. Beste era batera esateko, erakundeetan parte hartzen duten pertsonak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da erakundeen aniztasuna, aztertutako aldagaiei dago kienez (antolaketa, eskariak, etab.).

Ondoren datorren laburpen koadroan, adinari (azalpenerako aldagaitzat) lotutako joera nagusiak adierazita daude.

**7. koadroa:** Belaunaldi aldagaiaren laburpen koadroa

Aldagaia	Batez besteko adina zenbat eta txikiagoa...	Batez besteko adina zenbat eta handiagoa...
Erakundeen homogeneotasun maila	...erakunde aniztasun txikiagoa	...erakunde aniztasun eta dibertsitate handiagoa
Kudeaturiko diru kantitatea	...aurrekontu txikiagoa	...aurrekontu handiagoa
Soldatapeko pertsona kopurua	...soldatapeko pertsona gutxiago	...soldatapeko langile gehiago
Soldatarik ez duen pertsona kopurua	...soldatarik gabeko pertsona gehiago	...soldatarik gabeko pertsona gutxiago (boluntarioak kudeatzen dituzten erakunde handien kasuan izan ezik)
Jarduketaren eremua	...hezkuntzaren eta sustapen kulturalaren eremuan lan egiteko joera handiagoa	...eremu espezializatuen presentzia handiagoa
Jarduketaren eremu geografikoa	...udalerriz barrukoagoa	...udalerriz gairukoagoa
Talde onuraduna	...gazteagoa	...dibertsifikatuagoa
Administrazioaren eskariak	...baliabide beharizan handiagoa	...epe luzerako akordio ekonomikoaren eskari handiagoa

### 2.1.3. Partaidetzaren subjektu-objektu harremana

Saillapen irizpidetzat partaidetzaren subjektu aktiboaren eta horren objektuaren (talde onuraduna, beste modu batera esateko) arteko harremana ezartzearen garrantzia, hain zuzen ere, «gazte intereseko erakunde» kontzeptua maila eraginkorrera eraman ahal izatean oinarritzen da. Hasieran esan dugunez, interesa bi aldagaik zehazten dute: erakundeak garaturiko jarduera eta erakundeak gazteen azpi-kulturaren adierazpen plataformatzat duen izaera. Horren ondorioz, funtsezko bi elementuri erreparatu behar

diegu: jarduera nork garatzen duen (jardueraren subjektua) eta nork jasotzen duen (jardueraren objektua).

Bi aldagai horien konbinazioak erakundeen lau kategoriako tipologia eskaintzen du:

- Ekintzaren subjektutzat eta objektutzat gazteak dituzten erakundeak. Halako erakundeak gazteek osatzen dituzte eta gazteok euren errealitateari erantzuna emateko elkartzen dira. Horren adibide argia *gaztetxea* da, gazteen ekimez sortu eta horren jarduera ere talde horretara bideratzen baita. Kategoría honen barruan, euren jarduera baserri inguruan garatzen duten elkar-teak ere sar daitezke; izan ere, halako erakundeen barruan gehienetan tokiko bizitzako sektore desberdinen partaidetza egon arren, orokorrean gazteek ez dute elkartzeko beste aukerarik edukitzen, eta beraz, erakundeok estrategikoak dira.
- Ekintzaren subjektutzat gazteak dituzten erakundeak (objektuak ez dira gazteak). Gehienbat gazteek osaturiko erakundeak dira, baina horien jarduera era askotako eremuetara eta taldeetara bideratzen da. Hemen, lankidetzan, ingurumenean eta abarrean diharduten talde batzuk biltzen dira.
- Ekintzaren subjektutzat gazteak ez dituzten erakundeak, horien jardueraren jasotzailea gazteak direnean. Esate baterako, gazteen osasunari lotutako arazo- en laguntza eta prebentzio lanak garatzen dituzten elkar-teak. Halakoen barruan, gazteei zuzendutako programak dituzten gizarte ekintzako erakundeak sartzen dira (anorexia, drogamenpekotasunak, etab.).
- Ekintzaren subjektu edo objektu nagusitzat gazteak ez dituzten erakundeak. Talde honetan, irabazi asmorik gabeko sektoreko gainerako erakundeak sartzen dira.

Erakundeen lehenengo taldea gazteek sortu eta gazteentzat bideratuta dago. Horrenbestez, *erakunde estrategikoak* dira, elkartegintzaren arloko politika publikoaren ikuspegitik. Bigarren taldearen ezaugarri nagusia, berriz, garaturiko jardueren aniztasuna da eta, beraz, *interes orokorreko erakundeak* direla esan daiteke.

Hirugarren taldeak gazteriar eskaintza bat egiten dio, nahitaez gazteenak izan beharrik ez duten parametroetatik. Horrenbestez, *gazteriar zerbitzuak emateko erakundeak* direla esan daiteke. Kategoría honen barruan, batik bat enpleguaren eta laneratzearen eremuko erakundeak sartzen dira.


Azken taldea sailkapenetik kanpo gelditzen da, ez baitauka gazteen erreferentziarik, ez taldearen barne funtzionamenduan eta ez beraren jardueran.

Erakunde mota horiek ezin dira argi lotu jarduketa eremu zehatzetara, jarduketa eremu bakoitzeko jarduerak garatzeko modu asko baitago. Horrela, erakunde batek jarduteko duen moduaren arabera, erakunde hori estrategikoa, orokorra edo zerbitzuak emateko izango da.

Nolanahi ere, hezkuntza lanetan diharduten erakundeak eta sustapen kulturean jarduten dutenen erdiak erakunde estrategikoen multzoan daude. Beste alde batetik, ingurumenaren nahiz ekologiarren eta lankidetzaren eremuan diharduten erakunderik gehienak orokorrak dira, eta enpleguan eta laneratzean jarduten dutenak gehienetan zerbitzuak emateko erakundeak dira.


Halaber, sailkapen hau egiteko denboraren joanarekin aldagarria izan daitekeen informazioa erabili dela kontuan hartuta (esate baterako, programen talde onuradun nagusiak), erakundeek sailkapen irizpide horien arabera orain duten banaketaren garrantzia erlatibizatu egin behar da, sailkapen hori denborarekin aldatu egin daitekeelako. Hala eta guztiz ere, sailkapenerako irizpidea ez da aldatuko, zalantzarik gabe tresna oso interesgarria baita elkartze egitura hobeto ezagutzeko. Kategorietan aztertutako erakundeen oraingo banaketa ondoren adierazitakoa da.

13. grafikoa: Banaketa, subjektu-objektu aldagaiaren arabera



Horrela, gazte intereseko erakundeek partaidetzaren subjektuaren eta objektuaren arteko loturari dagokionez duten mapa honelaxe marraz daiteke:

1. eskema: Erakundeen eskema, subjektu-objektuaren arabera



## 2.2. HAUSTURA-ARDATZAK

Haustura-ardatzak lerro jarraituak eta irudimenezkoak dira, eta, horietatik, gazte intereseko erakundeen multzoa koka daiteke. Horrenbestez, tresna analitiko onak dira, eta gainera, subjektu bakoitza (erakundea) irudimenezko jarraitasun batean kokatuta, horren jarduerara hobeto ulertzeko eta erakunde talde edo mota idealak ezartzeko aukera ematen dute.

Halako lerroen muturrean, joerarik muturrenakoak dituzten erakundeak daude, kasu bakoitzean aipaturiko aldagaiari dagokionez. Orain arte, hiru apurtze-lerro identifikatu dira:

- ▶ Herria-Hiria.
- ▶ Konfesionala-Ez konfesionala.
- ▶ Enpresa-Elkartea.

Ondoren, apurtze-lerro horiek EAEko gazte intereseko erakundeen multzoan duten garrantzia aztertzen da.

### 2.2.1. Herria-Hiria ardatza

*Herria* eta *Hiria* kategoriak azalpen gaitasun handikotzat hartzeko beharrezana ez da arrazoi kuantitatiboen eraginezkoa. Izan ere, biztanleria bat noiz den herrikoa eta noiz ez ezartzeko erreferentziatzat 5.000 biztanleko kopurua hartuz gero, esan beharko dugu EAEko gazte intereseko erakundeen multzoaren ezaugarri nagusienetariko bat hiri izaera nagusia dela.

Egin-eginean ere, erakundeen egoitza sozialak hirietan daude (erakundeen %10,2ak baino ez baitauka egoitza soziala 5.000 biztanletik beherako herrietan); gainera, erakunderik gehienen jarduera (hamarretik bederatzi) udalerrian edo toki mailan dago (auzoa, barrutia...).

Irizpide kuantitatiboak aintzat hartuta, aipaturiko ardatza desagertu egingo litzateke, ia-ia ez bailuke muturretari bat edukiko (herrikoa). Panorama oso polarizatua dago, eta, bertan, erakunde guztien %10,2 herrietan kokaturik daude eta %78 hirietan, hau da, 20.000 biztanletik gorako tokietan (ikus 1. kapitulua).

Hala eta guztiz ere, ikuspegi kualitatibotik desberdintasun garrantzitsuak ikusten dira herrien eta hirien artean, eta desberdintasun horiek aintzat hartu beharrekoak dira, batez ere kontuan hartuta EAEko 225.000 pertsona halako udalerrietan bizi direla (37.000 Araban; 112.000 Bizkaian eta 75.000 Gipuzkoan).

Ikuspegi kuantitatibotik, ez gara biztanle kopuru garrantzitsu bati buruz hitz egiten ari (EAEko ia %11). 15 eta 30 urte bitarteko pertsonak soilik kontuan hartuta ere, portzentiaia hori are gehiago murrizten da, herri txikien inguruko jaiotza tasa txikiagoen eta hirietarako migrazio mugimenduen eraginez. Bistan dago ikuspegi honetatik bereizketa hori ez dela garrantzitsua. Hala eta guztiz ere, herri txikietatik lan egiten duten elkarten beharrezan ezagutzea oso interesgarria da, honako bi arrazoi hauegatik:

- ▶ Gainontzeko elkarrekin guztiz bereizten dituzten ezaugarriak dituztelako.
- ▶ Herri txikien garapenera ikuspegitik oso garrantzitsua delako halako herrieta-ko elkarte ekimenak sustatzeko eta bultzatzeko modua ezagutzea. Hori EAEko

II. Gazte Planean ere jasota dago, zeharka eta maila jakinen batean, jardueretariko batean (adibidez, 5.5.5. jarduerak hauxe proposatzen du: *Kulturarako aukera ematea baztertuen dauden eremu geografikoetan eta taldeetan*. Horren arabera, herri txikien eremua bazterturiko eremu geografikoa da).

#### 2.2.1.1. Masa kritikorik eza

Herri txikien eremuaren eta hiri eremuaren arteko desberdintasuna ezartzen duen elementu nagusia *elkartzeko benetako aukera* da. Egin-eginean ere, elkartzeko aukera egitura mailako baldintza batek gogor baldintzatzen du: biztanle kopuru txikia.

Horrekin batera, batetik, 15 edo 16 urte eta 25 urte bitarteko biztanle kopuru txikia, institutua amaitzean ikasleak sarritan neurri handiagoko herrietara joan behar izaten baitira, ikasketak jarraitzeko; bestetik, gazteek aisialdiko ohiko jarduera neurri handiagoko herrietan garatzeko duten joera.

Horrenbestez, jende oso gaztea (dagoenean) eta jende oso zaharra dago. Beraz, ez dago beharrezko masa kritikorik, elkartze mugimendu indartsurik sortzeko: hain zuzen ere, 15 eta 30 urte bitarteko gazteen taldea (gogoratu egin behar da gazte intereseko erakundeetan soldatarik gabe parte hartzen duten pertsonen %78 izatez 30 urtetik beharera dela).

Hortik, ondorio argia ateratzen da: gazte intereseko erakundearen kontzeptua gizarte errealtate zehatzetara egokitu beharra. Hau da, hiri eremu batean gazte intereseko erakundetzat hartzen ez dena eta, beraz, gazte politiken objektu ez dena, agian herri txikien eremuan halako erakundea eta gazte politiken objektua izan daiteke.

#### 2.2.1.2. «Aurrez-aurreko» harremanen nagusitasuna

Herri txikien inguruko beste ezaugarri bat «aurrez-aurreko» harremanen nagusitasuna da. Halako harremanetan, adiskidetasunak garrantzia handia dauka; gizabanakoa gizarteratzeko inguruan, ezartzen diren harreman ia-ia guztiek nolabaiteko osagai emozionala dute. Denek ezagutzen dute elkar.

Testuinguru honetan zaila da elementu afektiboa baztertzea, baita nolabaiteko urruntasuna eta formalizazio behar duten harremanetan ere. Horixe gertatzen da toki erakunde edo elkarten eta Udaletxearen arteko harremanetan. Horrenbestez, bi aldeetatik elkarrizketa mantentzen duten pertsonen profila beti garrantzitsua bada, neurri txiki-ko eremuetan garatzen diren harremanen kasuan hori funtsezkoa da. Horrela, halako eremu txikietan arrisku handiagoa dago elkarrizketa txar batek proiektuak eta ekimenak hondatzeko.

Beste alde batetik, inguruak eskaintzen dituen jarduketa aukerak mugatuagoak dira, herri handietan baino. Hori, berriz, honako bi faktore hauen eraginezkoa da: batetik, elkartze jardueren eskaintza anitza egiteko beharrezkoa den masa kritikoaren urritasuna; bestetik, biztanleen interesen aniztasun txikiagoa. Horrenbestez, halako eremuetan jarduerak koordinatzeko beharrian handiagoa dago (administrazioaren eta erakundearen artean, baita erakundearen euren artean ere), «eremu-lapurtzerik» edo esku-hartzerik ez egoteko.

### 2.2.2. Konfesionala-Ez konfesionala ardatza

Erakundeak konfesionaltasunaren arabeko parametroetan kokatzen dituen ardatzak ez dauka aurreko ardatzak bezain izaera jarraiturik. Egin-eginean ere, herri txikien eremuan bizitzea neurri handiagoan edo txikiagoan gertatzeko moduko ezaugarria da, baina erakunde bat konfesionaltzat edo ez konfesionaltzat sailkatzea erakunde horrek bere buruari buruz duen pertzepzioaren arabekoa da.

Horrenbestez, halako pertzepzio irizpideetan oinarrituz, hamar erakundetik bik nola-baiteko izaera konfesionala dutela onartzen dute, finkaturik dituzten helburuak kontuan hartuz. Kasurik gehienetan, jarduera eremu nagusitzat hezkuntza duten erakundeak dira.

Oro har, konfesional-ez konfesional ardatza ez da apurtze-ardatz argia, gazte intereseko erakundeei dagokienez. Alde batetik, konfesionalak omen diren erakunde askoren iritziz sinesmen erlijiosoei lotutako helburuek ez dutelako lehenetsirik.

Horrela, antzekotasun handia dago planteaturiko helburuen eta horiek lortzeko garaturiko metodologiaren artean, konfesionala izateak edo ez izateak bereizten dituen antzeko erakunde askoren kasuan.

Euren jarduera ikuspegi konfesionaletik garatzen duten erakundeetan ezkutaturiko irudi profesionalak egoteari dagokionez, ostera, badago desberdintasunik. Abadearen irudia da eta horrek, sarritan, soldatapeko pertsonaren lanak egien ditu, parrokiako elkar-terako, baina hori ez da onartzen. Horrenbestez, erakunde konfesionaletan gainerakoe-tan baino elkarrizketa gaitasun handiagoa dagoela esan daiteke, irudi erdi-profesional hori ez ezik erakundea abalatzten duen instituzio bat ere badagoelako (Eliza).

### 2.2.3. Enpresa-Elkartea ardatza

Enpresa-Elkartea ardatzak ez dauka presentzia handirik, gazteen irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeetan. Elkarreak merkataritza formula bihurtzea estu lotuta dago hirugarren sektoreko eremu batzuetako profesionaltasun prozesu handiari (esate baterako, gizarte ekintzan eta hezkuntzan).

Hala eta guztiz ere, gazteen irabazi asmorik gabeko sektorea joera horretatik oso urrun bizi da, batik bat erakunde estrategikoen eta erakunde orokorren kasuan.

Nolanahi ere, eremu batzuetan ikusitako joerak kontuan hartuta, ardatz honek gero eta garrantzi handiagoa izango du gazteen irabazi asmorik gabeko sektorean. Egin-eginean ere, gaur egun lehiakortasun loturak sortzen ari dira, forma juridiko desberdineko erakundeen artean.



**3**

**Erakundeen  
antolaketa eta  
funtzionamendua**





Kapitulu honetan gazte intereseko erakundeen antolaketa eta funtzionamendua aztertzen da, horien alderdi nagusietan oinarrituz: *forma juridikoa, giza baliabideak nahiz baliabide materialak, finantziario bideak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaren maila*. Erakundeen azterketa egitea lagungarria da gazteen partaidetzako lehentasunezko eremuak deskribatzeko eta beste erakunde mota batzuekiko desberdintasunak ezartzeko (azken horiek ere Hirugarren Sektorekoak).

### 3.1. FORMA JURIDIKO TRADIZIONALEN NAGUSITASUNA GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEETAN

Hirugarren Sektoreko erakundeen artean gertatzen ari den profesional bihurtzeko prozesuak (gehienbat euren jarduera Gizarte Ekintzaren eta Kulturaren arloan garatzen duten erakundeetan eragina duen prozesua) dirudienez oraingo ez du eraginik izan gazte intereseko erakundeetan.

Hirugarren Sektoreko erakundeak profesional bihurtzearen adierazpen nagusienetarikoa euren forma juridikoaren konplexutasuna da. Trantsizio demokratikoaren urteetatik gaur egunera, dibertsifikazioa egon da jatorrizko forma hegemonikotik (*irabazi asmorik gabeko elkarteak*) oraingo erakunde multzo handi eta anitzetaino (*elkarteak, federazioak, fundazioak, sozietate kooperatiboak, ekimen sozialeko kooperatibak, interes sozialeko kooperatibak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, etab.*).

Hala eta guztiz ere, gazte intereseko erakundeen azpi-sektoreak ez du halako eragin zuzenik eduki, irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeen multzoan eragina duen prozesuari (profesional bihurtzea) dagokionez. Horrenbestez, ez da forma juridikoen dibertsifikaziorik egon, eta, horren ondorioz, eredu tradizionala (irabazi asmorik gabeko elkarteak) argi nagusitzen da. Gazte intereseko erakunde guztien %92 inguru irabazi asmorik gabeko elkarteak dira.

### 3.2. GIZA BALIABIDEAK: PERTSONAK

Gazte intereseko erakundeetako partaidetzaren profil eta maila desberdinen deskribapena eztabaida zabalago baten erdian kokatzen da, eta eztabaida hori gizarte partaidetzako moduetan izandako aldaketei buruzkoa da. Halako aldaketen azterketan dauden ikuspegi

desberdinek termino aniztasun handia eskaintzen dute eta horien inguruan oraingoz ez dago adostasun garbirik. Horrela, partaidetza aztertzean hauxe aipatu behar da: *militanteak, boluntarioak, kideak, bazkideak, liberatuak, zaleak, etab.*

Hala eta guztiz ere, ikuspegi analitikotik begiratuta, partaidetza modu desberdinak izendatzeko dauden terminoen eta kontzeptuen aniztasun handiak nahastea sortzen du, argitasuna eman beharrean. Eta hori, berriz, bi arrazoiengatik: batetik, karga ideologiko handiko edo, behintzat, balorazio karga handiko (*militanteak*) terminoak dira; bestalde, ez dira kategoria baztertzailerak eta, horrela, erakunde batean dabilen pertsona batek profil desberdinak eduki ditzake aldi berean (*kidea* eta *boluntarioa*).

Lan honetan elkarrekiko baztertzailerak diren kategoriak erabiltzea aukeratu dugu, erakundeetako partaidetza modu nagusi bien azterketa zorrotza ahalbidetzeko: *soldatapekoa* eta *soldatarik gabea*. Lehenengo kasuan ez dago nahasterik. Erakundeak kontrataturiko pertsonak dira eta soldata bat jasotzen dute. Profesionalak dira, langile liberatuak. Aldiz, soldatarik gabeko formaren barruan, lehen aipaturiko profil asko sartzen dira, eta beraz, horiek guztiak batera aztertzean, horren aberastasunaren eta balio soziologiko handiaren zati bat galduko da.

### 3.2.1. Soldatapeko langileak

Lehenengo atal honetan, erakundeekin gehienbat harreman ekonomikoa duten pertsonak biltzen dira. Langile liberatuekin batera, azterketa honetan erakundeetan praktikak egiten dituzten pertsonak ere sartu dira.

Soldatapeko pertsonen presentzia ez da orokorra, gazte intereseko erakundeen multzoan. Erakundeen %61ek ez du soldatapeko langilerik; gainerako %40ak, berriz, kontrataturiko profesionalak dituela dio, eta erakundeen %66an bost pertsona baino gutxiago dabil lanean. Soldatapeko langileak dituzten erakundeen multzoan, %34ko proportzio txiki batek baino ez dauka bost langile baino gehiago.

Lan honetako aurreko kapituluaren jardueraren eremuei dagokienez egin den zehazpen berria kontuan hartuta ikusten denez, erakundeetako langile profesionalak gehienbat

#### 8. koadroa: Soldatapeko langileak, jardueraren eremuen arabera


Soldatapeko langileak, jardueraren eremuen arabera (%)		
Jardueraren eremua	Bai	Ez
Hezkuntza	28,4	67,0
Gizarte ekintza	36,5	2,7
Sustapen kulturala	12,2	10,7
Garapenerako lankidetzak	9,5	0,9
Enplegua eta laneratzea	1,4	3,6
Ingurumena eta ekologia	2,7	7,1
Harreman eremua	1,4	4,5
Beste batzuk	8,1	2,7
Guztira	100	100

Iturria: Geuk landuta.

Gizarte Ekintza eta Hezkuntza eremuei lotutako erakundeetan biltzen da. Aldiz, profesional gutxieneko erakundeen jarduera *Enplegua eta laneratzea* eta *Harreman eremua* deritzen arloetarantz bideraturik dago.

Soldatapeko langileak dituzten erakundeak aztertzeko orduan, aldagairik adierazgarriena udalerrriaren biztanle kopurua da. Horrela, langile liberatuak dituzten erakunde guztien artean, hamarretik zortzi hiriburuetan daude. Horrenbestez, langileak liberatze-ko gaitasuna duten erakunderik gehienak hiri handietan daude, bertako jarduera handiagoa baita.

14. grafikoa: Soldatapeko langileak, udalerriko biztanle kopuruaren arabera



Euren langileak dituzten erakunde guztien %60ak egun osoko lanaldian kontratatuturik dauzka langileak eta horietatik %26ak, berriz, egun erdiko kontratuak egiten ditu. Erakundeen %11n, langile liberatuak asteroko berrogei ordu baino gehiago egiten dute lan, eta beraz, ehun erakundetik hamarrean aparteko orduak sartzen dira. Kasu horietan lanaren bolumena baliabide erabilgarrien bolumena baino askoz ere handiagoa da.

9. koadroa: Soldatapeko langileen dedikazioa

Soldatapeko langileen dedikazioa		
Asteroko orduak	Zenbatekoa	%
20 ordu edo gutxiago	19	25,7
21 eta 40 ordu bitartean	44	59,5
40 ordu baino gehiago	8	10,8
Ed/Ee	3	4,1
Guztira	74	100

Iturria: Geuk landuta.

Gazte intereseko erakunde azpi-sektorean langile liberatuak aurkitzea ohikoa izan ez arren, halakorik daudenean dedikazio maila eta intentsitatea handia izaten da. Hortik ateratzen denez, halako erakundeek ez dute kontrataziorako baliabideak lortzeko aukera

handirik, eta, beraz, langilerian sartu ondoren, langile liberatuek lan bolumen handia izaten dute. Halako egoeretan bokazioari lotutako beste faktore batzuk ere parte hartzen dute eta halakoetan berriro ere erakundeen partaidetzaren profilak nahasten dira.

Gehiegizko dedikazio hori azaltzeko, batetik, partaidetzaren bi profil gainjartzea aipa daiteke: profesionala eta boluntarioa edo militantea. Langile batzuek, sarritan, euren lanaldia amaitu ondoren lanean jarraitzen dute modu altruistan, hau da, dirurik jaso gabe. Beste faktore batzuekin batera, hori honako honek azaltzen du: langile liberatuek erakundeak osatzen duten pertsonen multzoari nolabaiteko altruismoa erakutsi beharra, lan dedikaziotik aparte, hori estu lotuta egoten baita erakundearen irabazi asmorik gabeko izarearekin.

### 3.2.1.1. *Sorturiko enplegua*

Hirugarren Sektorea dimentsionatzeko helburuz egindako lanak eta ikerketak bat datoz horiek enplegua sortzeko duten gaitasuna nabarmentzeko orduan. Datu eskuragarriak aintzat hartuta, irabazi asmorik gabeko jarduerak (Gizarte Ekintzaren azpi-sektorean bakarrik) 225.000 enplegu inguru sortu zituen Estatu osoan 1995ean, egun osoko lanaldiko enpleguak gainera (nekazaritzakoa ez den enplegu osoaren %2,1), eta horietatik 151.000 ordaindutako enpleguak ziren<sup>12</sup>. Ikerketa horrek eta beste batzuek eskainitako garrantzia kontuan hartuta, hirugarren sektorean edo irabazi asmorik gabeko sektorean bildutako erakundeak *Enplegu Meatoki Berriztat (EMB)* hartzen dira.

Lan honen eremuan sortutako enplegua aztertzean ikusten denez (EAEko gazte intereseko erakundeen azpi-sektorea), hori sustatu egiten da enplegua sortzeko. Soldatapeko langileak dituzten 74 erakundeek 778 lanpostu sortu dituzte eta horietatik %64 emakumeek hartu dituzte, eta gainerako %36 gizonak. Datu hori unibertsoaren multzora extrapolatzean kalkulaturikoaren arabera, EAEko gazte intereseko erakundeen multzoan 3.614 pertsona dabilta lanean; horietatik 2.313 emakumeak dira eta gainerako 1.301 gizonak.

### 3.2.1.2. *Gazte intereseko erakundeak, laneratzeko bidetzat*

Praktika edo ikaskuntza aldia ezinbesteko elementua da, gazteen laneratzeko prozesua errazteko. Orain arte, praktikak sektore pribatuan (enpresak) garatu dira. Hala eta guztiz ere, irabazi asmorik gabeko sektoreak azken urteotan hartutako garrantzi handiak agerian jarri du irabazi asmorik gabeko erakundeak oso egokiak direla praktikak egiteko.

Praktikak irabazi asmorik gabeko erakundeetan egitea eragiten duten faktoreak bi dira: azpi-kontratazioaren gorakada eta erakundeen izaera ezformala. Alde batetik, erakunde publikoek zerbitzu gehiago azpi-kontratatzeko dizkiote irabazi asmorik gabeko erakundeak, eta horrela, azken horiek diru-sarrerara iturri garrantzitsua lortzen dute, eta horrenbestez, euren baliabideak nahiz egiturak finkatu eta hobetu egiten dituzte. Bigarrenez, irabazi asmorik gabeko erakundeek enpresa pribatu tradizionalakiko duten formalizazio maila txikiagoak erraztu egiten du praktiketan dabilzan pertsonen integra-

<sup>12</sup> RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio: *El Sector No Lucrativo en España*, BBV Fundazioa. Bilbo. 2000.

zioa eta ikaskuntza, horiek denbora laburragoan garatzen baitute lan kopuru handiagoa, eta kasu batzuetan, gainera, nolabaiteko ardurak ere hartzen dituzte erakundeen jardueran.

Hala eta guztiz ere, partaidetza profilak (*profesionalak eta boluntarioak edo militanteak*) ondo mugaturik ez dituzten erakundeetan, profil berriaren sorrerak nahastea areagotzen du, eta horrela, oraindik ere gehiago nahasten da pertsonen arteko lanen mugaketa. Segurutzat, gazte intereseko erakundeen formalizazio maila urriaren ondorioz, praktiken garrantzia txikia da.

Erakunde horietatik %20an baino gutxiagotan, praktikak egiten ari diren pertsonak daude. Halako erakundeetan praktikak egiten dituzten pertsonen guztizko kopurua 131koa da; horietatik 180 emakumeak dira eta gainerako 120 gizonak. Orain ere, datu hori unibertsoaren multzo osora extrapolatzean kalkulatu denez, EAEko gazte intereseko erakundeetan 608 pertsona dabilta praktikak egiten, eta horietatik emakumeak dira gehien (486) eta gizonak gutxien (122).

#### 10. koadroa: Praktikak egiten ari diren pertsonak, jarduera eremuen arabera

Pertsonak praktikan dituzten erakundeak, jarduera eremuen arabera (%)		
Jarduera eremuak	Bai	Ez
Hezkuntza	34,2	56,1
Gizarte ekintza	52,6	6,8
Sustapen kulturala	7,9	12,2
Garapenerako lankidetzak	5,3	4,1
Enplegua eta laneratzea	0	3,4
Ingurumena eta ekologia	0	6,8
Harreman eremua	0	4,1
Beste batzuk	0	0
Guztira	100	100

*Iturria:* Geuk landuta.

Praktikak egiteko lehentasunezko jarduera eremuak bat datoz profesional kopuru handienekin, eta garrantziaren arabera honako hauek dira: *Gizarte Ekintza eta Hezkuntza*.

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen kasuan (gehienbat *gizarte ekintza, hezkuntza eta kultura* eremuetan bilduta), horiek laneratzeko bidetzat duten garrantziak enplegua sortzeko edo praktikak garatzeko duten gaitasuna gaitzen du. Batzuetan, halako erakundeek gazteak profesional bihurtzeko edo enplegua sortzeko prozesuetan parte hartzen dute. Irabazi asmorik gabeko erakundeen formalizazio maila urria eta halakoak sortzeko erraztasuna kontuan hartuta, errazagoa da horiek tresnatzat erabiltzea, eta halakoetan, lotura estuagoa izaten dute enpresa izaerarekin izaera altruistarekin baino. Egin-eginean ere, azken urteotan, halako erakundeen kopuruak gorakada handia izan du; horitariko batzuen helburua euren kideentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea da, erakunde publikoekin kontratuak eginez.

Prozesu hori gehienbat udalerritxiki gertatzen da, horietan urriak baitira gizarte ekintzari lotutako zerbitzuak kudeatzeko baliabideak. Horrela, titulazioa lortu berria

duen gazteek sarritan egitura bakunetan euskarriz eta arriskuak minimizatuz hasten dute autoenpleguaren prozesua. Askotan, pertsona horiek udal arduradunen lankidetzaz izaten dute, arduradunon ustez tituludun gazteak baliabide oso erabilgarriak baitira, zerbitzuak azpi-kontratazioaren bitartez kudeatzeko.


Horrela eraturiko erakunde berriek galdu egiten dute elkartzeko izaera eta kanpoko proiektzioa nahiz proiektzio integratzailea, eta erakunde endogeno bihurtzen dira; halakoetan, kideen lanpostuak mantentzea lehentasunezkoa da eta horrek guztiz baldintzatzen du euren jardura.

### 3.2.2. Soldatapekoak ez diren langileak

Gazte intereseko erakundeetan soldatapekoak ez diren langileen presentzia oso garrantzitsua da. Hamar erakundetik batek soilik esaten du ez duela partaidetza profil hori.

Gazte intereseko erakundeetan ibili eta soldatapekoak ez diren profilen kopuru osoa kontuan hartuta, aztertutako 186 erakundeetan soldatapekoak ez diren 25.653 pertsona dabilta, eta horietatik %53 emakumeak dira eta gainerako %47 gizonak. Emakume kopuruak gizon kopuruari dagokionez duen nagusitasuna soldatapekoak diren eta ez diren langileen artean gertatu arren, nagusitasun hori argiagoa da lehenengo kasuan.

15. grafikoa: Sexuaren araberako banaketaren konparazioa



Datua unibertsoaren multzo osora extrapolatzean kalkulatzen denez, 119.162 pertsona inguruk soldatarik jaso gabe hartzen dute parte, EAEko gazte intereseko erakundeetan; horietatik 63.155 emakumeak dira eta 56.007 gizonak. Erakundeetan soldatarik jaso gabe parte hartzen duten 120.000 pertsonak EAEko gazte multzo osoarekin konparatuz gero (15 eta 30 urte bitartekoak, milioi erdi pertsona baino gehiago) ikusten da gazteek halako erakundeetan duten partaidetzaren portzentaia %24koa dela.

**11. koadroa:** Soldatapekoak ez diren langileek erakundeetan duten presentzia

Pertsona kopurua	Zenbatekoa	%
10 lagun edo gutxiago	32	17,2
11 eta 25 lagun bitartean	46	24,7
26 eta 50 lagun bitartean	23	14,4
51 eta 100 lagun bitartean	33	17,7
100 gora lagun	30	16,1
Ez daukate soldatapekoak ez diren langilerik Ed/Ee	16	8,6
	6	3,2
Guztira erakundeak	186	100

*Iturria:* Geuk landuta.

Halaber, soldatapeko langileen intentsitatea eta dedikazioa modu desberdinean banaturik dago erakundeen multzoan. Horien %42ak dioenez, soldatapekoak ez diren 26 pertsona baino gutxiago dauka. Era berean, erakunde guztien %16ak baino gehiagok esandakoaren arabera, modu horretan parte hartzen duten 100 pertsona baino gehiago dute. Erakundeek soldatapekoak ez diren langileek astero bertan sartutako ordu kopuruari buruz galdetzean ikusten denez, partaidetza profil hori duten erakunde guztietatik %50 baino gehiagoren kasuan, dedikazioaren batez besteko denbora asteroko 6 ordutik beherakoa da.

**12. koadroa:** Soldatapekoak ez diren langileen dedikazioa

Orduak astean	Zenbatekoa	%
5 ordu edo gutxiago	91	50,6
6 eta 10 bitartean	47	26,1
11 eta 15 bitartean	7	3,9
16 eta 20 bitartean	6	3,3
20tik gora	8	4,4
Ed/Ee	21	11,7
Guztira erakundeak	180	100

*Iturria:* Geuk landuta.

**3.2.2.1. Soldatapekoak ez diren langileen adina**

Gazte intereseko erakundeak osatzen dituzten pertsonen adina aldagarria da, pertsona horiek soldatapekoak izatearen ala ez izatearen arabera. Horrela, langile liberatuak dituzten 74 erakundeen kasuan, horietatik %93an profesionalen adina 19 eta 40 urte bitartekoa da. Joera hori soldatapekoak ez diren langileen kasuan ere badago, kasu guztien %80an profil horren batez besteko adina bitarte horretakoa baita.

Hori guztia aztertzean ikusten denez, adin handieneko bitartean kasuan ez dago desberdintasun adierazgarririk bi partaidetza profilen artean: soldatapeko langileen kasuan, erakundeen %4,1ean adinaren batez bestekoa 40 urtetik gorakoa da; soldatapekoak ez diren langileak dituztenen kasuan, portzentaia hori erakundeen %5,6koa da. Hala eta guztiz

ere, eskalaren beheko aldeetan desberdintasun garrantzitsuak ikusten dira. Soldatapeko langileak dituzten erakundeen %1,4an (kasu bakarra) adinaren batez bestekoa 19 urtetik beherakoa da. Soldatapekoak ez diren langileetan %12koa da.

13. koadroa: Soldatapekoak diren eta ez diren langileek adinaren arabera duten banaketa


Entitateetako langileen batez besteko adina				
Adin Taldeak	Soldatapekoak		Ez-soldatapekoak	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
18 edo gutxiago	1	1,4	21	11,7
19 eta 30 bitartean	39	52,7	120	66,7
31 eta 40 bitartean	30	40,5	24	13,3
41 eta 50 bitartean	2	2,7	5	2,8
50etik gora	1	1,4	5	2,8
Ed/Ee	1	1,4	5	2,8
Guztira	74	100	180	100

Iturria: Geuk landuta.

Adin bitarte bi kontuan hartuta ikusten denez (30 urtetik beherakoa eta gorakoa), desberdintasun aipagarriak daude, gazte erakundeen osaketari dagokionez. Gorabehera horiek, berriz, lagungarriak dira erakundeok osatzen dituzten pertsonen bilakaera deskribatzeko.

Portzentaia adierazgarri batean, soldatapeko langileak dituzten erakundeen %45aren eta erakunde guztien %18aren kasuan, eguneroko jardueraren kudeaketa *gaztetzat* hartutako

16 grafikoa: Soldatapeko eta ez-soldatapeko langileen adinen arabera duten banaketa konparatiboa





adin taldearen barruan sartzen ez diren pertsona nagusiek egiten dute. Erakundeen eguneroko kudeaketa langile liberatuek egiten dutenez (lanen nahiz eginkizunen pila-keta eta informazioaren kontrola), errazagoa da langile liberatuek eragin handia edukitzea, erabakiak hartzeko prozesutan. Horrela, gazte intereseko erakundeen %18ak pertsona nagusien eragin handia dute, edo nagusiok erakunde horiek zuzentzen dituzte.

### 3.2.2.2. Iraunkortasuna erakundeetan

Oro har, soldatapekoak diren eta ez diren pertsonak antzeko denboran irauten dute erakundeetan. Lehenengo kasuan, erakunde guztien %42ak dioenez, langile liberatuek 3 eta 5 urte bitartean egiten dute erakundeetan; boluntarioak baino ez dituzten erakundeetan kasuan, berriz, aldi horretarako erakundeen proportzioak puntu bateko gorakada baino ez dauka, eta %43koa da.

Iraunkortasun denborak gora egin ahala, desberdintasunak apur bat areagotzen dira. Horrela, eskalako hurrengo aldirako, langile liberatuak dituzten erakundeen %24ak dioenez, langileak 6 eta 10 urte bitartean gelditzen dira erakundeetan. Datu horrek gorakada nabaria dauka, langile liberaturik gabeko erakundeetan kasuan, denbora aldi horretarako portzentaia %30ekoa baita.

#### 14. koadroa: Erakundeetan Iraunkortasunaren banaketa konparatiboa


Erakundeetan gelditzeko batez besteko denbora				
Iraunkortasuna urteetan	Soldatapekoak		Ez-soldatapekoak	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
2 urte edo gutxiago	17	23,0	20	11,1
3tik 5 bitartean	31	41,9	77	42,8
6tik 10 bitartean	18	24,3	54	30,0
10 urte baino gehiago	7	9,5	11	6,1
Ed/Ee	1	1,4	18	10,0
Guztira erakundeak	74	100	180	100

Iturria: Geuk landuta.

Belaunaldi truke handiegia oso arazotsua da erakundeentzat, oztopatu egiten baitu ezagupenen jakinarazpena, eta hori funtsezkoa da lanen nahiz eginkizunen garapen egokirako; eta, gainera, esperientzia praktikoaren pilaketa eragozten du. Horrenbestez, beharrezkoa da erakundeetako taldeak osatzen dituzten pertsonak nolabaiteko iraunkortasuna edukitzea erakundeotan.

Kasu guztien %23an, erakundeetako langileen iraunkortasuna hiru urtetik beherakoa da, eta beraz, gehiegizko trukea ikusten da profesionalen taldeetan eta horrek eragin zuzena dauka elkarrearen egonkortasunean. Halaber, langile liberatuen etengabeko berrikuntza prozesuan, sarritan esfortzu handiegia egin behar da, langile berri horiek guztiak sartzearen eraginez.

17. grafikoa: Iraunkortasunaren banaketa konparatiboa




### 3.3. GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEETAKO PARTAIDETZA PROFILAK

Azterturiko informazioan oinarrituz, gutxi gorabehera ikerturiko partaidetza profil bien ezaugarri orokorrak ezartzen dira.

- *Soldatapeko langileen profila.* gazte intereseko erakundeetan lan egiten duten pertsonarik gehienak 19 eta 40 urte bitarteko emakumeak dira, eta egun osoko lanaldian dihardute, honako honetara bideraturik dauden irabazi asmorik gabeko elkarteetan: gizarte ekintza, kultura eta aisialdia. Eta elkarteok hiri handietan kokaturik egoten dira. Langile horiek hiru eta bost urte bitartean egoten dira erakundeetan, lana aldatu baino lehen.
- *Soldatapekoak ez diren langileen profila.* Boluntarioak emakume eta gizon gazteak izaten dira, hiri handietan bizi direnak. Hiru eta bost urte bitartean egoten

#### 2. eskema: Partaidetza profilen laburpena



dira irabazi asmorik gabeko erakundeetan eta, batez beste, astero bost orduko jarduera egiten dute.<sup>13</sup>

### 3.4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Atal honetan, gazte intereseko erakundeen baliabide ekonomikoen deskribapena egin dugu, bi aldagai hauetan oinarrituz: *kudeaturiko baliabide ekonomikoen bolumena eta finantziario bideak*. Azken atalean jasotako datuetan oinarrituz, erakundeek administrazioarekiko duten menpekotasun ekonomikoaren maila eta horrek euren jarduerarako dituen ondorioak aztertuko ditugu.

#### 3.4.1. Kudeaturiko baliabideen bolumena

Gazte erakundeen artean hamarretik sei urtero sei milioi pezeta baino gutxiago kudeatzen du. 2001. urtean, halako erakundeen %32,3ak milioi bat pezeta baino gutxiago kudeatu zuen eta %28,5ak 1 eta 5 milioi bitartean kudeatu zituen. Eskalaren gehieneko balioetan ikusten denez, erakunde guztien %5,4ak baino ez zuen kudeatu 100 milioi pezeta baino gehiago, 2001ean.

15. koadroa: Gestionatutako diru kopurua

Aurrekontua milioietan	2000. urtea		2001. urtea	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Milioi bat baino gutxiago	59	31,7	60	32,3
1 eta 5 bitartean	57	30,6	53	28,5
6 eta 10 bitartean	16	8,6	17	9,1
11 eta 20 bitartean	14	7,5	11	5,9
21 eta 50 bitartean	6	3,2	9	4,8
51 eta 100 bitartean	7	3,8	5	2,7
100 baino gehiago	12	6,5	10	5,4
Ed/Ee	15	8,1	21	11,3
Guztira erakundeak	186	100	186	100

Iturria: Geuk landuta.


Bitarteak segmentu handiagoetan biltzean, hiru erakunde mota ezartzen dira, 2001ean kudeaturiko diruan oinarrituz. Horrela, lehenengo segmentuan, diru kantitate txikiena kudeatu duten erakundeak biltzen dira (11 milioi pezeta baino gutxiago), eta horien portzentaia %70ekoa da. Bigarren segmentua nahiko txikiagoa da eta horren barruan 11 eta 50 milioi bitartean kudeatzen duten erakundeak sartzen dira, eta horiek guztizkoaren %11 osatzen dute. Azkenik, hirugarren segmentuan, 50 milioi

<sup>13</sup> José Ignacio Ruiz de Olabuenaga irakasleak 1998an Euskadiko boluntarioei buruz egindako ikerketaren arabera, boluntarioak gehienetan fededunak dira, Elizaren jarraibideei kasu egiten diete, goi mailako heziketa dute (erdi eta goi mailakoa) eta ikasteko edo sektoreen zerbitzuan lan egiteko joera daukate (RUIZ DE OLABUENAGA, José Ignacio: *Características sociodemográficas de los voluntarios*, 1998).

pezetatik gorako fakturazioa duten erakundeak biltzen dira; erakunde guztien arteko talderik txikiena da (8%).


2000 eta 2001. urteak aintzat hartuta, gorabehera batzuk ikusten dira muturreko segmentuetan. Horrela, kudeaturiko diru kantitate txikieneko erakundeen eta baliabide bolumen handia kudeatzen duten erakundeen gorakadaxoa ikusten da. Bitarteko segmentuan bildutako erakundeen proportzioa, berriz, iraunkorra izan da azken bi urteotan.

18. grafikoa: Kudeaturiko diruaren bolumenaren konparazioa



2002. urterako aurreikuspenei buruz galdetu zaienean, erakunde guztien erdiak baino gehiagok erantzun du iraunkor mantenduko dutela kudeaturiko diru kantitatea; erakundeen %30ak baliabideak areagotzeko asmoa dauka, eta %9ak uste du kudeaturiko diruaren bolumena murriztu egingo dela.


19. grafikoa: Kudeaturiko diruari buruzko aurreikuspenak



### 3.4.2. Finantziazio bideak

Gazte intereseko erakunde guztien erdiaren finantziazio bide nagusia dirulaguntza publikoek osatzen dute.

20. grafikoa: Finantziazio bide nagusiak



Erakundeek kanpoko finantziazio iturrietan duten menpekotasun maila neurtzeko, finantziazio bide desberdinak bi kategorietan bildu dira: barruko eta kanpoko baliabideak.

► **Barruko baliabideak:**

- Kideen kuotak.
- Ondasunen eta zerbitzuen salmentaren ondoriozko diru-sarrerak.
- Norbanakoek egindako dohaintzat.


► **Kanpoko baliabideak:**

- Erakunde publikoen dirulaguntzak.
- Erakunde pribatuen dirulaguntzak.
- Gainontzekoen inbertsioak.

Finantziazio iturrien azterketaren helburua, izan ere, kategoria bakoitzak gazte intereseko erakundeetan duen garrantzi berezia identifikatzea da; beraz, komenigarritzat hartu dugu kategoria berri bat ezartzea, konpentsaturiko baliabideena, eta bertan sartzen diren erakundeek kanpoko eta barruko baliabideen antzeko proportzioa dute, %50etik hurbilekoa. Horrela, azterketan erabilitako kategoriak honako hauek dira: *barruko baliabideak eta konpentsaturiko baliabideak*. Gazte intereseko erakunde guztien ia %60 gehienbat kanpoko baliabideen bitartez finantzatzen da, batik bat erakunde publikoen dirulaguntzen bidez. Erakunde horietan, erakunde publikoetako fondoetako menpekota-

suna oso handia da. Erakunde guztien %11n aurrerapauso handia eman da independen-  
tzia ekonomikorantz, barruko baliabideak sustatuta (erakundearen baliabide guztien  
%50etik hurbileko portzentaian).

**21. grafikoan:** Finantziario bide nagusien araberrako banaketa



Azkenik, gazte intereseko erakunde guztien %25ean, barruko finantziario iturrien na-  
gusitasun handia dago; horrenbestez, kanpoko baliabideekiko independetzia handia  
dute (gehienbat dirulaguntza publikoak).

### 3.5. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA: SAREKO LANA

Beste erakunde batzuekin sarean jarduera bat garatzeko, programa bat kudeatzeko  
edo zerbitzuak emateko, gutxieneko koordinazio maila batzuk behar dira. Gazte intere-  
seko erakundeen kasuan, koordinazio maila txikiak dituen talde bat dago, azterturiko  
erakundeen %36ak erakunde batekin edo birekin baino ez baitu harremanik, eta ez dauka  
osterantzeko loturarik beste inolako erakunderekin. Hala eta guztiz ere, beste erakunde

**16. koadroa:** Harremanen dentsitatea

Sareko lana		
Entitate kopurua	Zenbatekoa	%
Entitate batekin	13	7,0
Bi entitaterekin	26	14,0
Hiru entitaterekin	18	9,7
Lau entitaterekin	4	2,2
Bost entitaterekin	2	1,1
Sei entitaterekin	23	12,4
10 entitaterekin	54	29,0
Ezein entitaterekin	28	15,1
Ed/Ee	18	9,7
<b>Guztira</b>	<b>186</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Geuk landuta.

talde batek (guztizkoaren %29) koordinazio maila handia dauka, beste hamar erakunderekin baititu harremanak.

Sareko lanari dagokionez, oso bereziak diren bi jokabide identifikatu dira. Batetik, koordinazio maila baxuak edo oso baxuak eduki eta itxuraz antzeko ezaugarriko beste erakunde batzuekin harremanik izan beharrik ez duten erakundeak. Horien ondoan, beste talde batek koordinazio maila handia dauka, gai zehatzak konpontzeko. Egiturazko lankidetzaz hori alde biko kontaktuen bitartez egiten da, erakunde interesatuak «aurrez-aurre» harremanetan jarrita, edo foroan eta plataformen bitartez, eta horiek hibernazioan egoten dira, harik eta gainontzekoen presentzia behar duten erakunderen batek horiek eragiten dituen artean. Oro har, horrenbestez, ezin daiteke esan gazte intereseko erakundeen arteko koordinazio handirik dagoenik, koordinazio hori kasuan kasukoa baita, hala-korik egotekotan.







**4**

**Gazte-  
-Elkartegintzaren  
oraingo egoera**



Gazte-elkartegintzak eta gazteek elkarrekin parte hartzeko dituzten moduak kezka ugari sortu ditu. Kezka horien azpian, hauxe dago: gazteria partaidetzako ohiko eremuetatik urrunduta egoteaz gain (alderdi politikoak, sindikatuak, etab.), urruntze hori partaidetzaren beste bide batzuetara ere hedatzea, orain arte gazteei loturik egon diren bideetara, hau da, gazte erakundeetara.

Gazteen partaidetzak izandako beherakadaren eraginezko kezkek berez dauka garrantzia eta ez da kezka berria. Hala eta guztiz ere, azken urteotan garrantzi handia hartu du, agerian gelditu baita ez dagoela elkarrekin egiturarekiko bide alternatiborik, gazteriaren arazoak eta beharrianak ezagutzeko eta konpontzeko. Gazteriari buruzko diagnostikoe-tan orainsu jasotako proposamenak (adibidez, *Europako Batzordearen Liburu Zuria. Bultzada berri bat Europako gazteentzat* jasotakoak) norabide horretakoak dira.

Gazteen partaidetzaren ustezko krisiak, horrenbestez, arriskuan jartzen du gazteen eta erakundeen arteko harremanetarako ohiko bidea. Bidea desagertuz gero, komunikazioa ere desagertuko da, eta beraz, politika publikoak legitimatzeko aukera ere bai, eta, horren ondorioz, gazteen eremuan lan egiten duten erakundeak ere desagertu egingo dira. Horrenbestez, gazteen partaidetzaren krisia oso kezka handia da, bai gazteen eta boterearen arteko elkarriketarako funtsezko bidea desagertzear dagoelako, bai gazteek politika publikoak zalantzan jartzeko gaitasuna dutelako (dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko gazte sektorerako arrotzak diren politikak).

Gauzak horrela, zenbait tresna bultzatu behar da, gazteen egoera, arazoak eta eskariak deskribatzeko, baita erakundeek sustaturiko jarduerak ebaluatzeko eta bideratzeko ere; aldi berean, oraingo gazteriarekiko harremanetarako modu eta bide berriak proposatu behar dira.

Lan honen planteamendua proposamen maila horretan planteatzen da; baina, aldi berean, dirudienez gero eta zabalagoa den baldintza baten ukapenean oinarritzen da. *Gazteriak gero eta partaidetza handiagoa duela dioen ideari dagokionez, gazteek elkarrekin duten partaidetza aldatzen ari da, formalizazio txikiagokoak eta egituraren araberakoak diren elkarrekin etarantz.*

Ikuspegi aldaketa horrek, batetik, erakundeei itzultzen die partaidetzaren eragin-kortasunaren garrantzia, elkarriketa moduak gazteriaren eskari berrietara egokitu

beharko baitituzte; bestetik, erakunde mota batzuei, lehenengo arazoak aztertu eta gero hausnarketa egin beharko baitute, gazteek eurretan parte hartu ahal izateko moduei buruz.

Kapitulu honetan, gazteek parte hartzeko moduetan izandako aldaketak aztertu nahi dira, partaidetzako eredu berriekin eta zaharrekin identifikaturiko gazteen kopurua jakiteko. Eszenatoki hori zehaztu ondoren, halako erakundeen ezaugarri, arazo eta harreman mota nagusiak aztertuko dira.

#### 4.1. GAZTEEK GIZARTEAN PARTE HARTZEKO DITUZTEN MODUEN ALDAKETAK

Gizartean parte hartzeko moduak aldatzen ari dira. Aldaketa horiek eragina dute gizarte osoan, eta, jatorrian, kultura eta ekonomi mailako zergatiak azaleratzen dira, lan honetako aurkezpenean adierazitakoak. Aldaketa horiek gazterian ere eragina dute. Hala eta guztiz ere, gazteen taldearen kultur eta belaunaldi mailako itxaropenak kontuan hartuz (gazteak aldaketa sozialaren eta politikoaren eragileak omen dira), gazteek parte hartzeko ohiko bideak baliorik gabe gelditzea oso kezkarria da, helduen gizartearen ikuspegitik.

Gazte intereseko erakundeak (horiei buruzko orain arteko ulermenean) dagoeneko ez dira gazteen partaidetzako lehentasunezko eremuak, ez kopuruari dagokionez eta ez (batik bat, eta hauxe da aldaketarik garrantzitsuenak) gazteek horietan parte hartzean duten jarrerari dagokionez.

Halaber, azken urteotan dibertsifikatu egin dira, gazteek halako erakundeetan parte hartzeko arrazoiak.

##### 4.1.1. Gazte intereseko erakundeetan parte hartzeko profil berrien ahultzea

Halako erakundeetako partaidetzaren beherakada orokorra identifikatu da. *Eurobarometroak*<sup>14</sup> emandako datuen arabera, gazte intereseko erakundeetan parte hartzeko joera orokorra beheranzkoa da. Europako gazteen erdiek erakunderen batean hartzen dute parte. Hala eta guztiz ere, %28ak kirol elkarteetan hartzen du parte, eta beraz, gazte intereseko erakundeetan gainerako %22ak hartzen du parte, erakundeok lan honetan adierazitakoaren arabera ulertuta.

Datu hori bat dator azken urteotan EAEn egindako antzeko beste lanek emandako datuekin. Esate baterako, *Euskadiko Gazteak 2000*<sup>15</sup> deritzon txostenean esaten denez, gazte intereseko erakundeetan parte hartzen duten 15 eta 19 urte bitarteko pertsonen portzentaia (kirol elkarteak albo batera utzita) %22,3koa da.


Azkenik, lan honetan, aurreko kapituluan partaidetzari buruz jasotako datuetan oinarrituz, ikusten da EAeko gazte interesekotzat harturiko erakundeen multzoan 119.163 pertsonak hartzen dutela parte, gehienbat gazteak. Datu hori EAEn orain bizi

<sup>14</sup> EUROPEAN COMMISSION: *Eurobarometer. Public Opinion in the European Union. Report 56*. Directorate-General Press and Communication, Brussels, 2001.

<sup>15</sup> GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA, KULTURA SAILA, *Euskadiko Gazteak 2000*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2000.

diren 15 eta 29 urte bitarteko milioi erdi pertsoneri extrapolatuta ikusten denez, Euskadiko gazteria osoarekiko portzentaia %23,8koa da, aurreko kalkuluetan baino bi puntu gehiago.

22. grafikoa: Partaidetza indizeen konparazioa, ikerketen arabera



Aurkezturiko datu serieetan errorea egon daitekeela onartuta, EAEko gazte intereseko erakundeetako partaidetza tasa %25etik beherakoa dela kalkulatu da. Hau da, 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk baino gutxiagok hartzen du parte halako erakunderen batean.

Gazteek halako erakundeetan duten partaidetzari buruzko daturik ez dagoenez (aurreko urteetako datuak), oraingoz zaila da bilakaera bat ezartzea, eta beraz, arriskutsua da joera jakinari buruz hitz egitea, modu kuantitatiboetan. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erroldak eskainitako datuen arabera,<sup>16</sup> EDE Fundazioak emandako datuak, gazte erakundeen hazkunde erritmoa nabarmen moteldu da azken urteotan, eta 1996ko %8tik 2001eko %5era igaro da.

Gazteek gero eta partaidetza txikiagoa dute gazte intereseko erakundeetan. Hori konpentsatzeko, hain formalak ez diren eszenatokietan (konpromiso txikiagokoak) partaidetza gero eta handiagoa da; izan ere, halakoetan, bai partaidetzak eta bai hori gauzatzeko foroak kasuan kasukoak dira, iragankorragoak, eta gehienetan aisialdiari eta kulturari lotuta daude. Gazteek gero eta gizarte eta erakunde mailako onarpen txikiagoa behar dute, elkartzeko eta parte hartzeko, eta antolaketa iraunkorreko erakundeetan parte hartzeko gero eta joera txikiagoa dute.

Horren arabera, gazteek parte hartzeko dituzten modu berriak formalizazio maila txikiagoak eta egituraren araberakoak dira; horietan, gehienetan, helburuak epe labur eta ertainean lortu nahi izaten dira.

<sup>16</sup> EUSKO JAURLARITZA (Elkarteen Errolda), 1999ko apirila eta 2001eko urria.

Gehienbat izaera ezformala dutela aintzat hartuta, forma berri horiek identifikatzea ez da erraza. Hala eta guztiz ere, elkartu aurreko forma batzuk kultur ospakizunen itzalean sorturiko ekimenak izan daitezke (adibidez, lonjen fenomenoak, gazteena baino gehiago nerabeena), hiri handietako auzoetan kokaturikoak; halaber, Internet erabiltzearen ondoriozko gizarte harremaneko forma berriak ere badira (*chat* deritzenak, foroak, etab.). Adibide horiek guztiek gero eta indar handiagoa dute EAEn.

#### 4.1.2. Gazte intereseko erakundeetan parte hartzeko profil berrien zehazpena

Aldaketarik garrantzitsuena gazteriak partaidetzari buruz duen jarrerari dagokiona da. Elkarte egiturak azken urteotan izandako formalizazio prozesuak, azkenean, agerian jarri eta zehaztu egin ditu partaidetza ulertzeko modu berriak, eta horiek gaiari buruzko bibliografia luzean jaso dira. Hala eta guztiz ere, horiek izendatzeko orduan balorazio zama handia ikusten da. Erakundeetako militanteak eta boluntarioak aipatzen dira, edo kideak eta erabiltzaileak.


Aldaketa horien konplexutasuna eta oraingo partaidetza profil guztiek alde onak nahiz txarrak dituztela kontuan hartuta, ikuspegi deskribatzaileagoa erabili behar da, partaidetzaren ezaugarrietan oinarritzeko. Horrenbestez, gazte erakundeen bi partaidetza modu ezartzen dira: proaktiboa eta errektiboa.

- *Partaidetza proaktiboa.* Proposamen mailakoa da. Konpromisodun partaidetza dago, erakundearen helburuari eta eginkizunari dagokionez. Partaideek ondo ezagutzen dute erakundea eta horren helburua, eta beraz, horren diskurtsoa egiteko eta ekintzaren arrazoiak azaltzeko gauza dira. Gehienetan, partaidetza proaktiboa sistemaren barruko eginkizunen garapenari lotuta dago, eta sarritan, horren barruan, erabaki-hartzeen eremuetako partaidetza sartzen da; beraz, pertsona horiek botere esperientziak dituzte erakundearen barruan. Erakundeek partaide proaktiboan kopuru jakina behar dute, euren jardura garatzeko eta planifikatzeko; izan ere, gehienetan, sistemak toki estrategikoak dituzte, eta hortaz, horiek ezinbesteko bihurtzen dira. Horren arabera, partaidetza proaktiboan, partaideak inplikatu egiten dira erakundearen, eta partaidetza hori militantziari estuago lotuta dago. Partaidetza proaktiboa estu lotuta dago prozesuaren ideiarekin, erantzukizunak eta eginkizunak apurka-apurka onartzen baitira. Pertsonak langile liberatuen laguntzarekin bilakatzen dira erakundearen, eta prozesuari heziketa dimentsioa ematen zaio. Maila pertsonalean, erakundearen inplikazioa intentsitate handiarekin bizi da, eta beraz, eremu publikoa gainditu eta pertsonaren eremu pribatura iristen da, eta bere bizi-estiloaren alderdiak ere zalantzan jar daitezke.
- *Partaidetza errektiboa.* Pizgarri edo eskaintza bati erantzuna emateko hartzen da parte, eta jarduketa ez da hain ona. Partaidetza errektiboa duten pertsonak ez dute zertan erakundea eta horren jardura sakon ezagutu. Horrenbestez, arazoak edukitzean dituzte, erakundearen diskurtsoa egiteko eta horren ekintza justifikatzeko. Partaidetza errektiboa lan zehatzen garapenari lotuta dago eta pertsonak ez dute erabakiak hartzeko prozesuetan partaerik hartzen. Erakundearen duten espezializazio maila txikia izaten da, eta beraz, ez dira inoiz ere ezinbestekoak izaten. Partaidetza errektiboan ez dago erakundearekiko inplikaziorik edo konpromisorik, eta gehienetan, kasuan kasuko partaidetza izaten da. Halako partaidetza egituraren arabera da eta ez dago prozesurik, gehienetan lan oso zehatzak behin eta berriro egitean oinarritzen baita,

erakundeko langile liberatuen zuzendaritzapean eta ikuskaritzapean. Oro har, erakundeetako partaidetza erreaktiboak ez dauka eraginik pertsonen eremu pribatuan.

Partaidetzaren leku formalizatuen garrantzia galtzearen eta jarrera erreaktiboaren in-dar gero eta handiagoaren eraginez, agerian jarri da gazteek gazte intereseko erakundeei ematen dieten garrantzi erlatiboa, gizarte partaidetzarako bidetzat ematen dietena alegia, eta erakunde publikoek halako elkarteak gazteriarekiko komunikaziorako bide nagusizat izateari buruz duten iritzia ere agerian gelditu da.

### 3. eskema: Partaidetza proaktiboaren eta erreaktiboaren ezaugarriak



Hau da, gazte intereseko erakundeetan parte hartzen duten gazteak gero eta gutxiago dira; gazteen partaidetza duten taldeei dagokienez, batez ere jarrera erreaktiboko neska-mutilak nabarmentzen dira. Azken batean, gazte intereseko erakundeek gero eta garrantzi txikiagoa dute, gazteria ordezkatzeko eremutzat.

#### 4.1.3. Gazteak erakundeetara hurbiltzeko arrazoen ugaritzea

Deskribaturiko joerekin batera, gazteriak erakundeetara hurbiltzeko dituen arrazoiak dibertsifikatu egin dira. Erakundeek %68ak dioenez, lanaren eremua gizarte aldaketa da, baina gazteen arrazoiak beti ez dator bat erakundeek aldarrikaturiko aldaketa bokazio horrekin. Tresna eta harreman mailako beste arrazoi batzuk gero eta garrantzitsuagoak dira.

Krisi ekonomikoari eta langabeziari dagokionez, eragin handiena jasan dutenak gazteak eta, batez ere, emakumeak izan dira; horretan oinarrituz, gazte erakundeak lanbiderako partaidetza garatzeko foro bihurtu dira, lan merkatuan sartzeko aukerak handitze-ko. Joera hori profesional kopuru eta heziketa maila handieneko erakundeetan gelditzen da agerian. Arrazoi horiekin batera, harremanei loturikoak ere gero eta garrantzitsuagoak dira. Gazteen ustez, erakundeetako partaidetza harremanak edukitzeko modua da; erakundeek beste gazte batzuekin biltzeko eta proiektuak lantzeko lekuak dira, proiektuok sortzen direnetik emaitzak iritsi arte.

Arrazoen dibertsifikazioa, halaber, boluntarioen programek azken urteotan izan duten finkapenean ere ikusten da; horien barruan gazte kopuru handia dago, baina euren helburuak eta jarduketa eremuak beti ez daude gizarte aldaketari lotuta. Hau da, gazte intereseko erakundeek aldaketa bokazioa dutelako erakartzen dituzte gazteak, baina baita harremanetarako, jolaserako eta tresna izateko gaitasuna dutelako ere.

## 4.2. ERAKUNDEEN ARAZO NAGUSIAK

Partaidetza eta elkartze moduetan azaldutako aldaketek, baita beste faktore batzuek ere, eragin kaltegarria dute erakundeen jardueran, barne funtzionamenduan eta antolaketan.

### 4.2.1. Erakundeen barruko bi partaidetza profilen arteko gatazka

Aurreko sailkapenaren ondorio berehalakoena eta bistakoena (partaidetzarako bi profil, bi mota ideal, eta horien bitartean beste mota batzuk) erakundeetan partaidetzarekiko jarrera desberdinak egotea da. Erakundeetan soldatapekoak ez diren langileen artean, gutxienez partaidetza ulertzeko bi modu daude.

Oro har, deskribaturiko mota idealak belaunaldi taldeei eratzikitzeko modukoak dira. Horrela, pertsonarik beterranoenak (gehienetan hurbilago erabakiak hartzeko eremuetatik) partaidetza proaktiboagoa edukitzen dute; neska-mutilik gazteenek, berriz, identifikazio handiagoa dute planteamendu erreaktiboekin. Horrek arazoak sortzen ditu, erakunde batzuetan gazteei jarrera proaktiboak eskatzen zaizkienean, planteamendu erreaktiboagoak utzita. Eskakizun hori beti ez da betetzen, eta horren ondorioz, gazte batzuek sarritan utzi egiten dituzte erakundeak.

Hala eta guztiz ere, beste kasu batzuetan, gazte intereseko erakundeek hausnarketa egin dute, partaidetza moduei buruz, eta planteamendu erreaktiboak dituzten pertsonen sartzeko aukera eman diete; pertsona horiek erakundearen helburuekiko koherenteak diren lanak egiten dituzte, euren inplikazio mailatik. Pertsona horietariko batzuen kasuan horixe da parte hartzeko modu bakarra; beste zenbaiten ustez, ostera, partaidetza erreaktiboa ezinbesteko baldintza da, konpromiso handiagoko planteamenduetara iristeko (jarrera proaktiboekin loturiko planteamenduak).

Erakundeek ohikoak ez bezalako partaidetza bideak ezartzeko, hausnarketa prozesu sakona behar da eta hori erakunde gutxi egin dute.

### 4.2.2. Hausnarketarik eza, gazteek parte hartzeko moduei eta euren beharrezanekiko buruz

Erakunde batzuetan ez da hausnarketa beharrezanik sentitzen. Eguneroko lanak eta programen ondoriozko jardueren erantzuna emateko beharrezanik lehentasuna dute eta ez dago hausnarketarako lekurik. Gabezia horren eraginez, zailagoa da erakundeek oraingo gazteriaren egoerara, arazoetara eta eskakizunetara egokitze prozesua hastea. Euren buruari buruzko diagnostikoa egitea beharrezkoa da, ez bakarrik partaidetza moduak dibertsifikatzeko premiagatik, baizik eta erakundeek gizartean duten eginkizuna berriro zehazteko beharrezanagatik ere.



Sarritan, bertan behera uzte hori erabakiak hartzeko eremuetatik justifikatzen da, partaidetzari egindako ukapentzat (oraingo gazteriak bizi duen balio krisiaren eraginezkoa). Ideologiaz betetako azalpen horrek era guztietako erantzukizuna saihesten die erakundeei eta horiek gidatzen dituztenei, bertan behera uzteko apurka-apurkako prozesuan, eta alternatiba bakartzat, partaidetza eredu bakarraren defentsa gogorra planteatzen da.

Hausnarketarik ez egotearen eraginez, gainera, erakunde askok ez dute euren nortasunean eta jardueran eragin zuzena duten gaiei buruzko iritzirik. Erakundeek nekez izaten dute ikuspegi argirik, zenbait gairi buruz: profesional gero eta gehiago edukitzea, boluntarioak, emandako zerbitzuen eta gazteriaren eskakizunen arteko ezegokitasuna, etab. Halako kasuetan, egoerarik ohikoena erakundeak ekintzen bidez derrigorrean egokitzea da, eta batzuetan zaila izaten da euren buruari egoera horretara nola iritsi diren azaltzea.

#### 4.2.3. Dirulaguntza politikaren eta erakundeen beharrianen arteko ezegokitasuna

Administrazioarekiko menpekotasun ekonomiko handia gazte intereseko erakundeen ezaugarri nagusienetakoa da. Kideen batez besteko adin handiko erakundeetan (gizarte ekintzako eta kulturako zerbitzuak ematen dituztenetan) soilik dago finantziazio iturrien nolabaiteko dibertsifikazioa.

Horri dagokionez, dirulaguntzen sistema publikoan egon daitekeen edozein ezegokitzapenek eragin larria dauka erakundeetan. Esate baterako, dirulaguntzak kobratzean izandako atzerapenak (erakundeek dirua aurreratu behar izaten dutelarik, bankuetan kredituak eskatuta edo beste bide batzuk erabiliz) eta lankidetza formula egonkorragorik ez egoteak sorturiko segurtasunik eza: horiexek dira erakundeek arlo ekonomikoan dituzten arazo nagusiak.

Baina hausnarketarik eza hori (egokitzapen berriaren aurretiazko pausotzat) erakunde publikoei ere egozteko modukoa da. Dirulaguntzen sistema ez dago egokituta gazteen beharrianetara eta gizarte partaidetzako modu berrietara. Sistema hori ez dago prestatuta egoeraren araberakoak diren gazte ekimenak bizkor eta burokrazia handirik gabe finantzatzeko, ekimenok berehalako baliabide zuzkipena behar baitute.

#### 4.2.4. Sektorearen ezegonkortasuna

Menpekotasun ekonomiko handiak eta dirulaguntza publikoen urritasunak eragina dute sektorearen ezegonkortasunean: menpekotasunak ezegonkortasun handia sortzen du erakundeetan; eta dirulaguntzen urritasunaren ondorioz, berriz, soldata oso txikiak jasotzen dira. Ezegonkortasun prozesua gero eta handiagoa da, Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen erregularizatze eza handiaren eraginez, eta horren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: irabazi asmorik gabeko erakundeak izatea, elkargo profesionalik ez egotea, patronalik ez egotea eta sindikatuen partaidetza txikia edo deuseza izatea.

Ezegonkortasunaren ondorioz garrantzitsuena, bestalde, erakundeek langileei beste enpresa edo erakunde batzuetako enpresa moduko lan baldintzarik eskaini ezin izatea da;

beraz, sarritan, bertatik kanpoko lan eskaintzarik egiten dietenean, langileak gehienetan joan egiten dira erakundeetatik.

---

#### 4.2.5. Erakundeetako soldatapeko langileen ezegonkortasuna

Gaszte intereseko hamar erakundetatik bitan, langile liberatuen batez besteko iraunkortasuna bi urtetik beherakoa da. Horrenbestez, erakundeetako taldeak oso ezegonkorak dira, kontuan hartuta eguneroko lanik handiena langile liberatuek egiten dutela (eginkizun eta lanik gehien langile horiek egiten dute).

Gainera, langile liberatuak gehiegi trukutzen dira, eta, horren ondorioz, langile berriak sartzearen eraginezko esfortzu handia egin behar izaten da sarritan.

---

#### 4.2.6. Ezagupenak jakinarazteko biderik eza eta erakundeak ziklikoki berriro sortzearen arazoa

Erakunderik gehienetan ez dago bide edo prozedurarik, adin nagusieneko pertsona kopuru txiki baten (profil proaktibokoa) ezagupenak jakinarazteko. Pertsona horiek erakundea uzten dutenean, eginkizun estrategikoetan garatzean pilaturiko esperientzia eta ezagupen guztiak eramaten dituzte. Horren ondorioz, krisialdia hasten da eta hori ez da amaituko harik eta gazteek oinarritzko eginkizunak eraginkortasunez garatzen hasi arte.

Sarritan, krisialdi horren eraginez, erakundeak berriro antolatu behar izaten dira, ikaskuntza eta eginkizun banaketa hutsetik hasita egiten baitira. Nolabait ere, etengabe birsorkuntza da, ia ziklikoa, eta neurri batean saihesteko moduko esfortzu handi baten kontura egiten da.

Krisialdiak eragin txikiagoa dauka, euren partaidetza moduak dibertsifikatu ahal izan dituzten erakundeetan, halako kasuetan ezagupenak eta esperientzia hobeto banatuta baitaude. Horrenbestez, ardura handiko pertsonak erakundea uzten dutenean, egoera ez da hain traumatikoa izaten.

Adibiderik argiena, erakundeentzat duen garrantzi handia kontuan hartuta, ordezkari funtzioen txanda izaten da. Oro har, erakundeetako langile teknikoek harremanak izaten dituzte elkarrekin, ordezkari eginkizuna esleiturik duten pertsona jakinen bitartez. Pertsona horiek desagertzen direnean, eta eginkizun horren eskualdaketa behar bezala egin ezean, administrazio publikoekiko elkarriketak etenda gelditzen dira.

### 4.3. GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEEK EUREN ARTEKO HARREMANAK IZATEKO MODUA

Baina gazte intereseko erakundeen harremanak ez dira administrazio publikoekin bakarrik izaten. Euren arteko harremanak ere edukitzen dituzte. Erakunde horien egoera deskribatzeko, ezarritako harreman mota eta horien helburua aztertu behar da. Atal honetan, gazteen gizarte partaidetzaren moduetan deskribaturiko aldaketek ere eragiten dute.

#### 4.3.1. Erakundeen arteko harremanak

Erakunde guztien %42 baino apur bat gehiagok ohiko eta aldi bereko harremanak ditu bost erakunde baino gehiagorekin; hala ere, harreman horiek aztertuta ikusten denez, harremanok egituraren araberakoak dira eta epe laburreko emaitza jakinak lortzera bideraturik daude.

Oro har, erakundeek ezarritako harremanak koherenteak dira erakundeen ezaugarriekin eta barne funtzionamendurekin, baita gazteek erakundeotan parte hartzeko duten arrazoiekin ere.

Gizarte aldaketari loturiko arrazoiek garrantzi erlatiboa galdu dutela eta beste arrazoi batzuen protagonismoak gora egin duela kontuan hartuta (jolasak, gazteen arteko harremanak, tresna mailakoak, etab.), argi gelditu da erakundeen arteko harremanak egituraren araberakoak direla. Horrela, gizarte aldaketa eragiteko aukera gehiago egoteko koordinazio maila estuagoen beharrez, neurri batean, desagertu egin da. Beste motibazioak asetzeko ez da koordinazio handirik behar, ezta erakundeen arteko sare baten ezarkuntzarik ere.

Beste arrazoi batzuek, bestalde, erakundeen arteko kasuan kasuko harremanak egitea justifikatzeko balio dute. Denborarik eza sarritan agertzen den arrazoia da, batez ere soldatapeko langilerik gabeko erakundeetan.

Erakundeen arteko desberdintasunei dagokienez, horien eragin-maila aldagarria da, harremana oztopatuz, baina ez ekidinez. Zenbait faktorek, neurri batean, harremanak egituraren araberakoak izatea azaldu dute: erakundearen hizkuntza nagusia, orientazio laikoa edo erlijiosoa, gatazka politikoarekiko jarrera, etab. Faktoreok, hala ere, koordinazio prozesu horren helburua ondo identifikaturik egon ondoren agertu dira, hau da, helburua lortzeko koordinazio luzerik behar izan ez denean.

#### 4.3.2. Administrazioarekin

Elkarte guztiek ez dute harremanik erakunde publikoekin; gainera, atal honetan ikusiko dugunez, denek ere ez dute halako harremanik eduki nahi. Erakunde publikoekin harremanak dituztenen kasuan, harreman horiek kontraesankorrak izaten dira: gazte intereseko elkarterik gehienek ez dute erakundeekiko harremanik nahi; baina, horiekiko menpekotasun maila handia dutenez, harremanok nahitaezkoak dira.


Gazte intereseko hamar erakundetik ia lauk ez du inolako harremanik, Eusko Jaurlaritzako sailekin. Aldiz, hamar erakundetik bederatzik harremanak dituzte udaletxeekin.

17. koadroa: Erakunde publikoekiko harremanik gabeak (%)

Erakundea	%
Eusko Jaurlaritza	39
Aldundiak	14
Udaletxeak	10

Iturria: Geuk landuta.

23. grafikoa: Erakundeekiko harremanen balorazioa



Erakundeen %14ak ez dauka harremanik kasuan kasuko lurraldeko Aldundiarekin. Datu horiek aztertuta ikusten denez, erakundeen maila handitu ahala harremanak murriztu egiten dira.

Elkarteez administrazio publikoekiko harremanei buruz egiten duten balorazioa gehienetan positiboa da, udaletxeekiko harreman oso emankorrak kontuan hartuta; emankortasunik txikienekoa Eusko Jaurlaritzako sailekin dutena da. Administrazioekiko harremanen balorazio positiboa gero eta motelagoa da, erakundeen maila handitu ahala. Esaterako, baloraziorik onena dutenak toki erakundeak dira eta baloraziorik txarrenea Eusko Jaurlaritzak dauka.

#### 4.3.2.1. Gazte intereseko erakundeek administrazio publikoekiko harremanen balorazio txarra egiteko dituzten arrazoi nagusiak

Administrazio publikoekiko harremanen balorazio txarra egiten duten erakundeen arrazoiak aztertzean (harremanak emankorrak ez direla edo emankortasun gutxiak direla dioten erakundeen arrazoiak), aipagarria da erakundeek baliabide ekonomikoei ematen dieten garrantzia. Balorazio txarra egiten duten erakundeen %38ak finantziario moduei loturiko alderdiak aipatu ditu. Garrantziaren arabera, hauxe aipatzen da: dirulaguntza gutxi (%25,6), horiek estalitako denbora aldi laburrak (%6,6) eta dirulaguntzak lortzeko arazoak (%5,8).

Administrazioen arteko komunikaziorik eta koordinaziorik ez egotea da erakundeek euren balorazio txarra egitean aipaturiko bigarren arrazoi nagusia. Alde batetik, erakundeen ustez, administrazioek ez dute komunikazio biderik ezarri, informazioa trukatzeko, eta beraz, erakundeek ahalegin handia egin behar dute horiekin harremanak izateko. Erakundeek Gazte Planari buruz egindako balorazio positiboa horrexetan oinarritzen da, euren ustez hori lehenengo pausoa baita administrazioen eta sailen arteko koordinazioa hobetzeko.

Bigarrenez, sektore publikoaren eta gazteen irabazi asmorik gabeko sektorearen arteko komunikaziorik ezaren kritika solaskide finkorik ez egotean oinarritzen da. Eraku-

deek diotenez, ez dute administrazioen funtzionamendua ezagutzen, gehienbat eurei arreta egiteko langileak sarriegi aldatzen direlako. Hala eta guztiz ere, kritika hori bi modutara uler daiteke. Horrela, administrazioetako langileak ere kexu dira, gazte erakunde-en ordezkariaren eginkizunetan dauden aldaketa handiegien ondorioz, baita solaskide finkoak zehazteko zailtasunaren eraginez ere.

#### 18. koadroa: Administrazio publikoekiko harremanen balorazio txarraren arrazoiak

Arrazioak	Zenbatekoa	%
Dirulaguntza gutxi	31	25,6
Komunikazio eta koordinazio eza	22	18,2
Burokrazia gehiegi	18	14,9
Administrazioek erakundeen jarduera kontuan ez hartu	13	10,7
Aldi oso laburretarako dirulaguntzak	8	6,6
Dirulaguntzak lortzeko zailtasunak	7	5,8
Beste mota batzuk	22	18,2
Guztira erakundeak	121	100

*Iturria:* Geuk landuta.

Erakunde guztien %15 inguruk balorazio txarra egiteko orduan emandako arrazoi nagusia, bestalde, administrazioekiko harremanetan burokrasia handiegia egotea da. Prozedurak erraztu beharra aipatzen da, gazte intereseko erakundeek administrazioekiko harreman hobekia edukitzeko.

Azkenik, erakundeen ustez, administrazioek ez dituzte gazte intereseko erakundeak kontuan hartzen, horietan eragin zuzena duten erabakiak hartzeko orduan. Horri lotuta eta profesional kopuru handiagoko erakundeek dagokienez (gehienetan, zerbitzuak ematen dituzten erakundeak), garatu beharreko programak eta proiektuak diseinatzeko forotan (orokorrean, administrazioetan) erakundeek partehartze eta protagonismo handiagoa eduki beharra eskatzen da.


#### 4.3.2.2. Erakundeek administrazio publikoei egindako eskakizunak

Oro har, gazte intereseko erakundeek administrazio publikoei egindako eskakizunak aipaturiko kritika nagusiei lotuta daude. Horrela, erakundeek administrazioekiko dituzten eskakizun nagusiari buruz galdetzen zaienean, %56ak baliabide ekonomikoak eta materialak handitu beharra aipatzen du. Horixe da, hain zuzen ere, gazte intereseko erakundeek eskakizun nagusia.

Baliabide gehiago eskatzearekin batera, aldaketa kualitatiboak ere eskatzen dira, horien kudeaketari dagokionez. Horrela, epe luzeagoko akordioak eskatzen dira (%10), hitzarmenei dagokienez, eta laguntzak baldintzarik gabeak izatea ere eskatzen da (%8); hau da, erakundeek ez dituzte euren ezaugarrien funtsezko alderdiak aldatu nahi (helburuak, funtzionamendua, osaketa, etab.).

Baliabide ekonomikoak ugaritzeko eta kudeatzeko moduak hobetzeko eskariarekin batera, gazte intereseko erakundeek %9ak partaidetza handiagoa eskatzen du euren jarduerari loturiko programen eta zerbitzuen kudeaketan; esate baterako, eurengan eragin zuzena duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu nahi dute.

24. grafikoa: Eskaririk ugarienenak



Azkenik, erakundeen %5ak erakundeetako pertsonak liberatzeko baliabidea eskatzen du, eta beste %5ak heziketa nahi du, gehienetan proiektuak egiteari eta kudeatzeari buruz.

#### 4.3.2.3. Gazte Planean jasotako eskuhartze lerroen balorazioa

Gazte Plana administrazio publikoen ekimena da eta horren helburua, berriz, gazte politiken arloko eskuhartze jarraibide orokorrak ezartzea da, EAEko erakunde guztietarako. Gazte Planak gazteen taldearen egoeraren tratamendu integrala egiten du, eta gainera, gazteek gizartean integratzeko dituzten arazo nagusiak aztertzen ditu: lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aisia eta kultura. Ikuspegi hori, horrenbestez, urrundu egiten da orain arteko planteamenduetatik, horiek gazteria aisiarekin eta astialdiarekin identifikatzen baitzuten; orain arteko planteamenduek, gainera, baliabide kulturalik ez egotea edo gazteek halako baliabideak eskuratzeko zailtasuna edukitzea azpimarratzen zuten.

Ikuspegi berri horrekin batera, Gazte Planak administrazioen eta sailen arteko koordinazio maila handiagoak eskaintzen ditu, baita partaidetza prozesua ere, lan-taldeetan oinarritua, eta horietan honako hauek hartuko dute parte: administrazioetako langile teknikoek, gizarte eragileek eta gazteek.

Lan hau idazteko unean (2001eko abendua), Planaren lehenengo edizioa argitaratu da, I. Gazte Plana (1999-2001), eta bigarren edizioa oraintxe amaitzen ari dira; beraz, las-ter II. Gazte Plana (2002-2005) argitaratuko da.

Gazteriak arlo bakoitzean duen egoeraren diagnostikoaren atalarekin batera, Gazte Planak eskuhartze neurri batzuk ezartzen du, egindako azterketan oinarrituz, identifikaturiko arazoak gainditu ahal izateko.

Horrela, I. Gazte Planean, gazte kulturaren atalean, gazte-elkartegintza sustatzeko eskuhartze lerroa ezarri zen, eta horretarako, honako ekintza hauek gauzatu beharko dira:

- ▶ Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen artean, eskuhartzeko gutxieneko jarraibideak ezartzea; halaber, elkarte mugimenduari laguntza emateko fondoak sortzea, informazio nahiz sentsibilizazio kanpainak egitea eta hitzarmenaren irudiari nagusitasuna ematea (laguntzen eta dirulaguntzen lerroetan).
- ▶ Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari txosten bat egiteko eskatzea, elkarriktarako formula egokienei buruz, gazte elkarteek parte har dezaten, gazte politikaren prestakuntzan eta kudeaketan; halaber, gazteentzako jardueren, programen eta zerbitzuen antolaketan eta kudeaketan baterako erantzukizuna sustatu beharko da.
- ▶ Zerga pizgarri eraginkorrak aplikatzea, kasuan kasuko foru arauaren bidez, gazte jardueren babesak sustatzeko.
- ▶ Lan-mintegi bat egitea, laneko eszedentzia gazteen eta boluntarioen elkarrean alde arautzeari buruz.

II. Gazte Planean asoziazionismoari buruzko neurriak adostuta daude hasieratik. Bigarren Gazte Planean jasotako ekintzak zehatzagoak eta dibertsifikatuagoak dira. Gainera, horiek biltzen dituen eskuhartze lerroaren izena nabarmen aldatu da. Horrela, *gazte-azoziazionismoaren eta parte hartzeko aisiaren sustapena* lortzeko honako ekintza hauek proposatzen dira, besteak beste:

- ▶ Laguntza ekonomikoko, teknikoko, azpiegiturako eta prestakuntzako fondoak sortzea, asoziazionismoaren ekimena laguntzeko.
- ▶ Gazte Asoziazionismoaren Liburu Zuria hedatzea eta jarduera, programa eta zerbitzuen antolaketan eta kudeaketan baterako erantzukizuna sustatzea.
- ▶ Zerga-sustapenen sistema hedatzea, izan daitezkeen babesleentzat.
- ▶ Elkarrean profesionalizazioari buruzko eztabaida- foroak sortzea.
- ▶ Elkarrean ordainsaria jasotzen duten profesionalak onartzea.
- ▶ Profilen sailkapena eta gizarte-bitartekarien prestakuntza.
- ▶ Elkarrean sarean lan egitea eta administrazioek programak batera finantzatzea ahalbidetzea.

Gazte intereseko erakundeek balioztatu egin dituzte aipatutako II. Gazte Planeko ekintzak, hurrengo urteotan eragin handia izango baitute.

Erakundeetako arduradunei aipatutako zazpi ekintzekiko adostasun maila galdetu zaie, eta horiek batetik (1) laura (4) bitarteko puntuazioa emateko esan zaie; baliorik txikiena bat izango da (*guztiz aurka*) eta gehieneko balioa lau (*guztiz ados*). Lorturiko emaitzak haztatu egin dira, taldeko indize orokorrera iritsi ahal izateko, proposaturiko ekintza bakoitzari dagokionez. Ondoriozko adierazlea 0 eta 1 bitartekoa da, eta onarpenaren batez besteko balioa 0,5 da. Lorturiko emaitzak honako hauek izan dira:

#### 19. koadroa: II. Gazte Planean jasotako ekintzen balorazioa

Ekimena	Indizea
1. Laguntza fondoak sortzea, asoziazionismo ekimenak bultzatzeko	0,89
2. Elkarte egiturarako gomendio komunak ezartzea eta jakinaraztea	0,72
3. Baterako erantzukizuna sustatzea kudeaketan eta antolaketan	0,76
4. Zerga pizgarrien sistema hedatzea, egon daitezkeen sustatzaileentzat	0,79
5. Erakundeetako soldatapekoak onartzea	0,75
6. Elkarrean sarean egindako lana eta baterako finantziarioa ahalbidetzea	0,81

Iturria: Geuk landuta.

Proposaturiko neurriek onarpen maila handia izan dute, indizeak batez besteko balioa (0,5) baino askoz ere gorago baitaude. Adostasun maila handia dago, gazteen irabazi asmorik gabeko sektorean, II. Gazte Planean jasotako neurriak Euskadiko gazteriarren artean asoziazionismoa eta partaidetzako aisialdia sustatzeko baliozkoak izateari buruz.

Ekintzek jasotako legitimazio handiaren barruan, adostasunerako gaitasunik handiena dutenak gazte intereseko erakundeen finantziarioari lotutakoak dira: laguntza fondorak sortzea (0,89), sareko lana eta baterako finantziarioa ahalbidetzea (0,81) eta zerga pizgarrien sistema zabaltzea egon daitezkeen sustatzaileentzat (0,79).

Hala eta guztiz ere, proposaturiko neurriekiko balorazio positiboekin batera, orokorragoak eta ez hain positiboak diren beste balorazio batzuk ere badira. Gazte intereseko erakundeetako arduradunek gero eta mesfidantza handiagoa dute, neurriok gauzatu ahal izateari buruz. Ekintza hauek bi agirietan jasota egotea eta oraindik ere gauzatu ez izatea lagungarria da mesfidantza hori sortzeko.

Gazte Plana abiatzea (administrazioen ekimen berritzailetzat) oso pozgarria izan zen gazte asoziazionismoko sektore batzuentzat; horren aldeko esfortzuak egin eta itxaropenak sortu ziren. Hala eta guztiz ere, prozesua luzatu ahala, itxaropenak ez dira bete, eta beraz, nolabaiteko etsipena sortzen ari da, erakundeen artean. Halako ekimenekiko interesa galtzarekin batera, gainera, administrazioekiko mesfidantza handitu egin da, eta gainera, deialdirako eta buruzagitzarako gaitasuna ere galdu egin da, irabazi asmorik gabeko gazte sektoreari dagokionez.

Administrazioekiko mesfidantza, bestalde alde batetik, partaidetza handiagoa eduki behar izateari administrazio horiek orain arte emandako erantzunean ere oinarritzen da. Erakundeen ustez, administrazioek irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen partaidetza nahi dute, baina muga bateraino. Administrazioek erabakiak hartzeko dituzten prozesuetan parte hartzeko gogorik handiena duten erakundeen iritziz, ez dago partaidetza hori gauzatzeko baldintza egokirik. Administrazioek partaidetzarako deialdia egin baina baldintza batzuk jartzen dituzte, esate baterako, partaidetzarako bideak, gaiak eta mailak zehaztea, eta horrek guztiak partaidetza sustatu barik baztertu egiten du. Azkenik, partaidetzarako ezarritako administrazio mailako eszenatokia dirudenez ez da egokia; izan ere, administrazioen euren legitimazio beharrizanen araberakoa da, eta ez irabazi asmorik gabeko gazte egituraren beharrizanen, erritmoen eta ezaugarrien araberakoa.

#### 4.4. GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEEN ERRONKAK

Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen oraingo egoerari buruz egindako azterketa, gainera, baliozkoa izan da erakundeek datozen urteotan konpondu beharreko arazoak identifikatzeko. Emaitza, berriz, erakundeek eurek hausnarketarako duten gaitasunaren araberakoa izango da (gazterian gertatzen ari diren aldaketei buruzko hausnarketa), baita administrazioak gazteen elkarte egiturarekiko duen jarreraren araberakoa ere.

Gazte intereseko erakundeek euren jarduera garatzeko testuinguruan ikusitako joera nagusiak honako hauek dira: *profesional bihurtzea, erakundeen arteko lehiaren arriskua eta finantziarioaren iturri pribatuak.*



#### 4.4.1. Profesional bihurtzea

Profesional bihurtzea ez da ezinbesteko prozesua, gazte intereseko erakunde guztientzat. Eraginkortasun handiagoa edukitzeko eskakizunean oinarrituz, irabazi asmorik gabeko sektorearen barruko azpi-sektoreetako erakunde batzuek (adibidez, gizarte ekintza eta kultura) taldeak profesional bihurtzera bideratu dituzte euren esfortzuak. Horrela, baliabide ekonomikoak liberatu dira, profesionalak kontratatzeko, eta eginkizun profesionalen nolabaiteko banaketa egin da. Prozesua sektoreetako erakunde nagusietan gertatzen ari da eta hori lagungarria da prozesu hori beharrezkotzat hartzeko, elkartze egitura osoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, profesional bihurtzeak baditu arriskuak ere. Irabazi asmorik gabeko gazte sektorearen joera nagusienetarikoa (Hirugarren Sektoreko beste erakunde batzuei dagokionez) heziketa gaitasun handia da. Gazte erakundeak oso garrantzitsuak dira jarduera bat garatzen dutelako, baina batez ere hezkuntza eremu bikainak direlako, bertan gazteek ikaskuntza prozesu pertsonalak garatzen baitituzte (horientzat ez dago beste eszenatokiirik). Gazte intereseko erakundetan, proiektuetan parte hartzen ikasi, gizarte trebetasunak garatu, talde-lana egin eta horrek guztiak ingururik hurbilenean aldaketak egiteko ematen duen aukera ulertzen da. Profesional bihurtzearen helburu bakarra ekintzaren eraginkortasuna handitzea izateak arriskuan jar dezake gazte intereseko erakundeen funtsezko elementuetariko bat: hezkuntzaren dimentsioa.

#### 4.4.2. Erakundeen arteko lehiaren arriskua

Profesional kopururik handieneko erakunde batzuen jokabidea estuago lotuta dago enpresa pribatuen jokabideari, irabazi asmorik gabeko erakundeen jokabideari baino. Halako erakundeen helburuak (gehienetan elkarteak eta fundazioak) gaur egun barreiatze prozesuan daude, eta badirudi egituraren beraren mantenamenduak gero eta garrantzi handiagoa duela (lanpostuak, baliabideak, etab.), erakundea sortzean finkaturiko helburuek baino. Erakunde horien helburu nagusia euren baliabideak mantentzea eta handitzea da, euren ekintza zabaltzea baino gehiago.

Jarrera horren eraginez (ekonomiaren beste sektore batzuetako enpresa pribatuen jarreraren modukoa), erakundeen arteko lehia gogorra sortzen ari da. Profesional gehieneko eta zerbitzuak ematera bideraturiko erakundetan, lehiak koordinazioa eta lankidetzaz oztokatzen du, jarduera eta zerbitzu komunetan.

#### 4.4.3. Finantziazio iturri pribatuak

EAEko irabazi asmorik gabeko gazte egiturak inoren baliabideekiko menpekotasun ekonomiko handia dauka; baliabide horietatik gehienak dirulaguntza publikoetan oinarritzen dira, horietatik baitira finantziazio iturri nagusiak. Horrenbestez, erakunde publikoak dira halako erakunde kopuru handi baten jardueraren sustatzaile nagusiak.

Oraintsu, baliabide iturri berri eta indartsua agertu da: sektore pribatua, enpresak. Hasieran, Aurrezki Kutxek apurka-apurka bezeroei eta gai garrantzitsuei beste orientazio bat ematen hasi ziren. Gaur egun, Aurrezki kutxen gizarte ekintza (legez garatu behar dutena) hirugarren sektoreko proiektuak eta programak finantzatzera bideraturik dago.

Gero, ekonomiaren sektore askotako (teknologia berriak, automobilgintza, komunikazioa, zerbitzuak, etab.) enpresa pribatuek, fundazio pribatuen bidez, baliabide ekonomikoak jarri dituzte hirugarren sektoreko erakundeen esku.

Ez dira esperientzia isolatuak. Sektore pribatuaren jarrera berri hori merkataritza mailako estrategia da. Enpresa pribatuak marketinerako elementu indartsuak dira, gazte edo gizarte proiektuak finantzatzuz, irudia hobetuz eta sektorean esku hartuz. Beste alde batetik, horien produktuen ahalezko kontsumitzaileak ere badira. Azkenik, erakundeen jarduerak, aldi berean, enpresaren irudia hedatzen du, horren produktuetara behar bezala egokituta.

Gazte intereseko erakundeetarako, fondo pribatuak baliabide iturri garrantzitsuak dira (orain arte egon ez den iturria) eta hori euren jarduera garatzeko erabil dezakete.

Hala eta guztiz ere, irabazizko eta irabazi asmorik gabeko sektoreen arteko egokitze prozesua ez da erraza. Orain arte, esfortzuetariko batzuen helburua adostasunak lortzea izan da, alderdi bakoitzaren eskakizunei buruz. Horrela, sektore pribatuaren eraginkortasuna eta kudeatzeko gaitasuna lortzeko, lan bateratua egiten da, erakundeen lana ebaluatze-ko helburua duten kalitate estandarrak ezarrita. Beste alde batetik, irabazi asmorik gabeko sektoreak, enpresei auditoria etikoak eskatuz, seguru jakin nahi du bere proiektuetan erabilitako fondoak ez datozela pertsonen bizi kalitateari kalte egiten dion jarduera ekonomiko batetik.



**5**

**Interneti  
buruzko  
gogoetak**



Interneti buruzko atal honen interesa estu lotuta dago etorkizunean ondorio garrantzitsuak izango dituen fenomeno bat gazte elkartzeen ikerketa orokorretik kanpo ez uztearekin.

Sareko gizarte harremanek askatasuna eman edo mugatzeari buruzko igarkizunak albo batera utzita, esan behar da Internet informaziorako bide bat baino askoz ere gehiago dela. Horrenbestez, interesgarria da behintzat oinarri batzuk adieraztea, Interneten eta gazteen elkartze joeren arteko harremanei buruzko gauza batzuk jakiteko.

### 5.1. INTERNETEK EAEko GAZTEEN ARTEAN DUEN ERABILERARI BURUZKO DATUAK<sup>17</sup>

Ondoren datorren koadroan ikusten denez, EAEko gazte kopuru handi batek sarritan erabiltzen du Internet. Era berean, ia %90ak Internetera konektatzeko aukera du etxean, ikastetxean, lanean edo beste leku batzuetan. Horrenbestez, Internet gazterik gehienek esku dagoen tresna da.

20. koadroa: Interneten erabilera, EAEko gazteen artean

Erabiltzaile gazteak	Maiztasunak	%
Benetako erabiltzaileak	289.100	58,7
Ahalezko erabiltzaileak (*)	434.600	88,3
EAEko gazte guztiak	492.320	100

(\*) Internet erabiltzeko aukera duten gazteak.

Gazteak gehienetan etxean konektatzen dira Internetera (%53,1), eta gero ikastetxean (%42,4). Konexioaren helburu nagusiari dagokionez, kasu guztien %64,2tan helburu hori pertsonala da.

<sup>17</sup> Epigrafe honetako datuak *Encuesta sobre la sociedad de la información, 4.º trimestre de 2001* deritzonetik aterata daude. EUSTAT, 2002ko otsaila.

Gehien erabiltzen diren zerbitzuak *web* orriak eta kontsultak dira, konektatzen diren gazte guztien %99ak zerbitzu hori erabiltzen baitu; gehien erabiltzen den bigarren zerbitzua posta elektronikoa da, erabiltzaileen %73,6ak erabiltzen baitu. Interneten erabileraren antzinasunari dagokionez, %18,4ak orain dela bi urtetik hona erabiltzen du eta erabiltzaile gazte guztien %16,8a azken urtean hasi da Internet erabiltzen.

Interneten erabilerari buruzko datuak bilduta ateratzen denez, EAEko 15 eta 30 urte bitarteko erabiltzailearen profilak honako ezaugarri hauek ditu:

- Etxetik konektatzen da (%53,1).
- Erabilera pertsonala dauka (%64,2).
- Gehienbat *web* orriak nahiz *kontsultak* (%99) eta posta elektronikoa (73,6%) erabiltzen ditu.
- Duela bi urtetik hona konektatzen da (%18,4).

## 5.2. INTERNETI BURUZKO EZTABAIDA

Datuek agerian jartzen dutenez, Interneten erabilera zabalak interpretazio asko eduki ditzake. Gaur egun, tresna teknologikoen sorrerak gehienetan harridura handia eragiten du, denek baitakite horiek gizartea aldatzeko gaitasun handia dutela. Harridura horren ondorioz, Interneti buruzko oraingo eztabaida bi poloren inguruan kokatzen da eta joera nagusiek bi mutur horietan daude; gainera, ez dago oinarri enpiriko nahikorik, esaten diren gauzak euskarritzeko, esaten direnak gehienetan komunikazio tresna indartsu horren aldeko edo aurkako iritzietan oinarriturik baitaude.

Batzuen ustez, Interneten garapenaren ondorioz pertsonak bazterturik geldituko dira eremu publikoetatik eta, beraz, aurrez aurreko elkarreraginean oinarrituriko betiko elkartzeko moduetatik. Ikuspegi horren arabera, etorkizunean gizakion arteko harremanak, erosketak edo lana saretik egingo dira, eta horretarako *web cam* deritzona edo hori baino teknologia askoz ere aurreratuagoak erabiliko dira.

Iragarpen horiek betez gero, gazteen elkartzeko munduak egun gutxi ditu eta, horren ordez, elkartzeko harreman birtualak sortuko dira; horietan, gizabanakoak *on line* jardun eta, ordenagailutik, elkartzeko harreman birtualak izango ditu, ezagutu ez baina bere interesak nahiz balioak eduki ditzaketan pertsonekin.<sup>18</sup>

Beste alde batetik, ikuspegi apur bat desberdin bat ere badago eta, horren arabera, Internetek ezin izango du inoiz ere ordezkatu gizakiak toki mailan aurrez aurreko harremanak izateko duen beharizan handia. Horrenbestez, ikuspegi horretatik begiratuta, Internet komunikaziorako bide bat baino ez da izango, telefonoa ere bere garaian izan zen bezala. Bide horrek orain arte inoiz ezagutu gabeko ahalmena izango du, baina azken batean bidea baino ez da izango.

Egia esan, orain arte egindako ikerketa urrietan ez da desberdintasun handirik ikusi, Interneten erabiltzaileak direnen eta ez direnen gizarte jokabideen artean.

<sup>18</sup> RHEINGOLD, Howard, autoreak *Comunidad virtual: una sociedad sin fronteras* izeneko lanean dioenez, Interneten bidez komunitate berri bat sortu eta, horren inguruan, balio eta interes bereko pertsonak bilduko dira. Azkenean, Interneten ondorioak ez dira hain ikusgarriak izan.

Internet lorpen historikoa ekarriko duen komunikazio tresnatzat finkatzen ari da, baina gainera, Interneti buruzko eztabaida oinarritzen duten iragarpenak gaintuta, esan behar da Internet hori baino askoz ere gehiago dela. Internet balio anitzeko komunikazio tresna da; hau da, bai elkartzeko jardueraren berri emateko edo erakundeen arteko koordinazio nahiz lankidetzako estrategiak lantzeko (baita aurrez aurreko harremanik ez dagoenean ere), bai harremanak izateko ohiko moduak ordeztzeko balio du.

### 5.3. INTERNET ETA GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEAK

Internet nahitaezko topalekua da, bere mezuak sarean sartzen dituen elkartzeko munduari dagokionez. Horrela, inongo datu-base ofizialetan erregistraturik ez dauden gazte intereseko erakunde batzuk ere planetako edozein lekutan ezagutu daitezke (baldin eta leku horretan Internetera konektatzeko aukerarik badago), *sindominio.net* tokiaren bitartez (hemen, adibidez, Gasteizko *Gaztetxea*, Altsasuko *Garraxi Irratia* eta abar aurkituko ditugu); horren helburua «sarearen inguruko unibertso anitzean murgiltzea da, eta lankidetzako komunikazio eremu horretan ahalik eta ekarpen handiena egitea, gatazken eta borroken berri ere ematen duen eremuan, eta bertan dagoeneko bertatik kudeaturiko proiektu erraldoiak martxan daude...».<sup>19</sup>

Sarearen erabilerak gizartean izango dituen ondorioei buruzko informazio kualitatiboa egoteko, itxaron egin behar da; baina gauza bat argi dago, Internet erabiltzen duen pertsona kopuruak gorakada ikusgarria izan du. Internet erabiltzen duten 15 eta 20 urte bitarteko pertsonen %20 duela urtebete baino gutxiagotik hona konektatzen da,<sup>20</sup> eta horrek agerian jartzen du horren zabalkundearen azkartasuna.

Gazteen elkartzeko egiturari dagokionez, teknologia berrien erabilera lanerako funtsezko tresnatzat hartzen da (erakundearen %60aren ustez). Horrek datu adierazgarri bat berresten du: erakunde guztien %66ak posta elektronikoko helbidea du (nahiz eta helbide hori, sarritan, partikularra izan).

Horrenbestez, gaur eguneko datuak ikusita, esan daiteke Internetek garapen itzela izango duela etorkizunean. Hala eta guztiz ere, oraindik ez dakigu noraino iritsiko den. Nolanahi ere, argi dago, Internetek gaitasun oso handia dauka komunikazio tresnatzat, eta gainera tresna estrategikoa da informazio bidetzat eta mundura irekitako leihotzat.

Gazte intereseko erakundearen bitartez, gazteek sareak eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko erronka dute Interneten, bai maila praktikoan (komunikaziorako eta informazioa trukatzeko tresnatzat) eta bai tokikoa orokorrekarekin lotzeko mailan.

<sup>19</sup> <http://sindominio.net/info/castilla/sindominio.html>

<sup>20</sup> Iturria: EUSTAT.





## BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI, Jokin, *Psicología de los movimientos asociativos vascos: sus representaciones sociales*, Nacionalismo Konparatuei buruzko Ikerketen Institutua, 1999.
- ARANGUREN GONZALO, Luis A., *Cartografía del voluntariado*, PPC, Madril, 2000.
- NAZIO BATUEN BILTZARRA, *La Juventud como Agente*, (2000). Consejo de la Juventud de España.
- NAZIO BATUEN BILTZARRA, *Informe del Secretario General sobre la puesta en práctica del programa mundial de acción para la juventud para el año 2000 y siguientes* (1997).
- NAZIO BATUEN BILTZARRA, *Aplicación del Programa de Acción Mundial para los Jóvenes hasta el año 2000 y años subsiguientes* (2001). Nazio Batuak.
- BANGO, Julio, *Políticas de juventud en América Latina en la antesala del 2000: Logros, desafíos y oportunidades*, Organización Iberoamericana de Juventud. Centro Internacional de investigaciones para el Desarrollo, 1999.
- BÉJAR, Helena, *El mal samaritano*, Anagrama Argitaletxea, 2001.
- CARPIO, Maximino (Coordinador), *El sector no lucrativo en España*, Pirámide, 1999.
- CASADO, Demetrio, *Organizaciones voluntarias en España*, 2. edizio gaurkotua, Hacer, 1995.
- CASTELLS, M. *La galaxia internet*, Areté, Bartzelona, 2001.
- CIVICUS, *Civil Society at the Milenium*, Kumarian Press, 1999.
- COLECTIVO IOÉ eta MONGUILOT, José Antonio, *El asociacionismo y la participación juvenil en Zaragoza*, 1995.
- EUROPAKO KOMUNITATEEN BATZORDEA, *eEurope 2002 Evaluación comparativa. Acceso de la juventud europea a la era digital*, Europako Komunitateen Batzordea, 2001.
- EUROPAKO KOMUNITATEEN BATZORDEA, *Libro Blanco de la Comisión Europea, Un nuevo impulso para la juventud europea*, Europako Komunitateen Batzordea, 2001.
- EUROPAKO BATZORDEA, *El fomento del papel de las asociaciones y fundaciones en Europa*, Europako Batzordea, 1998.
- CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA, *Bases para una política de juventud*, Consejo de la Juventud de España, 2001.
- CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA, *Cultura participativa y asociacionismo juvenil*, Consejo de la Juventud de España, 2000.
- CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA, *Propuesta para subvenciones a Entidades Juveniles*, Consejo de la Juventud de España, 2001.
- DOCUMENTACIÓN SOCIAL, *Tercer Sector*, Cáritas Española, 1996.
- ELZO, Javier, *Jóvenes españoles 99*, Fundación Santa María, 1999.
- ENCUESTOS SOBRE ASOCIACIONISMO Y VOLUNTARIADO PARA EL TERCER MILENIO (2001), ERDU, *SUMMA I eta II*, Erdu.
- EUROBARÓMETRO, *Conclusiones del Euobarómetro sobre los jóvenes*, 2001eko azaroa.

- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA, *Prensa dossierra, 2001eko iraila*.
- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA, *Prensa dossierra, 2001eko urria*.
- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA, *Prensa dossierra, 2001eko azaroa*.
- FANTOVA, Fernando, *La gestión de organizaciones no lucrativas*, CCS, 2001.
- FEIXA, Carles i SAURA, Joan R., *Joves entre dos mons*, Generalitat de Catalunya, 2000.
- GASTEIZKO GAZTETXEA, *Gasteizko Gaztetxea, guztion etxea*, 2001.
- EUSKO JAURLARITZA, *Euskal Erakundeen II. Gazte Plana*, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2001eko urria.
- EUSKO JAURLARITZA, *Euskadiko gazteak 2000*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000.
- EUSKO JAURLARITZA, *EAE-ko Gazte Plana 1999-2001*, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Nagusia, 1999.
- EUSKO JAURLARITZA, *1999-2000 Gazteriaren erretratuak*, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2001eko urria.
- IARD, *Estudio sobre la situación de los jóvenes y la política de juventud en Europa*, IARD, 1999.
- INSTITUT NATIONAL DE LA JEUNESSE ET DE L'EDUCATION POPULAIRE, *Citiyenneté identités. Nouvelles figures de la citoyenneté et formes actualles de l'engagement des jeunes*, Institut National de la Jeunesse et de l'Education Populaire, 1995.
- MADRID, Antonio, *La institución del Voluntariado*, Trotta Argitaletxea, 2001.
- MENDIZABAL, Luis, *Estudio del movimiento asociativo en Álava*, Encuentro sobre asociacionismo y voluntariado para el tercer milenio, 2001.
- PRIETO LACACI, Rafael, *Tendencias del asociacionismo juvenil en los 90*, Instituto de la juventud, 1998.
- QUADERNS DE SERVEIS SOCIALS, *El Tercer Sector en l'àmbit social*, Diputació de Barcelona, 1997.
- RÍO, Eugenio del, *Modernidad, postmodernidad*, Talasa S.L., 1997.
- RIVAS, Ana M.<sup>a</sup>, *Justicia, solidaridad y voluntariado*. Encuentro sobre asociacionismo y voluntariado para el tercer milenio, 2001.
- RUIZ OLABUÉNAGA, José I. (Dir.), *El sector no lucrativo en España*, Fundación BBV. Documenta, 2000.
- RUIZ OLABUÉNAGA, José I. (Dir.), *La juventud liberta: Género y estilos de vida de la juventud urbana española*, Fundación BBV. Documenta, 1998.
- RUIZ OLABUÉNAGA, José Ignacio, *Sociología de las organizaciones*, Deustuko Unibertsitatea, 1995.
- SALAMON, Lester. M, *Nuevo estudio del Sector Emergente. Resumen*, Fundación BBV, 1998.
- SALAMON, Lester M. (Dir.), *Global Civil Society. Dimensions of the Nonprofit Sector*, The Johns Hopkins Center for Civil Society Studies, 1999.
- SINDOMINIO.NET <<http://sindominio.net/info/castilla/sindominio.html>>
- TERCER FORO MUNDIAL DE LA JUVENTUD DEL SISTEMA DE NACIONES UNIDAS (1998). *Plan de Acción Joven de Braga*.
- WALLISER MARTINEZ, Andrés, *Participación ciudadana en Madrid y Barcelona. Las diferencias y sus causas*. Encuentro sobre asociacionismo y voluntariado para el tercer milenio, 2001.
- WEBER, Max, *El político y el científico*, Alianza Argitaletxea, Madril, 1998.
- WEBER, Max, *La ciencia como profesión*, Espasa Calpe, 2001.



